

## ADOSTASUN-DEKLARAZIOA

Honen bidez, NOKIA CORPORATIONek adierazten du RM-200 produktuak 1999/5/EE zuzentarauko oinarritzako baldintzak eta aplikatu edo eskatu beharreko gainerako xedapenak betetzen dituela. Adostasun-deklarazioaren kopia bat dago helbide honetan:  
[http://www.nokia.com/phones/declaration\\_of\\_conformity/](http://www.nokia.com/phones/declaration_of_conformity/).

# CE 0434



Gurpildun edukiontzia irudiak adierazten du Europako Batasunean berezita jaso behar dela objektua, haren bizi-zikloaren amaieran. Horrek gailuarentzat eta ikur hori duten gainerako osagarrientzat balio du. Ez bota produktu hau udal-hondakindegira sailkatu gabe. Informazio gehiago izateko, ikus ingurumena errespetatzen duen produktua dela ziurtatzen duen agiria edo ikus herrialdeko informazio zehatza [www.nokia.com](http://www.nokia.com) gunean.

Copyright © 2006 Nokia. Eskubide guztiak erreserbatuta.

Debekatuta dago dokumentu osoa edo zati bat inolako eratan erreproduzitzea, transferitzea, banatzea edo jasotzea, Nokiaren alde aurreko eta idatzizko baimenik gabe.

US Patent No 5818437 and other pending patents. T9 text input software Copyright (C) 1997-2006. Tegic Communications, Inc. Eskubide guztiak erreserbatuta.

Nokia, Visual Radio, Nokia Connecting People eta Pop-Port markak Nokia Corporation-en merkataritzako markak edo marka erregistratuak dira. Hemen aipatzen diren gainerako produktuak eta enpresen izenak haien jabeen marka komertzialak edo erregistratuak izan daitezke.

Nokia tune Nokia Corporation-ek erregistratutako doinua da.



Includes RSA BSAFE cryptographic security protocol software from RSA Security.



Java is a trademark of Sun Microsystems, Inc.

This product is licensed under the MPEG-4 Visual Patent Portfolio License (i) for personal and noncommercial use in connection with information which has been encoded in compliance with the MPEG-4 Visual Standard by a consumer engaged in a personal and noncommercial activity and (ii) for use in connection with MPEG-4 video provided by a licensed video provider. No license is granted or shall be implied for any other use. Additional information including that relating to promotional, internal and commercial uses may be obtained from MPEG LA, LLC. See <http://www.mpegla.com>.

Produktu honek Ikusizko MPEG-4 Patenten Zorroaren Lizentzia izan behar du, (i) kontsumitzaile batek helburu ez-komertzialarekin eta pertsonalarekin Ikusizko MPEG-4 Estandarraren arabera kodetutako informazioarekin lotutako erabilera pertsonal eta ez-komertzialerako, (ii) bideo-irtenbideen hornitzaile baimendu batek eskainitako MPEG-4 bideoarekin lotutako erabilera bateraturako.

Ez da barne hartzen ez eta inplizituki hartzen ere beste zerbaiterako erabiltzeko lizentziarik. Merkataritza-, sustapen- eta barne-erabilerari buruzko informazio gehiago behar baduzu, jarri harremanetan honekin: MPEG LA, LLC. Ikus <<http://www.mpegla.com>>.

Nokiak etengabe garatzeko politikarekin lan egiten du, eta eskubidea dauka dokumentu honetan deskribatutako produktuetan aldaketak eta hobekuntzak egiteko aurrez ohartarazi gabe.

Nokiak ez du bere gain hartuko, inola ere, datuen edo diru-sarreraren galera, ez eta inolako kalterik, gertakaririk, ondoriozkorik edo zeharkakorik ere, horien arrazoia edozein dela ere.

Dokumentu honen edukia dagoen dagoenean ematen da. Aplikatu beharreko legeak hala eskatzen duenean izan ezik, ez da inolako bermerik –berariazkorik edo inpliziturik– ematen, baina merkaturatzeko eta egokitzeko berme inplizitua ez da mugatzen dokumentu honen zehaztasunera, fidagarritasunera eta edukira. Nokiak eskubidea dauka dokumentu hau edozein unetan eta aurrez abisatu gabe aldatzeko edo merkatutik kentzeko.

Produktu jakin batzuk eskura egotea aldatu egin daiteke eskualde batetik bestera. Galde iezaiozu gertuen duzun Nokiaren banatzaileari.

Produktu honek AEBetako eta beste herrialde batzuetako araudien eta legearen araberako osagaiak, teknologia edo softwarea izan ditzake. Debehatuta dago legeak urratzea.

9250166/2-edizioa

# Edukia

---

<b>Zure segurtasuna.....</b>	<b>6</b>	Multimedia-mezuak.....	33
<b>Informazio orokorra.....</b>	<b>10</b>	Memoria beteta egotea.....	36
Sarbide-kodeak .....	10	Karpetak.....	36
Konfigurazioa doitzeko zerbitzua .....	11	Flash mezuak .....	37
Edukiaren deskarga .....	12	Audio-mezuak .....	38
Laguntza eta Nokiarekin harremanetan		Ahots-mezuak .....	38
jartzeko informazioa .....	12	Informazio-mezuak.....	39
<b>1. Oinarrizko kontzeptuak.....</b>	<b>13</b>	Zerbitzu-komandoak .....	39
SIM txartela eta bateria jartzea.....	13	Mezuak ezabatzea .....	39
Memoria-txartela instalatzea .....	15	Mezuen doikuntzak.....	40
Bateria kargatzea .....	16	<b>7. Telefono-aurkibidea .....</b>	<b>43</b>
Telefonoa piztea eta itzaltzea .....	17	Kontaktua bilatzea .....	43
SIM txartelik gabe abiaraztea.....	18	Izenak eta telefono-zenbakiak gordetzea.....	43
Funtzionamendu arruntaren posizioa .....	18	Zenbakiak edo testu-elementuak gordetzea.....	43
<b>2. Zure telefonoa .....</b>	<b>19</b>	Kontaktua mugitzea edo kopiatzea.....	44
Teklak eta piezak.....	19	Kontaktuen xehetasunak editatzea .....	45
Deiak jasotzeko/egiteko modua .....	20	Kontaktua ezabatzea .....	45
Teklatua blokeatzea .....	24	Bisita-txartelak .....	45
<b>3. Dei-funtzioak .....</b>	<b>25</b>	Doikuntzak.....	46
Ahots-dei bat egitea.....	25	Taldeak .....	46
Ahots-dei bati erantzutea edo deia ez hartzea.....	27	Marketa bizkorra.....	46
Ahots-dei bateko aukerak .....	27	Zerbitzua eta nire zenbakiak .....	47
<b>4. Testua idaztea .....</b>	<b>28</b>	<b>8. Erregistroa.....</b>	<b>48</b>
Doikuntzak.....	28	<b>9. Doikuntzak .....</b>	<b>49</b>
Testu prediktiboarekin idaztea .....	28	Moduak.....	49
Ohiko bidea erabilia testua idaztea .....	29	Gaiak.....	50
<b>5. Menuetan batetik bestera mugitzea</b>	<b>30</b>	Tonuak.....	50
<b>6. Mezuak .....</b>	<b>31</b>	Pantaila.....	50
Testu-mezuak (SMS).....	31	Ordua eta eguna.....	52
SIM mezuak .....	33	Nire zuzeneko sarbideak .....	53
		Konektagarritasuna .....	55
		Deiaren doikuntzak .....	61
		Telefonoaren doikuntzak .....	62

Ekipamendua.....	64
Konfigurazioa.....	64
Segurtasuna.....	65
Esquibide digitalen kudeaketa.....	66
Telefonoaren softwarea eguneratzea.....	67
Jatorrizko doikuntzak berriz jartzea.....	68

## **10. Operadorearen menua ..... 69**

### **11. Galeria ..... 70**

Memoria-txartela formateatzea.....	70
------------------------------------	----

### **12. Multimedia ..... 71**

Kamera.....	71
Bideoa.....	72
Multimedia-erreproduzitzaila.....	73
Musika-erreproduzitzaila.....	74
Irratia.....	76
Grabagailua.....	78
Ekualizadorea.....	79

### **13. Deitzeko sakatzea..... 80**

PTT zerbitzura konektatzea.....	80
PTT deiak egitea eta jasotzea.....	81
Deia itzultzeko eskatzea.....	83
Noranzko bakarreko kontaktuetara atxikitzea...84	
PTT kanalak.....	84
PTTaren doikuntzak.....	85

### **14. Antolatzailea..... 87**

Alarma.....	87
Agenda.....	88
Zeregin-zerrenda.....	89
Oharrak.....	89
Kalkulagailua.....	89
Atzerako kontaktaren tenporizadorea.....	90
Kronometroa.....	91

### **15. Aplikazioak ..... 92**

Jokoak.....	92
Bilduma.....	92

### **16. Web-a ..... 94**

Zerbitzuetara sartzeko eta horiek erabiltzeko oinarrizko prozedura.....	94
Nabigazioa konfiguratzea.....	94
Zerbitzu batera konektatzea.....	95
Orrietan nabigatzea.....	95
Gogokoak.....	97
Itxuraren doikuntzak.....	97
Segurtasun-doikuntzak.....	98
Deskargatzeko doikuntzak.....	99
Zerbitzuko sarrerako postontzia.....	99
Cache memoria.....	100
Nabigatzailearen segurtasuna.....	100

### **17. SIM zerbitzuak ..... 103**

### **18. PCrako konektagarritasuna..... 104**

Nokia PCSuite.....	104
EGPRS, HSCSD, CSD eta WCDMA.....	104
Datuak komunikatzeko aplikazioak.....	105

### **19. Bateriari buruzko informazioa 106**

Kargatzea eta deskargatzea.....	106
Nokia bateriak autentifikatzeko arauak.....	107

### **Zainketa eta mantentze-lana..... 109**

### **Segurtasunari buruzko informazio gehiago..... 111**

### **Aurkibidea..... 115**

# Zure segurtasuna

---

Irakurri jarraibide erraz hauek. Arauak ez errespetatzea arriskutsua edo legez kontrakoa izan daiteke. Irakurri erabiltzailearen eskuliburu osoa informazio gehiago izateko.



## PIZTU TELEFONOA ARRISKURIK GABE

ez piztu telefonoa mugikorrek erabiltzea debekatuta dagoen lekuetan edo interferentziak sor ditzakeen edo arriskuren bat ekar dezakeen lekuetan.



## ERREPIDEAN ERNE IBILTZEA FUNTSEZKOA DA

Errespetatu tokian tokiko legedia. Gidatzen duzun bitartean, eskuak libre izan beti autoarekin maniobrak egin ahal izateko. Gogoratu errepidean gidatzeko lehen araua arretaz ibiltzea dela.



## INTERFERENTZIAK

Telefono mugikor guztiek jaso ditzakete haien errendimenduari eragin diezaioketen interferentziak.



## ITZALI TELEFONOA OSPITALEETAN

Errespetatu murrizketa guztiak. Itzali telefonoa tresna mediko batetik gertu zaudenean.



## ITZALI TELEFONOA HEGAZKINETAN

Errespetatu murrizketa guztiak. Haririk gabeko gailuak –esate baterako telefono mugikorrek– erabiltzeak interferentziak sor ditzake hegazkinetan.



## ITZALI TELEFONOA GASOLINA-ZERBITZUGUNEETAN

Ez erabili telefonoa gasolina-zerbitzuguneetan. Ez erabili erregaietatik edo produktu kimikoetatik gertu.



## ITZALI TELEFONOA LEHERGAIETATIK GERTU

Errespetatu murrizketa guztiak. Ez erabili telefonoa leherketak egiten dituzten lekuetan.



## ERABILI ZENTZUZ

Telefonoa posizio normalean bakarrik erabili, produktuaren dokumentazioan azaltzen den bezala. Ez ukitu antena beharrezkoa ez bada.



## ZERBITZU TEKNIKO GAITUA

Zerbitzu teknikoetako langile gaituek soilik instala edo konpon dezakete produktua.



## EKIPAMENDUA ETA BATERIAK

Fabrikatzaileak onartutako ekipamendua eta bateriak soilik erabili. Ez konektatu bateraezinak diren produktuak.



### URAREKIKO ERRESISTENTZIA

Zure telefonoak ezin du ura jasan. Ez ezazu busti.



### SEGURTASUN-KOPIAK

Gogoratu telefonoan gordetzen duzun informazio garrantzitsu guztiaren segurtasun-kopiak egitea edo idatziz erregistratzea.



### BESTE GAILU BATZUEKIKO KONEXIOA

Beste gailu batekin konektatu nahi baduzu, lehenik irakurri dagokion erabiltzailearen gidaliburua, segurtasun-jarraibideak zein diren ongi jakiteko. Ez konektatu bateraezinak diren produktuak.



### LARRIALDI-DEIAK

Ziurtatu telefonoa piztuta eta martxan dagoela. Sakatu deia amaitzeko tekla behar adina aldiz pantaila ezabatzeko eta hasierako pantailara itzultzeko. Markatu larrialdi-zenbakia eta sakatu deitzeko tekla. Adierazi zure kokapena. Ez eten deia horretarako baimena ematen dizuten arte.

## ■ Gailuari buruz

Eskuliburu honetan deskribatutako telefono mugikorra sare hauetan erabil daitezke: EGSM 900, GSM 1800 eta 1900 eta WCDMA2000. Sareei buruz informazio gehiago izateko, jarri zure zerbitzu-hornitzailearekin harremanetan. Gailu honetako funtzioak erabiltzean, errespetatu tokiko legeak eta gainerako pertsonen pribatutasuna eta legezko eskubideak, copyright-a barne.

Irudiak edo bideoklipak erabili eta grabatzean, errespetatu legeak, tokiko ohiturak eta gainerako pertsonen pribatutasuna eta legezko eskubideak.



**Oharra:** gailu honen funtzioak, erlojuaren alarma salbu, erabiltzeko, piztuta egon behar du. Ez piztu haririk gabeko gailua interferentziak sor ditzakeen edo arriskuren bat ekar dezakeen lekuetan.

## ■ Sare-zerbitzuak

Telefonoa erabiltzeko, haririk gabeko zerbitzuen hornitzaile baten zerbitzuak kontratatu behar dituzu. Telefono honen funtzio asko erabiltzeko haririk gabeko sarearen funtzioak behar dira. Litekeena da sare-zerbitzu horiek sare guztietan erabilgarri ez egotea edo zure zerbitzu-hornitzailearekin akordio bat lortu behar izatea erabili ahal izateko. Baliteke zerbitzu-hornitzaileak horien gaineko jarraibide gehiago ematea eta kasu bakoitzean zein kargu aplikatzen diren jakinaraztea.

Litekeena da sare batzuek zenbait muga izatea eta horiek sare-zerbitzuak erabiltzeko moduan eragitea. Adibidez, baliteke sare batzuek ez onartzea hizkuntzaren menpe dauden zenbait karaktere eta zerbitzu.

eta litekeena da zerbitzu-hornitzaileak eskatu izana funtzio batzuk gailuan erabilgarri edo aktibatuta ez egotea. Hala bada, ez dira agertuko zure telefonoaren menuan. Litekeena da, halaber, zure gailua modu berezi batean konfiguratuta egotea. Konfigurazio-aldaketek menuen izenei eta ordenei eta ikonoei eragin diezaiekete. Jarri harremanetan zure zerbitzu-hornitzailearekin informazio gehiago jaso nahi baduzu.

Telefono honek WAP 2.0 (HTTP eta SSL) protokoloak onartzen ditu, eta horiek TCP/IP protokoloekin exekutatzeko dira. Telefono honen hainbat funtzio erabili ahal izateko (adibidez, multimedia-mezuak (MMS), nabigazioa, berehalako mezularitza, presentziari buruzko informazioa duten kontaktuak, urrutiko sinkronizazioa edo nabigatzailea edo MMSak erabiliz edukiak deskargatzea), teknologia horiek onartu behar ditu sareak.

## ■ Memoria partekatua

Gailu honen ondorengo funtzioek memoria parteka dezakete: galeria, aurkibidea, testu-mezuak, multimedia-mezuak, berehalako mezuak, agenda, zereginen oharrak, jokoak eta Java™ aplikazioak eta ohar-aplikazioak. Funtzio horietako bat edo gehiago erabiliz gero, memoria partekatzen duten gainerako funtzioentzako memoria murriz daiteke. Adibidez, memoria erabat agor daiteke Java aplikazio asko gordetzen badituzu. Litekeena da telefonoak mezu bat erakustea, memoria beteta dagoela adieraziz, baldin eta memoria partekatzen duten funtzioetako bat erabiltzen ahalegintzen bazara. Kasu horretan, ezabatu memoria partekatua erabiltzen duen informazioaren zati bat edo gordetako sarrera batzuk. Baliteke funtzio batzuek (testu-mezuak adibidez) memoria-kantitate zehatz bat esleituta izatea beste funtzio batzuekin partekatzen duten memoriari gain.

## ■ Ekipamendua

Osagarriei eta ekipamenduari buruzko arau erabilgarri batzuk:

- Ez utzi osagarriak eta ekipamendua haurren eskueran.
- Edozein osagarri edo ekipamenduren elikatze-haria deskonektatzeko, heldu entxufeari eta egin tira handik, ez egin tira haritik.
- Egiaztatu noizean behin zure ibilgailuan instalatutako ekipamendua behar bezala jarrita dagoela eta ondo dabilela.
- Ibilgailurako ekipamendu konplexua langile gaituek soilik instalatu behar dute.



# Informazio orokorra

---

## ■ Sarbide-kodeak

### Segurtasun-kodea

Segurtasun-kodeak (5 eta 10 digitu bitartean) telefonoa baimenik gabe erabiltzetik babesten laguntzen du. Aurrez ezarritako kodea 12345 da. Kodea aldatzeko eta telefonoa kode hau eska dezan konfiguratzeko, ikus Segurtasuna, 65. orrialdean.

Segurtasun-kodea bost aldiz segidan gaizki sartuz gero, telefonoak ez ditu kontuan hartuko hurrena sartutako kodeak. Itxaron 5 minutu eta sartu berriro kodea.

### PIN kodeak

Identifikazio pertsonaleko zenbakia (PIN) eta identifikazio pertsonaleko zenbaki unibertsala (UPIN) (4-8 digitukoak) SIM txartela babesten dute, telefonoa baimenik gabe ez erabiltzeko. Ikus Segurtasuna 65. orrialdean. PIN kodea SIM txartelarekin batera ematen da. Telefonoa konfigura dezakezu pizten den bakoitzean PIN kodea eska dezan.

PIN2 kodea (4-8 digitukoa), SIM txartel batzuek dutena, beharrezkoa da hainbat funtziotarako.

Moduluaren PINa beharrezkoa da segurtasun-moduluko informazioan sartzeko. Ikus Segurtasun-moduluak 100. orrialdean. Moduluaren PINa SIM txartelarekin batera ematen da, baldin eta txartel horrek segurtasun-modulua badu.

Sinaduraren PINa sinadura digitalerako beharrezkoa da. Ikus Sinadura digitala 102. orrialdean. Sinadura PINa SIM txartelarekin batera ematen da, baldin eta txartel horrek segurtasun-modulua badu.

## PUK kodeak

Desblokeatze-kode pertsonala (PUK) eta desblokeatze-kode pertsonal unibertsala (UPUK) (8 digitukoak) PIN eta UPIN blokeatuak aldatzeko behar dira, hurrenez hurren. Kodeak SIM txartelarekin entregatzen ez badizkizute, jarri harremanetan zure zerbitzu-hornitzailearekin eta eskaiezazkiozu.

## Murritzapenen pasahitza

Murritzapenen pasahitza (4 digitu) beharrezkoa da deiak murrizteko zerbitzuak erabiltzeko (*Servicio restric. de llams.*). Ikus Segurtasuna 65. orrialdean. Zerbitzu-hornitzaileak emango dizu pasahitz hori. Murritzapenen pasahitz okerra segidan hiru aldiz sartzen baduzu, pasahitza blokeatu egiten da. Jarri harremanetan zerbitzu-hornitzailearekin edo sare-operadorearekin.

## ■ Konfigurazioa doitzeko zerbitzua

Multimedia-mezuak, berehalako mezularitzak eta presentzia-mezuak, Deitzeko sakatzea zerbitzua (PTT), posta elektronikoa, SMSak, sinkronizazioa, streaming-a eta nabigatzailea erabili aurretik, telefonoan konfigurazio-doikuntza egokiak izan behar dituzu. Doikuntzak zuzenean jaso ditzakezu konfigurazio-mezu gisa eta telefonoan gorde ditzakezu. Erabilgarritasunari buruzko informazio gehiago eskuratzeko, jarri harremanetan zure sare-operadorearekin, zure zerbitzu-hornitzailearekin edo gertueneko Nokia banatzaile baimenduarekin.

Doikuntzak konfigurazio-mezu gisa jasotzean eta haiek jaso edo automatikoki aktibatu ez badira, pantailan *Ajustes de conexión recibidos* agertuko da.

Jasotako doikuntzak gordetzeko, sakatu **Mostrar > Guardar**. Telefonoak *Introduzca el PIN de los ajustes*: esaten badizu, sartu doikuntzen PINa eta hautatu **Aceptar**. PIN kodea eskuratzeko, jarri harremanetan doikuntzak ematen dituen zerbitzu-hornitzailearekin.

Orain arte doikuntzarik gorde ez bada, doikuntza horiek gorde eta aurrez zehaztutako konfigurazio-doikuntza gisa definitzen dira.

Bestela, telefonoak galdera hau egiten du: *¿Activar ajustes de configuración guardados?*

Jasotako doikuntzak atzera botatzeko, hautatu **Mostrar** > **Descartar**.

## ■ Edukiaren deskarga

Eduki berriak (adibidez, gaiak) deskarga ditzakezu telefonoan (sare-zerbitzua). Hautatu deskargatzeko funtzioa (adibidez, *Galería* menuan). Deskargatzeko funtziora joateko, ikus deskribapenak dagozkien menuetan.

Telefonoaren softwarearen eguneratzeak ere deskargatu ahal izango dituzu (sare-zerbitzua). Ikus Telefonoaren softwarea eguneratzea, 67. orrialdean.

Kontsultatu zerbitzu-hornitzailearekin zerbitzuen erabilgarritasuna, prezioak eta tarifak.



**Garrantzitsua:** Kalte egin dezaketen programen aurkako babes eta segurtasun egokia eskaintzen dizuten konfiantzako zerbitzuak bakarrik erabili.

## ■ Laguntza eta Nokiarekin harremanetan jartzeko informazioa

Kontsulta ezazu [www.nokia.com/support](http://www.nokia.com/support) gunea edo Nokiaren zure herrialdeko web gunea, gidaliburu honen azken bertsioa eskuratzeko, informazio osagarria irakurtzeko, deskargak egiteko eta Nokiaren produktuekin lotutako zerbitzuak zein diren jakiteko.

Nokiaren produktuak eta zerbitzuak erabiltzeko moduari buruzko informazioa aurkituko duzu web gunean. Bezeroentzako arreta-zerbitzuarekin harremanetan jarri nahi izanez gero, kontsultatu Nokiaren harremanetarako zentroen zerrenda [www.nokia.com/customerservice](http://www.nokia.com/customerservice) gunean.

Mantentze-lanetako zerbitzuei dagokienez, ikus [www.nokia.com/repair](http://www.nokia.com/repair) helbidean Nokiaren zerbitzu-zentrorik hurbilena zein den.

# 1. Oinarrizko kontzeptuak

## ■ SIM txartela eta bateria jartzea

Bateria kendu aurretik, ziurtatu beti gailua itzalita eta kargagailutik deskonektatuta dagoela.



Ez utzi SIM txartela haurren eskueran.

SIM txartelaren zerbitzuen erabilgarritasunari eta informazioari buruzko zehaztasun gehiago izateko, jarri harremanetan zure SIM txartelaren banatzailearekin. Sare-operadorea, zerbitzu-hornitzailea edo beste banatzailearen bat izan liteke.


Gailu hau BP-6M bateriarekin erabiltzeko diseinatuta dago.

SIM txartela eta haren kontaktuak oso erraz honda daitezke harramazka edo tolesturekin; kontuz erabili behar duzu, beraz, telefonoan sartzerakoan edo ateratzerakoan.


1. Mugikorraren atzeko aldean gorantz begira jarrita, lerratu atzeko karkasa (1) kentzeko (2).
2. Bateria ateratzeko, altxatu irudian agertzen den bezala (3).




3. SIM txartelaren gordelekua irekitzeko, tira egin kontu handiz gordelekuaren blokeatze-irtengunean eta ireki (4). Sartu SIM txartela dagokion lekuan (5). Ziurta ezazu SIM txartela behar bezala sartuta dagoela eta urre-koloreko kontaktuak behera begira daudela. Itxi SIM txartelaren gordelekua (6) eta presioa egin behera, ongi sartu arte.




4. Jarri bateria (7).



5. Ipini ongi atzeko karkasa (8).



6. Lerratu atzeko karkasa bere lekuan sartuta gelditu arte (9).



## ■ Memoria-txartela instalatzea

MicroSD txartelak aurrez kargatutako dei-tonuak, gaiak, tonuak eta grafikoak ditu (txartela ez dator telefonoarekin). Txartel hori ezabatzen, kargatzen edo ordeztan baduzu, baliteke funtzio eta ezaugarri horiek behar bezala ez ibiltzea.



Gailu hau microSD txartel bateragarriekin soilik erabili. Bestelako memoria-txartelak, adibidez MMC, ez dira memoria-txartelaren zirrikitan sartzen eta ez dira gailu honekin bateragarriak. Bateragarria ez den memoria-txartela erabiliz gero, txartela eta gailua hondatu egin daitezke eta txartelean gordetako datuak ere aldatu egin daitezke.

Erabili bakarrik Nokiak gailu honetarako onartutako microSD txartelak. Memoria-txarteletarako sektorean onartutako estandarrak erabiltzen ditu Nokiak; dena dela, baliteke gainerako markak ongi ez funtzionatzea edo gailuarekin erabat bateraezinak izatea.

Memoria-txartela erabil dezakezu *Galeriaren* memoria handitzeko. Ikus *Galeria 70*. orrialdean.


Memoria-txartela sartu edo alda dezakezu, telefonoa itzali gabe.



**Garrantzitsua:** ez atera memoria-txartela martxan dagoenean, txartelera sartzen ari denean. Martxan dagoen bitartean txartela ateratzen bada, memoria-txartela, gailua eta txartelean gordetako datuak honda daitezke.

Memoria-txartela sartzeko, ireki dagokion konpartimentua (ikus irudia, 1). Jarri memoria-txartela txartelaren gordelekuan (2). Ziurtatu memoria-txartela behar bezala sartuta dagoela, konpartimentuan ongi sartu dela, eta urrekoloreko kontaktuak gora begira daudela.

Itxi memoria-txartelaren konpartimentua.



Memoria-txartela erabil dezakezu multimedia-fitxategiak gordetzeko (adibidez, bideoklipak, soinu-fitxategiak edo irudiak) *Galeria* karpetan.

Memoria-txartela formateatzeko, ikus Formateo de la tarjeta de memoria 70. orrialdean.

## ■ Bateria kargatzea


Kargagailua erabili aurretik, egiaztatu modeloaren zenbakia, bateragarria den jakiteko. Gailu hau AC-3 edo AC-4 kargagailuak erabilita elikatzen diseinatuta dago.



Oharra: Nokiak modelo honentzat onartutako bateriak, kargagailuak eta ekipamendua soilik erabili. Beste edozein mota erabiliz gero, telefonoaren onarpen edo berme guztiak bertan behera geratu daitezke, eta arriskutsua izan daiteke.

Onartutako ekipamendua badagoen jakiteko, jarri harremanetan banatzailearekin. Edozein ekipamenduren elikatze-haria deskonektatzen duzunean, heldu entxufeari eta egin tira handik, ez egin tira haritik.

1. Konektatu kargagailua korrante-hartune batera.
2. Konektatu kargagailuaren entxufea telefonoaren oinarriko konektorerara. CA-44 karga-egokigailua (ez dator telefonoarekin) aurreko kargagailu-modeloekin ere erabil daiteke.



Bateria erabat deskargatuta badago, minutu batzuk pasatuko dira pantailan karga-adierazlea agertu arte edo deia egin ahal izan arte.

Kargatzeko behar duen denbora erabilitako bateriaren eta kargagailuaren arabera da. Adibidez, AC-4 kargagailuarekin BP-6M litio-ioizko bateria kargatzeko ordu bat eta berrogeita hamabost minutu behar da gutxi gorabehera, pantaila deiak jasotzeko/egiteko moduan badago.

## ■ Telefonoa piztea eta itzaltzea




**Oharra:** ez piztu telefonoa mugikorrek erabiltzea debekatuta dagoen lekuetan edo interferentziak sor ditzakeen edo arriskuren bat ekar dezakeen lekuetan.

Eduki sakatuta pizteko tekla irudian agertzen den bezala.

Telefonoak PIN kodea edo UPIN kodea eskatzen badu, sartu eta sakatu **Acceptar**.

Telefonoa SIM txartelik sartu gabe piztu daiteke.



## Ordua, ordu-eremua eta data konfiguratzeko

Sartu tokiko ordua, hautatu dagokizun ordu-eremua Greenwicheko batezbesteko orduarekiko (GMT) diferentziaren arabera, eta sartu data. Ikus Hora y fecha 52. orrialdean.

## Plug and play zerbitzua

Telefonoa lehen aldiz pizten duzunean eta deiak jasotzeko/egiteko egoeran dagoenean, agian eskatuko dizu zerbitzu-hornitzailearen konfigurazio-doikuntzak eskuratzeko (sare-zerbitzua). Eskaera berretsi edo ez onartu. Ikus *Conect. con soporte serv.* 64. orrialdean, eta *Konfigurazioa doitzeko zerbitzua*, 11. orrialdean.



## ■ SIM txartelik gabe abiaraztea

Telefonoa SIM txartelik gabe abiarazteko, baietz erantzun galdera honi: *¿Iniciar teléfono sin tarjeta SIM?*. Ondoren, erabili SIM txartelik behar ez duten funtzioak.


## ■ Funtzionamendu arruntaren posizioa

Erabili telefonoa funtzionamenduko posizio normaletan soilik.

Zure gailuak barne-antena bat du.




**Oharra:** irrati-uhinen bidezko beste transmisio-gailu batzuekin gertatzen den bezala, telefonoa piztuta dagoenean, ez ukitu antena beharrezkoa ez bada. Gorputzak antena ukitzeak deiaren kalitateari eragiten dio, eta telefonoak funtzionatzeko behar duen potentzia-maila inolako beharrik gabe igoaz dezake. Telefonoa erabiltzen duzun bitartean antena inguratzen duen eremua ez ukitzeak haren errendimendua eta bateriaren iraupena optimizatzen ditu.




## 2. Zure telefonoa

### ■ Teklak eta piezak


- 1 Pizteko tekla
- 2 Entzungailua
- 3 Ezkerreko, erdiko eta eskuineko hautaketa-teklak
- 4 Deia amaitzeko tekla
- 5 Lau norabideko desplazamendu-tekla
- 6 Deitzeko tekla
- 7 Zenbaki-teklak



- 8 Deitzeko sakatzea/ Funtzio anitzetarako tekla
- 9 Bozgorailua
- 10 Memoria-txartelaren zirrikitua
- 11 Kargagailuaren konektorea
- 12 Ekipamenduaren konektorea




- 13 Bolumen-tekla
- 14 Infragorrien ataka (IR)
- 15 Kameraren lentea
- 16 Kamera-tekla



## ■ Deiak jasotzeko/egiteko modua

Telefonoa erabiltzeko prest dagoenean eta karaktererik sartu ez denean, deiak egiteko/jasotzeko moduan jartzen da.

- 1 Sare-moduaren adierazlea
- 2 Sare zelularren seinalearen intentsitatea
- 3 Bateriaren karga-maila
- 4 Adierazleak
- 5 Sarearen izena edo operadorearen logotipoa
- 6 Erlojua
- 7 Pantaila
- 8 Ezkerreko hautaketa-tekla **Ir a** da edo beste funtzio baterako zuzeneko sarbidea.



Ikus Ezkerreko hautaketa-tekla, 53. orrialdean.


- 9 Erdiko hautaketa-tekla **Menú** da.
- 10 Eskuineko hautaketa-teklak aukera hauek izan ditzake: **Nombres** telefono-aurkibideko kontaktuen zerrendara sartzeko, operadore baten izena bere web gunera sartzeko edo hautatutako funtzio baterako zuzeneko sarbidea. Ikus Eskuineko hautaketa-tekla, 53. orrialdean.

## Itxarote aktiboa

Itxarote aktiboaren moduan dagoenean, telefonoak eduki-elementuen leiho bereziak bistara ditzake, adibidez, zuzeneko sarbideak (1), audio-funtzioak (2), agenda (3) eta erabiltzaile-ohar bat (4).

Itxarote aktiboa bistaratu nahi den hautatzeko, ikus *Espera activa* Deiak egiteko jasotzeko moduaren doikuntzak aukeran, 51. orrialdean.

Itxarote aktiboa desaktibatuta dagoenean, menuen egiturara sartzeko, hautatu **Menú** (5). Mugitu gora eta behera, deiak jasotzeko/egiteko modu aktiboan funtzioetara sartzeko.



Sarbide-tekla nabigazio-modura aldatzeko, ikus *Activación espera activa* Deiak egiteko/jasotzeko moduaren doikuntzak atalean, 51. orrialdean. Gezi-adierazleak bistaratzen direnean (6), elementua ezkererantz edo eskuinerantz mugi daiteke.

## Eduki-elementuak nabigazio-moduan

*Barra de accesos directos* – Zuzeneko sarbide bat hautatzeko, mugitu eskuinera edo ezkerreara, nahi duzun funtziora arte, eta hautatu.

Nabigazio-moduan zuzeneko sarbideak aldatzeko edo antolatzeko, hautatu **Opciones** > *Espera activa* > *Mi espera activa* > **Opciones** > *Personalizar* > **Opciones** > *Seleccionar enlaces* edo *Organizar enlaces*.

*Aplicaciones de audio* – Irratia edo musika-erreproduzitzailea pizteko, hautatu. Musika-erreproduzitzailean abestia edo irrati-kanala aldatzeko, joan ezkerreara edo eskuinera.

Irrati-kanalak bilatzeko, luze sakatu desplazamendu-tekla ezkerrera edo eskuinera.

*Agenda* – Eguneko oharrak ikusteko, hautatu ikusi nahi dituzunak. Bezperako edo biharamunekko oharrak ikusteko, joan ezkerrera edo eskuinera.

*Mi nota* – Ohar bat sortzeko, hautatu eduki-leiho, idatzi oharra eta gorde.

*Tempor. cta. atrás* – Atzerako kontaketa tenporizadorea martxan jartzeko, hautatu eduki-elementua. Gelditzen den denbora ohar bidez bistaratzen da.

*Indicadores generales* – Deiak egiteko/jasotzeko moduaren adierazleak ikusteko (adibidez, data, zelula-informazioa, informazio-mezuak, aurrez zehaztutako PTT taldearen izena eta erabiltzaileen talde itxiaren indizea). Data bistaratzen da agenda hautatu ez bada itxarote aktiboaren eduki gisa.


















## **Zuzeneko sarbideak deiak jasotzeko/egiteko egoeran**

- Markatutako zenbakien zerrendan sartzeko, sakatu behin deitzeko tekla. Ikus Ahots-dei bat egitea, 25. orrialdean.
- Ahots-postontzira deitzeko (sare-zerbitzua), telefonoan ahots-postontziaren zenbakia gordeta dagoenean, luze sakatu 1 tekla.
- Nabigazio-zerbitzu batera konektatzeko, luze sakatu 0.
- Desplazamendu-teklarako zuzeneko sarbideen funtzioak definitzeko, ikus Tecla de navegación *Nire zuzeneko sarbideak* atalean, 53. orrialdean.
- Modua aldatzeko, labur sakatu pizteko tekla moduen zerrenda irekitzeko. Joan nahi duzun moduraino eta hautatu.

## **Energia aurreztea**

*Activado* energia aurrezteko funtzioa definitzeko, ikus *Ahorro de energía* Pantaila atalean, 50. orrialdean.

## Adierazleak

-  Irakurri gabeko mezuak dituzu *Buzón de entrada* karpetan.
-  Bidali gabeko, bertan behera utzitako eta bidaltzean errorea emandako mezuak dituzu *Buzón de salida* karpetan.
-  Galdutako dei bat erregistratu du telefonoak.
-  Telefonoa berehalako mezularitzaren zerbitzura konektatuta dago, eta prestasun-egoera linean da edo lineatik kanpo dago.
-  Berehalako mezu bat edo gehiago jaso ditu, eta berehalako mezularitzaren zerbitzura konektatuta dago.
-  Teklatua blokeatuta dago.
-  Telefonoak jo egiten du deiak edo testu-mezuak jasotzean. Ikus Tonuak, 50. orrialdean.
-  Alarma *Activar* gisa definituta dago.
-  Atzerako kontaktaren tenporizadorea martxan dago.
-  Kronometroa bigarren mailan ari da funtzionatzen.
-  Telefonoa GPRS, EGPRS edo WCDMA sare batean dago harpidetuta.
-  Datu-paketeen konexioa ezarri da.
-  Datu-paketeen konexioa eten egiten da (zain jartzen da), adibidez, datu-paketeen markaketa-konexio baten bitartean dei bat sartzen edo irteten ari bada.
-  Infragorrien konexioa aktibatzen denean, adierazlea azaltzen da.
-  Bluetooth konexioa aktibatuta dago.
-  Bi telefono-linea badituzu, bigarren telefono-linea hautatuta dagoela adierazten du.
-  Sartzen diren dei guztiak beste zenbaki batera desbideratuko dira.




Bozgorailua aktibatuta dago edo musika-euskarria telefonora konektatuta dago.



Deiak erabiltzaile-talde itxi batera mugatu dira.



Tenporizadorea aktibatuta dago.



EL osagarri eramangarria, esku libreko kita, audiofono-egokigailua, musika-euskarria edo beste ekipamenduren bat telefonoari konektatuta dago.



Deitzeko sakatzea (PTT) konexio bat aktibo dago edo eten egin da.

## ■ Teklatua blokeatzea

Teklak ustekabean sakatzea eragozteko, hautatu **Menú** eta sakatu \* 3,5 segundoz, teklata blokeatzeko; bestela, hautatu **Bloquear**.

Teklatua desblokeatzeko, hautatu **Desbloq.** eta sakatu \* 1,5 segundoz.

*Bloqueo teclado seguri*d. *Activar* gisa definituta badago, aukeratu **Desbloq.**, sakatu \* eta sartu segurtasun-kodea.

Teklatuaren blokeoa aktibatuta dagoela dei bati erantzuteko, sakatu deitzeko tekla. Deia amaitzean edo ez onartzean, teklata automatikoki blokeatuko da.

*Bloqueo auto del teclado* eta *Bloqueo teclado seguri*d. aukerei buruz informazio gehiago eskuratzeko, ikus Telefonoaren doikuntzak 62. orrialdean.

Teklatu babestua aktibatuta egon arren, deitu daiteke telefonoan programatutako larrialdiz-zenbaki ofizialera.

## 3. Dei-funtzioak

---

### ■ Ahots-dei bat egitea

1. Sartu hartzailearen telefono-zenbakia, aurrezenbaki eta guzti.  
Nazioarteko dei bat egiteko, sakatu \* bi aldiz nazioarteko aurrezenbakia sartzeko (nazioarteko sarbide-kodearen ordeaz erabil dezakezu + zeinua) eta, ondoren, sartu herrialdearen kodea, aurrezenbakia (hala behar izanez gero, hasierako 0 gabe), eta hartzailearen telefono-zenbakia.
2. Hautatutako zenbakira deitzeko, sakatu deitzeko tekla.
3. Deia amaitzeko edo dei-saiakera bertan behera uzteko, sakatu deia amaitzeko tekla.

*Aurkibidean* gordetako izen edo telefono-zenbaki bat bilatzeko, ikus Kontaktua bilatzea 43. orrialdean. Sakatu deitzeko tekla hautatutako zenbakira deitzeko.

Deiak egiteko/jasotzeko egoeran, markatutako azken zenbakien zerrenda ikusteko, sakatu behin deitzeko tekla. Bat aukeratzeko, joan zenbakira edo izenera eta sakatu deitzeko tekla.

### **Markaketa bizkorra**

Esleitu telefono-zenbaki bat bizkor markatzeko tekletako bati, 2tik 9ra. Ikus Markaketa bizkorra, 46. orrialdean. Deitu telefono-zenbakira bi era hauetako bat erabilita:

- Sakatu markaketa bizkorreko tekla eta, ondoren, sakatu deitzeko tekla.
- *Marcción rápida* funtzioa aktibatuta badago, luze sakatu markaketa bizkorreko tekla, deia egiten hasi arte. Ikus Dei-doikuntzak, 61. orrialdean.



## Ahots bidezko markaketa hobetua

Telefono-dei bat egiteko, luze sakatu **Nombres** eta esan kontaktuaren izena. Telefonoak automatikoki lotuko du grabazio birtual bat telefonoaren memoriako kontaktu batekin.

### Dei bat egitea ahots bidez markatuta

Datu-paketeen konexio baten bidez aplikazioren bat datuak bidaltzen edo jasotzen ari bada, itxi GSMn ahots bidezko markaketa erabili aurretik. WCDMAn aldi berean ahotsa eta datuak bidal daitezke.

Ahots-komandoak hizkuntzaren arabera dira. Hizkuntza zehazteko, ikus *Idioma reproducción voz* Telefono-doikuntzak atalean, 62. orrialdean.



**Oharra:** ahots-identifikatzaileak erabiltzea zaila suerta daiteke inguru zaratatsuetan edo larrialdiko egoera batean. Horregatik, ez fidatu ahots bidezko markaketaz bakarrik kasu guztietarako.

1. Deiak egiteko/jasotzeko moduan, luze sakatu eskuineko hautaketa-tekla. Tonu labur bat entzuten da eta testu hau agertzen da: *Por favor, hable ahora.*

EL tekla duen esku libreko kit eramangarri bateragarria erabiltzen baduzu, eduki sakatuta tekla hori ahots bidezko markaketari ekiteko.

2. Esan argi ahots-komandoa. Ahotsa ezagutzeko sistemak funtzionatzen badu, kointzidentzia-zerrenda bat bistaratuko da. Telefonoak zerrendako lehenbiziko kointzidentziaren ahots-komandoa erreproduzitzen du. 1,5 segundo inguru igarotakoan, telefonoak zenbakia markatzen du; bestela, emaitza zuzena ez bada, beste sarrera batera joan eta hautatu egiten du markatzeko.

Ahots-komandoak erabiltzea telefono-funtzio zehatz bat egiteko, ahots bidezko markaketaren antzekoa da. Ikus *Comandos de voz* Nire zuzeneko sarbideak atalean, 53. orrialdean.

## ■ Dei bati erantzutea edo deia ez hartzea

Dei bati erantzuteko, sakatu deitzeko tekla.

Deiari erantzun baino lehen dei-tonua isilarazteko, hautatu **Silenciar**.

Deia amaitzeko edo dei bat ez onartzeko, sakatu deia amaitzeko tekla.

### Deia zain

Hitz egiten ari zarenean, sakatu deitzeko tekla zain dagoen deiari erantzuteko.

Lehen deia zain geratuko da. Aktibo dagoen deia amaitzeko, sakatu deia amaitzeko tekla.

*Llamada en espera* funtzioa aktibatzeko, ikus Deiaren doikuntzak 61. orrialdean.

## ■ Ahots-dei bateko aukerak

Hitz egiten ari zarenean erabiltzen dituzun aukeretako asko sare-zerbitzuak dira. Zerbitzu horien erabilgarritasunari buruzko informazio gehiago eskuratzeko, jarri harremanetan zure sare-operadorearekin edo zure zerbitzu-hornitzailearekin.

Dei-aukera hauek daude: *Silenciar micrófono* edo *Activar micrófono*, *Guía*, *Menú*, *Bloquear teclado*, *Grabar*, *Altavoz* edo *Teléfono*.

Sare-zerbitzuak hauek dira: *Responder*, *Rechazar*, *Retener* edo *Activar*, *Llamada nueva*, *Añadir a multiconferencia*, *Finalizar llamada*, *Finaliz. todas llams.*, eta ondorengo hauek:

*Enviar DTMF* – kateak bidaltzeko.

*Conmutar* – aktibo dagoen deitik zain dagoenera aldatzeko, eta alderantziz.

*Transferir* – zain dagoen dei bat aktibo dagoen beste batera konektatzeko eta zu deskonektatzeko.

*Multiconferencia* – multikonferentzia batean gehienez bost pertsonak parte hartzen duten deia egiteko.

*Llamada privada* – multikonferentzia batean, norbaitekin pribatuan hitz egiteko.





**Oharra:** Bozgorailua erabiltzen duzunean, ez jarri telefonoa belarri ondoan, bolumena altuegia izan liteke eta.

## 4. Testua idaztea

---

Testua sartzeko (adibidez, mezu bat idazten ari zarenean), erabili testua sartzeko ohiko bidea edo testu prediktiboaren metodoa. Testua idazteko ohiko funtzioa erabiltzeko, sakatu 1etik 9ra arteko zenbaki-teklak hainbat aldiz, nahi duzun karakterea bistaratu arte. Testua prediktiboki sartzen baduzu, teklak behin bakarrik sakatuta sar ditzakezu karaktereak.

Testua idatzi bitartean,  bistaratzen bada pantailaren goiko ezkerreko aldean, testu prediktiboaren metodoa erabiltzen ari zara;  azaltzen bada, testua sartzeko ohiko metodoa erabiltzen ari zara. **Abc**, **abc** edo **ABC** testua idazteko erabiltzen ari zaren moduaren adierazlearen ondoan bistaratuko dira, eta letra larriak edo xeheak erabiltzen ari zaren adierazten dute. Letra larritik xehera edo xehetik larrira aldatzeko, sakatu **#**. **123** ikurrak zenbakizko modua adierazten du. Alfabetoaren modutik zenbakizko modura aldatzeko, luze sakatu **#** tekla, eta hautatu *Modo numérico*.

### ■ Doikuntzak

Testua idazteko hizkuntza ezartzeko, hautatu **Opciones** > *Idioma de escritura*.

Testua idazteko modu prediktiboa aktibatzeko edo ohiko modura itzultzeko, hautatu **Opciones** > *Predicción activada* edo *Predicción desactivada*.



**Iradokizuna:** Testu prediktiboaren aukera bizkor aktibatu edo desaktibatzen, sakatu bi aldiz **#** edo luze sakatu **Opciones**.

### ■ Testu prediktiboarekin idaztea

Testua idazteko modu prediktiboarekin, azkar idatz daiteke testua telefonoaren teklatua eta integratutako hiztegi bat erabiliz.

1. Hitz bat idazten hasteko, erabili 2tik 9rako teklak. Letra bakoitzeko, sakatu dagokion tekla behin bakarrik.

Telefonoak \* edo letra bera bistaratuko ditu, letrak berez esanahia baldin badu. Sartutako letrak azpimarratuta egongo dira.

Karaktere berezi bat sartzeko, luze sakatu \* edo hautatu **Opciones** > *Insertar símbolo*. Joan karaktere batera eta hautatu **Utilizar**.

2. Hitz bat idazten amaitzean, zuzena bada, sakatu 0 berresteko eta zuriune bat jarriko du.

Hitza zuzena ez bada, sakatu \* behin eta berriz, edo sakatu **Opciones** > *Coincidencias*. Nahi duzun hitza azaltzean, hautatu **Utilizar**.

Hitzaren atzean "?" karakterea agertzen bada, horrek esan nahi du idatzi nahi duzun hitza ez dagoela hiztegian. Hitz bat hiztegian sartzeko, hautatu **Escribir**. Idatzi hitza ohiko testuaren funtzioaren bidez eta hautatu **Guardar**.

## ■ Ohiko bidea erabilia testua idaztea

Sakatu zenbaki-tekla bat, 1 teklatik 9 teklara, behin eta berriro nahi duzun karakterea agertu arte. Zenbaki-teklekin idatz daitezkeen karaktere guztiak ez dira agertzen tekla horien gainean. Testua idazteko aukeratutako hizkuntzaren arabera karaktere batzuk edo beste batzuk bistaratzen dira. Ikus Doikuntzak 28. orrialdean.

Sartu nahi duzun hurrengo letra sartu berri duzun tekla berean badago, itxaron kurtsorea agertu arte, edo mugitu pixka bat edozein norabidetara eta, ondoren, idatzi letra.

Puntuazio-markak eta ohiko karaktere bereziak 1 zenbaki-teklan daude. Gainerako karaktereak ikusteko, sakatu \* .

## 5. Menuetan batetik bestera mugitzea

---

Telefonoak funtzio ugari eskaintzen ditu, eta horiek menuetan multzokatzen dira.

1. Menura sartzeko, hautatu **Menú**.

Menuaren ikuspegia aldatzeko, hautatu **Opciones** > *Vista Menú principal* > *Lista* edo *Cuadrícula*

Menua ordenatzeko, joan tokiz aldatu nahi duzun menura eta hautatu **Opciones** > *Organizar* > **Mover**. Joan menua utzi nahi duzun tokira eta hautatu **Aceptar**. Aldaketa gordetzeko, hautatu **Hecho** > **Sí**.

2. Mugitu menuan eta hautatu aukera bat (adibidez, *Ajustes*).
3. Hautatutako menuak hainbat azpimenu badauzka, aukeratu nahi duzuna (adibidez, *Ajustes de llamada*).
4. Hautatutako azpimenuak beste azpimenu batzuk badauzka, egin berriz 3. urratsa.
5. Aukeratu nahi duzun doikuntza.
6. Aurreko menuaren mailara itzultzeko, hautatu **Atrás**. Menutik irteteko, hautatu **Salir**.

Menuak, azpimenuak eta doikuntzak zenbakituta daude. Horietako batzuetara sartzeko zuzeneko sarbideko zenbakia erabil dezakezu.

Menura sartzeko, hautatu **Menú**. Idatzi bizkor, bi segundoko tartean, sartu nahi duzun menuko funtzioaren metodo laburtuaren zenbakia. 1 menuaren mailaren funtzioetara sartzeko, sartu **0** eta **1**.

## 6. Mezuak



Testu-mezuak, multimedia-mezuak, SMSak, audio-mezuak eta flash mezuak irakurri, idatzi, bidali eta gorde ditzakezu. Mezu guztiak karpetatzen antolatzen dira.

### ■ Testu-mezuak (SMS)

Mezu laburren zerbitzuarekin (SMS), testu-mezuak bidali eta jaso ditzakezu (sare-zerbitzua).

Testu-mezuak edo SMS mezu elektronikoak bidaltzeko, aurretik mezuen zentroaren zenbakia gorde beharko duzu. Ikus Mezuen doikuntzak, 40. orrialdean.

SMS posta elektronikoaren erabilgarritasunari buruzko informazioa eskuratzeko edo zerbitzu horretara harpidetzeko, jarri harremanetan zerbitzu-hornitzailearekin. Helbide elektroniko bat Aurkibidean gordetzeko, ikus Zenbakiak eta testu elementuak gordetzea, 43. orrialdean.

Zure telefonoak karaktere-kopuruaren muga gainditzen duten testu-mezuak bidaltzeko aukera ematen du. Mezu luzeagoak bi edo mezu gehiagotan bidaltzen dira. Kasu horietan, zerbitzu-hornitzailearen araberakoa da ordainketa. Azentua duten karaktereek, zeinu batzuek edo hizkuntza batzuetako karaktereek (adibidez, txinerakoak) leku gehiago okupatzen dute, eta, beraz, mezu bakar batean bidal daitezkeen karaktere-kopurua mugatu egiten dute.

Pantailaren goiko aldean mezuen luzeraren adierazlea azaltzen da; atzerako kontaketa egiten du, telefonoak onartzen duen karaktere-kopuru handienetik hasita.

### SMS mezuak idaztea eta bidaltzea

1. Hautatu **Menú** > *Mensajes* > *Crear mensaje* > *Mensaje de texto*.
2. Idatzi hartzailearen telefono-zenbakia *Para:* eremuan. *Aurkibidetik* telefono-zenbaki bat hartzeko, hautatu **Añadir** > *Contactos*. Meza hainbat hartzaileari bidaltzeko, gehitu kontaktuak banan-banan.

Joan eskuinera *Para*: eremuan kontaktu berriak sartzeko eskuz..

Mezua talde bateko pertsoneri bidaltzeko, hautatu *Grupo de contactos* eta hautatu taldea. Azkenaldian mezuak bidali dizkiezun kontaktuak berreskuratzeko, hautatu **Añadir** > *Usados recientemente*.

3. Joan beherantz eta idatzi mezua *Mensaje*: eremuan. Ikus *Testua idaztea* 28. orrialdean.


Mezuan txantilo bat sartzeko, hautatu **Opciones** > *Usar plantilla*.

4. Mezua bidaltzeko, hautatu **Enviar**, edo sakatu deitzeko tekla. Ikus Mezuak bidaltzea, 34. orrialdean.

## **SMS mezuak irakurtzea eta horiei erantzutea**

Mezu bat jasotzean *1 mensaje recibido* bistaratuko da, eta hainbat jasotzean *x mensajes recibidos* bistaratuko da (x izanik jasotako mezu berrien kop.).

1. Mezu berri bat ikusteko, hautatu **Mostrar**. Beste une batean ikusteko, hautatu **Salir**.

Mezua geroago irakurtzeko, hautatu **Menú** > *Mensajes* > *Buzón de entrada*. Mezu bat baino gehiago jasotzen baduzu, hautatu irakurri nahi duzuna.  ikurrak adierazten du irakurri gabeko mezuak daudela sarrerako postontzian.

2. Mezu bat irakurtzean dituzun aukeren zerrenda ikusteko, hautatu **Opciones**. Adibidez, mezuaren hasierako testua telefonoaren agendan kopiatzea hauta dezakezu ohar gogorarazle moduan.
3. Mezu bati erantzuteko, hautatu **Respuest.** > *Mensaje de texto*, *Multimedia*, *Mensaje flash* edo *Mensaje de audio*.

Testu-mezu bat helbide elektronikoko batera bidaltzeko, idatzi helbidea *Para*: eremuan.

Joan beherantz eta idatzi mezua *Mensaje*: eremuan. Ikus *Testua idaztea* 28. orrialdean.

Erantzunaren mezu-mota aldatu nahi baduzu, hautatu **Opciones** > *Cambiar tipo de mensaje*.

4. Mezua bidaltzeko, hautatu **Enviar**, edo sakatu deitzeko tekla.

## ■ SIM mezuak

SIM mezuak SIM txartelean gordetzen diren testu-mezuak dira. Mezu horiek telefonoaren memoriara kopiatu edo eraman ditzakezu; ez, ordea, alderantziz. Jasotako mezuak beti gordetzen dira telefonoaren memorian.

SIM mezuak irakurtzeko, hautatu **Menú** > *Mensajes* > **Opciones** > *Mensajes SIM*.

## ■ Multimedia-mezuak



**Oharra:** funtzio bateragarriak dituzten gailuek bakarrik jaso eta bistara ditzakete multimedia-mezuak. Mezuek itxura desberdina izaten dute hartzailearen gailuaren arabera.

Multimedia-mezuen zerbitzuaren eskuragarritasunari buruzko informazioa lortu nahi baduzu edo haren harpide izan nahi baduzu, jarri harremanetan zure sare-operadorearekin edo zerbitzu-hornitzailearekin. Ikus Multimedia-mezuak, 41. orrialdean.

Multimedia-mezu batek testua, soinua, irudiak, bideoklipak, bisita-txartela edo agendako ohar bat eduki ditzake. Mezua handiegia bada, agian telefonoak ez du jasoko. Sare batzuek multimedia-mezua ikusteko Interneteko helbidea duten testu-mezuak hartzeko aukera ematen dute.

Multimedia-mezuek formatu hauek onartzen dituzte:

- Irudiak: JPEG, GIF, GIF animatuak eta WBMP
- Soinuak: AMR audioa
- Bideoklipak: 3gp formatua H.263 bideoarekin edo MPEG (QCIF bereizmena) eta WB edo AMR soinua.
- Bestelakoak: vCard (bisita-txartela) eta vCalendar (agendako oharra)

Telefonoak ez ditu, nahitaez, aipatutako fitxategi-formatuen aldaera guztiak onartzen.

Multimedia-mezuak jaso ditzakezu hitz egiten ari zarenean, beste Java aplikazio bat erabiltzen ari zarenean edo WCDMA datuen bidez nabigazio-saioa aktibo duzunean.



## Multimedia-mezuak idaztea eta bidaltzea

Haririk gabeko sareak MMS mezuen tamaina muga dezake. Sartutako irudiak muga gainditzen badu, litekeena da gailuak haren tamaina txikitzea, MMS bidez bidali ahal izateko.

1. Hautatu **Menú** > *Mensajes* > *Crear mensaje* > *Multimedia*.
2. Mezua idatzi.

Telefonoak hainbat orri (diapositiba) dituzten multimedia-mezuak onartzen ditu. Meziek agendako ohar bat eta bisita-txartela izan ditzakete atxikita. Diapositiba batek testua, irudi bat eta soinu-klip bat izan ditzake, eta, bestela, testua eta bideoklip bat. Mezuari diapositiba bat sartzeko, hautatu **Nuevo** edo sakatu **Opciones** > *Insertar* > *Diapositiva*.

Mezuari fitxategi bat sartzeko, hautatu **Insertar** edo **Opciones** > *Insertar*.

*Galería*tik irudiak eta bideoklipak berreskura ditzakezu edo bisoretik har ditzakezu zuzenean, hautatu **Opciones** > *Insertar* > *Imagen* > *Nueva imagen*, edo *Insertar* > *Videoclip* > *Nuevo videoclip*.


3. Mezua bidali aurretik ikusteko, hautatu **Opciones** > *Vista previa*.
4. Mezua bidaltzeko, hautatu **Enviar**, edo sakatu deitzeko tekla. Ikus Mezuak bidaltzea, 34. orrialdean.
5. Idatzi hartzailearen telefono-zenbakia *Para:* eremuan. *Aurkibidetik* telefono-zenbaki bat hartzeko, hautatu **Añadir** > *Contactos*. Mezua hainbat hartzailei bidaltzeko, gehitu kontaktuak banan-banan. Mezua talde bateko pertsoneri bidaltzeko, hautatu *Grupo de contactos* eta hautatu taldea. Azkenaldian mezuak bidali dizkiezun kontaktuak berreskuratzeko, hautatu **Añadir** > *Usados recientemente*.

## Mezuak bidaltzea

Copyright-en babesak direla eta, agian, irudi, musika -dei-tonuak barne- eta beste eduki batzuk ezingo dituzu kopiatu, aldatu, transferitu edo berriro bidali.

Mezua idatzitakoan, bidaltzeko, hautatu **Enviar** edo sakatu deitzeko tekla. Telefonoak *Buzón de salida* karpetan gordetzen du mezua, eta bidaltzen hasten da. *Guardar mens. enviados* > *Sí* hautatzen baduzu, bidalitako mezua *Elementos enviados* karpetan gordeko da. Ikus Orokorra 40. orrialdean.



**Oharra:** Telefonoak mezua bidaltzen duenean,  bistaratzen da, animatua. Horrek esan nahi du telefonoak mezua bidali duela telefonoan programatutako mezu-zentroaren zenbakira. Ez du esan nahi hartzaileak mezua jaso duenik. Mezularitza-zerbitzuei buruzko informazio xeheagoa nahi baduzu, galde iezaiozu zure zerbitzu-hornitzaileari.

Denbora gehiago behar da multimedia-mezu bat bidaltzeko mezu arrunt bat bidaltzeko baino. Mezua bidali bitartean, telefonoaren beste zenbait funtzio erabil daitezke. Mezua bidaltzen ari denean etenaldia gertatzen bada, mezua berriro bidaltzen saiatuko da telefonoa. Bidaltzea lortzen ez baduzu, mezua *Buzón de salida* karpetan gordeko da. Geroago bidaltzen saia zaitzake.

## Mezu baten bidalketa bertan behera uztea

Telefonoa mezu bat *Buzón de salida* karpetan gordetzen ari denean, *Enviando mensaje* edo *Enviando mensajes* bistaratzen dira. Testu-mezuaren bidalketa bertan behera uzteko, hautatu **Cancelar**.

*Buzón de salida* karpetatik multimedia-mezuen bidalketa bertan behera uzteko, joan mezura eta hautatu **Opciones** > *Cancelar envío*.


## Multimedia-mezuak irakurtzea eta horiei erantzutea



**Garrantzitsua:** kontuz ireki mezuak. Multimedia-mezuetako objektuek software kaltegarriak izan ditzakete edo telefonoa edo PCa honda dezakete.

Multimedia-mezu bat jasotzean *Mensaje multimedia recibido* bistaratuko da, eta hainbat jasotzean *x mensajes recibidos* bistaratuko da (x izanik jasotako mezu berrien kop.).

1. Mezua irakurtzeko, sakatu *Mostrar*. Beste une batean ikusteko, hautatu **Salir**.

Mezua geroago irakurtzeko, hautatu **Menú** > *Mensajes* > *Buzón de entrada*. Joan ikusi nahi duzun mezuraino eta hautatu.  irudia bistaratzen da *Buzón de entrada* karpetan irakurri gabeko karpetak baldin badituzu.

2. Jasotako mezuak aurkezpena badu, mezua osorik ikusteko sakatu **Reprod..** Aurkezpenaren fitxategiak edo fitxategi atxikiak ikusteko, hautatu **Opciones** > *Objetos* edo *Adjuntos*.
3. Mezuari erantzuteko, hautatu **Opciones** > *Responder* > *Mensaje de texto*, *Multimedia*, *Mensaje flash* edo *Mensaje de audio*. Idatzi erantzuteko mezua.  
Erantzunaren mezu-mota aldatu nahi baduzu, hautatu **Opciones** > *Cambiar tipo de mensaje*. Baliteke mezu-mota berriak ez onartzea gehitutako eduki guztia.
4. Mezua bidaltzeko, hautatu **Enviar**, edo sakatu deitzeko tekla. Ikus Mezuak bidaltzea, 34. orrialdean.

## ■ Memoria beteta egotea

Mezu bat jasotzean eta horri dagokion memoria beteta dagoenean, *Memoria llena. Imposible recibir mensajes*. bistaratuko da. Mezu zaharrak ezabatzeko, hautatu **Aceptar** > **Sí** eta karpeta. Joan mezura eta hautatu **Borrar**. Mezu bat edo gehiago badaude markatuta, hautatu **Marcar**. Markatu ezabatu nahi dituzun mezu guztiak eta hautatu **Opciones** > *Borrar marcados*.

Telefonoko memoria libratzeko, ezabatu argazkiak, dei-tonuak edo telefonoaren memorian dauden bestelako datuak.

## ■ Karpetak

Telefonoak jasotako multimedia-mezuak *Buzón de entrada* karpetan gordetzen ditu.

Bidali gabe dauden mezuak *Buzón de salida* karpetan gordetzen dira.

Bidalitako mezuak *Elementos enviados* karpetan gorde daitezten telefonoa konfiguratzeko, ikus *Guardar mens. enviados* Orokorra atalean, 40. orrialdean.

Mezu bat idazten ari bazara, baina geroago bidali nahi baduzu, gorde *Borrador* karpetan; horretarako, hautatu **Menú** > *Mensajes* > *Borrador*.

Mezuak *Elems. guardados* karpetara eraman ditzakezu. *Elems. guardados* azpikarpetak antolatzeko, hautatu **Menú** > *Mensajes* > *Elems. guardados* > *Mensajes guardados* edo gehitutako beste karpetaren bat Zure mezuentzat beste karpeta bat gehitzeko, hautatu **Opciones** > *Añadir carpeta*. Karpeta bat ezabatzeko edo izena aldatzeko, joan karpetara eta hautatu **Opciones** > *Borrar carpeta* edo *Renombrar carpeta*.

Telefonoak txantiloiak ditu. Txantilo berri bat sortzeko, gorde edo kopiatu mezu bat txantilo gisa. Txantiloien zerrendan sartzeko, hautatu **Menú** > *Mensajes* > *Elems. guardados* > *Plantillas*.

## ■ Flash mezuak

Flash mezuak jaso orduko bistaratzen diren testu-mezuak dira. Flash mezuak ez dira automatikoki gordetzen.

### Flash mezuak idaztea

Hautatu **Menú** > *Mensajes* > *Crear mensaje* > *Mensaje flash*. Idatzi hartzailearen telefono-zenbakia *Para:* eremuan. Idatzi mezua *Mensaje:* eremuan. Flash mezuek ezin dute 70 karaktere baino gehiago eduki. Mezua bidaltzeko, aukeratu **Enviar**.

### Flash mezuak jasotzea

Flash mezu bat jasotzean, *Mensaje:* hitza eta mezuaren hasierako hainbat hitz azaltzen dira. Mezua irakurtzeko, sakatu **Leer**.

Mezuko zenbakiak, helbide elektronikoak eta web gunetako helbideak ateratzeko, hautatu **Opciones** > *Usar detalle*.

## ■ Audio-mezuak

Menu honekin, erabili multimedia-mezuen zerbitzua ahots-mezuak erraz sortzeko eta bidaltzeko. Audio-mezuak erabiltzeko, aurrez multimedia-mezuen zerbitzua aktibatu beharko duzu.

### Audio-mezuak sortzea

1. Hautatu **Menú** > *Mensajes* > *Crear mensaje* > *Mensaje de audio*. Grabagailua irekiko da. Grabagailua erabiltzeko, ikus Grabadora, 78. orrialdean.
2. Aukerak ikusteko, hautatu **Opciones**.
3. Idatzi hartzailearen telefono-zenbakia *Para:* eremuan. *Aurkibidetik* telefono-zenbaki bat hartzeko, hautatu **Añadir** > *Contactos*. Mezua hainbat hartzailei bidaltzeko, gehitu kontaktuak banan-banan. Mezua talde bateko pertsoneri bidaltzeko, hautatu *Grupo de contactos* eta hautatu taldea. Azkenaldian mezua bidali dizkiezun kontaktuak berreskuratzeko, hautatu **Añadir** > *Usados recientemente*.
4. Mezua bidaltzeko, aukeratu **Enviar**.


### Audio-mezuak jasotzea

Telefonoak audio-mezuak jasotzean, *x mensajes recibidos* testua bistaratuko da (x izanik jasotako mezuen kop.). Mezua irekitzeko, hautatu **Reprod.**; hainbat mezu jaso badituzu, hautatu **Mostrar** > **Reprod.** Mezua geroago entzuteko, hautatu **Salir**. Aukeratu **Opciones**, dauden aukerak ikusteko.

## ■ Ahots-mezuak

Ahots-postontzia sare-zerbitzu bat da eta baliteke aldeztu aurretik harpidetu behar izatea. Informazio gehiago lortzeko eta ahots-postontziko zenbakiak jakiteko, jarri harremanetan zerbitzu-hornitzailearekin.

Ahots-postontzira deitzeko, hautatu **Menú** > *Mensajes* > *Mensajes de voz* > *Escuchar las mensajes de voz*. Ahots-postontziaren zenbakia sartzeko, bilatzeko edo editatzeko, hautatu *Número del buzón de voz*.

Sareak onartzen badu,  ikonoak adieraziko du ahots-mezuak jaso direla. Ahots-postontzira deitzeko, hautatu **Oír**.

## ■ Informazio-mezuak

*Mensajes de info*. sare-zerbitzuarekin, hainbat gairi buruzko mezuak jaso ditzakezu, zure zerbitzu-hornitzailearen eskutik. Zerbitzu hori erabilgarri dagoen jakiteko edo gai ei edo gai en zenbakiei buruzko informazioa izateko, jar zaitez zure zerbitzu-hornitzailearekin harremanetan.

## ■ Zerbitzu-komandoak

Hautatu **Menú** > *Mensajes* > *Comandos servicio*. Idatzi eta bidali zerbitzu-eskaerak (USSD komandoak izenez ere ezagunak dira), esate baterako, zerbitzu-hornitzaileari sare-zerbitzurako komandoak aktibatze eskatu.

## ■ Mezuak ezabatzea

Mezuak banan-banan ezabatzeko, hautatu **Menú** > *Mensajes* > *Borrar mensajes* > *Por mensaje* eta mezuak ezabatu nahi dituzun karpeta. Joan mezura eta hautatu **Borrar**. Mezu bat baino gehiago markatzeko, hautatu **Opciones** > **Marcar**. Markatu ezabatu nahi dituzun mezu guztiak eta hautatu **Opciones** > *Borrar marcados*.

Karpeta bateko mezu guztiak ezabatu nahi izanez gero, aukeratu **Menú** > *Mensajes* > *Borrar mensajes* > *Por carpeta* eta ezabatu nahi duzun karpeta. Ezabatu nahi duzun karpeta ren arabera, telefonoak galdetuko dizu mezuak ezabatu nahi dituzun.

Karpeta guztietako mezu guztiak ezabatzeko, hautatu **Menú** > *Mensajes* > *Borrar mensajes* > *Todos mensajes* > **Sí**.

## ■ Mezuen doikuntzak

### Orokorra

Doikuntza orokorrak berdinak dira testu-mezuetarako eta multimedia-mezuetarako.

Hautatu **Menú** > *Mensajes* > *Ajustes de mensajes* > *Ajustes generales* eta aukera hauetako bat:

*Guardarmens. enviados* > *Sí* – telefonoak *Elementos enviados* karpetan gorde ditzan bidalitako mezuak.

*Sobrescr. Elems. enviados* – mezu bat bidaltzean eta memoria beteta dagoenean mezuak besteen gainean idaztea nahi duzun hautatzeko.

*Tamaño de fuente* – mezuetan erabiliko duzun letra-tamaina hautatzeko.

*Emoticonos gráficos* > *Sí* – karaktereen bidez sortutako aurpegierak aurpegiera grafikoekin ordeztuko.

### Testu-mezuak eta SMS posta elektronikoa

Testu-mezuen doikuntzek mezuen bidalketari, harrerari eta bistaratzeari eragiten diote.

Hautatu **Menú** > *Mensajes* > *Ajustes de mensajes* > *Mensajes de texto* eta aukera hauetako bat:

*Informes de entrega* > *Sí* – mezuen entreegi buruzko txostenak bidal ditzala eskatzeko sareari (sare-zerbitzua).

*Centros de mensajes* > *Añadir centro* – testu-mezuak bidaltzeko beharrezko mezuen zentroko telefono-zenbakia eta izena ezartzeko. Zenbaki hori zure zerbitzu-hornitzaileak emango dizu.

*Centro mensajes SIM* hautatzen baduzu, SIM mezuen zentroko informazioa ikusi ahal izango duzu.

*Centro mensajes en uso* – erabiltzen ari den mezu-zentroa hautatzeko.

*Centros mens. corr. elect.* > *Añadir centro* – SMS mezu elektronikoa bidaltzeko posta elektronikoko zentroko telefono-zenbakiak eta izena ezartzeko. *Centro correo SIM* hautatzen baduzu, SIM mezu elektronikoen zentroko informazioa ikusi ahal izango duzu.

*Centro corr. electr. en uso* – erabiltzen ari den SMS posta elektronikoko mezuen zentroa hautatzeko.

*Validez de los mensajes* – sareak mezuak bidaltzen zenbat denboran saiatu behar duen definitzeko.

*Mensajes enviados como* – bidaliko diren mezuen formatua hautatzeko: *Texto*, *Buscapersonas* edo *Fax* (sare-zerbitzua).

*Usar paquetes de datos > Sí* – gogoko SMS garraiatzaile gisa GPRS edo WCDMA ezartzeko.

*Soporte de caracteres > Completo* – mezuetao karaktere guztiak ikusten diren bezalaxe bidaltzeko.

*Resp. vía mismo centro > Sí* – mezuaren hartzaileak zure mezu-zentroaren bidez erantzuteko aukera izateko (sare-zerbitzua).

## **Multimedia-mezua**

Multimedia-mezuen doikuntzek mezuen bidalketari, harrerari eta bistaratzeari eragiten diote.

Multimedia-mezuen konfigurazio-doikuntzak konfigurazio-mezu batean jaso ditzakezu. Ikus Konfigurazioa doitzeko zerbitzua 11. orrialdean. Doikuntzak eskuz ere sar ditzakezu. Ikus Konfigurazioa, 64. orrialdean.

Hautatu **Menú** > *Mensajes* > *Ajustes de mensajes* > *Mensajes multimedia* eta aukera hauetako bat:

*Informes de entrega > Sí* – mezuen entreegi buruzko txostenak bidal ditzala eskatzeko sareari (sare-zerbitzua).

*Tam. imag. (multimedia)* – multimedia-mezuetan erabiliko den aurrez definitutako irudi-tamaina definitzeko

*Temporización predeter.* – multimedia-mezuetan diapositiba baten eta hurrengoaren arteko denbora-tartea ezartzeko.

*Permitir recep. multimed.* – multimedia-mezuak jaso edo blokeatzeko, aukeratu *Sí* edo *No*. *En red propia* aukeratzen baduzu, ezingo duzu multimedia-mezurik jaso zure saretik kanpo.



Multimedia-meuzen zerbitzuaren aurrez zehaztutako doikuntza *sare propioan* egiten da.

*Mens. multim. entrantes* – multimedia-mezuak automatikoki edo eskuz (aurrez eskatuta) jasotzeko edo ez onartzeko. Doikuntza ez da bistaratuko *Permitir recep. multimed.* aukeran *No* konfiguratu bada.

*Permitir publicidad*– publizitatea onartu edo atzera botatzeko. Doikuntza hori ez da bistaratuko *Permitir recep. multimed.* aukeran *No* konfiguratu bada edo *Mens. multim. entrantes* aukera *Rechazar* moduan konfiguratu bada.


*Ajustes de configuración > Configuración* – multimedia-mezuak onartzen dituzten konfigurazioak bakarrik bistaratzen dira. Hautatu zerbitzu-hornitzaile bat, *Predeterminados* edo *Configuración personal* multimedia-mezuetarako. Hautatu *Cuenta* eta konfigurazio-doikuntza aktiboetan dagoen multimedia-meuzen zerbitzuaren kontu bat.

## 7. Telefono-aurkibidea



Izenak eta telefono-zenbakiak (kontaktuak) telefonoaren memorian edo SIM txartelaren memorian gorde daitezke.

Telefonoaren memorian kontaktuak eta horien xehetasun gehigarriak gorde daitezke, kasurako, hainbat zenbaki eta testu-elementuak. Halaber, irudi bat edo bideoklip bat gorde daiteke kontaktu-kopuru jakin baterako. Halaber, kontaktu batekin gordetako bideoklip bat erabil daiteke kontaktu horren deitonu gisa.

SIM txartelaren memoriak izenak eta horiei atxikitako telefono-zenbakiak gorde ditzake. SIM txartelaren memorian sartutako kontaktuak  ikonoaren bidez adierazten dira.

### ■ Kontaktua bilatzea

Hautatu **Menú** > *Guía* > *Nombres*. Ikusi kontaktuen zerrenda edo idatzi izenaren lehenbiziko karaktereak.


### ■ Izenak eta telefono-zenbakiak gordetzea

Izenak eta telefono-zenbakiak erabilitako memorian gordetzen dira. Izen bat eta telefono-zenbaki bat gordetzeko, hautatu **Menú** > *Guía* > *Nombres* > **Opciones** > *Añadir nuevo contacto*. Idatzi izena, abizena eta telefono-zenbakia.

### ■ Zenbakiak edo testu-elementuak gordetzea

Kontaktuertarako telefonoaren memorian, hainbat telefono-zenbaki eta testu-elementu laburrak gorde ditzakezu izen bakoitzarekin.

Gordetako lehen zenbakia automatikoki definitzen da aurrez zehaztutako

zenbaki gisa, eta zenbaki-motaren adierazlearen inguruan marko bat jarrita adierazten da (adibidez, ).

Aurkibideko izen bat aukeratzean (adibidez, dei bat egiteko), aurrez efinitutako zenbakia erabiltzen da, baldin eta beste zenbaki bat aukeratzeko ez bada.

1. Egiaztatu erabiltzen ari zaren memoria *Teléfono* edo *Teléfono y SIM* dela.
2. Bilatu zenbaki edo testu-elementu berria gehitu nahi diozun kontaktua eta hautatu **Detalles** > **Opciones** > *Añadir detalle*.
3. Zenbaki bat gehitzeko, hautatu *Número* eta zenbaki-mota.

Beste xehetasunen bat gehitzeko, hautatu testu-mota, irudi edo bideoklip bat *Galeriatik* edo irudi berri bat.

Presentzia-zerbitzura konektatu bazara, zerbitzu-hornitzailearen zerbitzarian ID bat bilatzeko hautatu *ID de usuario* > *Buscar*. ID bakarra badago, automatikoki gordeko da. Hala ez bada, IDa gordetzeko, hautatu **Opciones** > *Guardar*. IDa sartzeko, hautatu *Introd. ID manualmente*. Sartu IDa eta sakatu **Aceptar** gordetzeko.

Zenbaki-mota aldatzeko, joan zenbakiraino eta hautatu **Opciones** > *Cambiar tipo*. Hautatutako zenbakia lehenetsi gisa definitzeko, hautatu *Fijar como predetermin*.

4. Sartu zenbakia edo testu-elementua; gordetzeko, hautatu **Guardar**.

## ■ Kontaktuak mugitzea edo kopiatzea

Kontaktuak mugi edo kopia ditzakezu telefonoaren memoriatik SIM txartelaren memoriara, eta alderantziz. SIM txartelaren memoriak izenak eta horiei atxikitako telefono-zenbakiak gorde ditzake.

Kontaktuak banan-banan mugitzeko edo kopiatzeko, hautatu **Menú** > *Guía* > *Nombres*. Joan kontaktureta eta hautatu **Opciones** > *Mover contacto* edo *Copiar contacto*.

Markatutako kontaktuak mugitzeko edo kopiatzeko, hautatu **Menú** > *Guía* > *Nombres*. Joan kontaktu batera eta sakatu **Opciones** > *Marcar*.

Ondoren, markatu gainerako kontaktuak eta hautatu *Opciones > Mover marcados* edo *Copiar marcados*.

Kontaktu guztiak mugitzeko edo kopiatzeko, hautatu **Menú** > *Guía > Mover contactos* edo *Copiar contactos*.

## ■ Kontaktuen xehetasunak editatzea

Bilatu editatu nahi duzun kontaktua eta hautatu **Detalles**. Izena, zenbakia edo testu-elementu bat editatzeko edo irudia aldatzeko, hautatu **Opciones** > *Editar*. ID bat *Contactos de MI* zerrendan dagoenean, ezin da editatu.

## ■ Kontaktuak ezabatzea

Telefonaren memoriatik edo SIM txartelaren memoriatik kontaktu guztiak eta horiei atxikitako xehetasun guztiak ezabatzeko, hautatu **Menú** > *Guía > Borrar todos contac.* > *De memoria del teléfono* edo *De la tarjeta SIM*. Berretsi segurtasun-kodearen bidez.

Kontaktu bat ezabatzeko, bilatu eta hautatu **Opciones** > *Borrar contacto*.

Kontaktuari atxikitako zenbaki bat, testu-elementu bat edo irudi bat ezabatzeko, bilatu kontaktua eta hautatu **Detalles**. Joan xehetasunera, eta hautatu **Opciones** > *Borrar* > *Borrar número, Borrar detalle* edo *Borrar imagen*. Aurkibidetik irudi bat ezabatzeak ez du esan nahi *Galería* menuan ere ezabatu egiten denik.

## ■ Bisita-txartelak

Pertsona baten harremanetarako informazioa vCard estandarra onartzen duen gailu bateragarri baten bidez bidal eta jaso dezakezu; adibidez, bisita-txartel baten bidez.

Bisita-txartel bat bidaltzeko, bilatu zein kontakturen informazioa bidali nahi duzun eta hautatu **Detalles** > **Opciones** > *Enviar tarjeta de visita* > *Vía multimedia, Vía mensaje texto, Vía infrarrojos* edo *Vía Bluetooth*.

Bisita-txartel bat jasotakoan, hautatu **Mostrar** > **Guardar**, telefonoaren memorian gordetzeko. Bisita-txartela gorde nahi ez baduzu, hautatu **Salir** > **Sí**.

## ■ Doikuntzak

Hautatu **Menú** > *Guía* > *Ajustes* eta aukera hauetako bat:

*Memoria en uso* – kontaktuetarako SIM txartela edo telefonoaren memoria hautatzeko. Hautatu *Teléfono y SIM*, bi memorieta izenak eta zenbakiak berreskuratzeko. Kasu horretan, izenak eta zenbakiak gordetzen direnean, telefonoaren memorian gordetzen dira.

*Vista de la guía* – aurkibideko izenak eta zenbakiak nola ikusi nahi dituzun hautatzeko.

*Visualización de nombre* – lehenbizi kontaktuaren izena edo telefonoa bistaratuko den hautatzeko.

*Tamaño de fuente* – kontaktuen zerrendako letra-tamaina zehazteko.

*Estado de la memoria* – memoria erabilgarria eta erabilia duzun memoria ikusteko.

## ■ Taldeak

Hautatu **Menú** > *Guía* > *Grupos*, memorian gordetako izenak eta telefono-zenbakiak dei-egileen taldeen arabera antolatzeko, dei-tonu eta talde-irudi desberdinekin.

## ■ Markaketa bizkorra

Markaketa bizkorreko tekla bati zenbaki bat esleitzeko, hautatu **Menú** > *Guía* > *Marcación rápida*, eta joan markaketa bizkorreko zenbakiraino.

Hautatu **Asignar**, eta teklak lehendik zenbaki bat esleituta badu, hautatu **Opciones** > *Cambiar*. Hautatu **Buscar** eta esleitu nahi duzun kontaktua.

*Marcación rápida* funtzioa desaktibatuta baldin badago, telefonoak aktibatuta nahi duzun galdetuko dizu. Ikus, halaber, *Marcación rápida* Dei-doikuntzak atalean, 61. orrialdean.

Markaketa bizkorreko teklak erabilia dei bat egiteko, ikus Markaketa bizkorra, 25. orrialdean.

## ■ Zerbitzua eta nire zenbakiak

Hautatu **Menú** > *Guía* eta aukera hauetako bat:

*Números de servic.* – zerbitzu-hornitzailearen zerbitzu-zenbakietara deitzeko, zenbakiak SIM txartelean sartuta badaude (sare-zerbitzua).

*Mis números* – SIM txartelari esleitutako telefono-zenbakiak ikusteko. Zenbaki horiek SIM txartelean sartuta badaude bakarrik bistaratzen da.

## 8. Erregistroa

---



Deiei buruzko informazioa ikusteko, hautatu **Menú** > *Registro* > *Llamadas perdidas*, *Llamadas recibidas* edo *Llamadas enviadas*. Galdutako eta jasotako azken deiak eta markatutako zenbakiak kronologikoki ikusteko, hautatu *Registro de llam..* Azkenaldian mezuak bidali dizkiezun kontaktuak ikusteko, hautatu *Destinatarios mens..*

Azken komunikazioei buruzko informazioa ikusteko, hautatu **Menú** > *Registro* > *Duración de llams.*, *Contador de paquts.*, edo *Temp. conex. paq..*

Zenbat testu- eta multimedia-mezu bidali eta jaso dituzun ikusteko, hautatu **Menú** > *Registro* > *Registro mensajes*.



**Oharra:** zerbitzu-hornitzailearen deien eta zerbitzuen benetako faktura aldatu egin daiteke sarearen ezaugarrien, fakturazioen biribiltzeen, zergen eta abarren ondorioz.



**Oharra:** tenporizadore batzuk, telefonoak piztuta daraman denbora adierazten duena barne, zeroan jarri daitezke zerbitzua edo softwarea eguneratzean.

## 9. Doikuntzak



### ■ Moduak

Telefonoak hainbat doikuntza-talde ditu. Moduak deitzen zaie. Horiekin, egoera eta inguruneen arabera pertsonaliza dezakezu telefonoa.


Hautatu **Menú** > *Ajustes* > *Modos* eta modua. Hauta ezazu aukera hauetakoa bat:

*Activar* – hautatutako modua aktibatzen.

*Personalizar* – modua pertsonalizatzeko. Hautatu aldatu nahi duzun doikuntza, eta egin aldaketak.

*Temporizar* – denbora-tarte jakin batean (gehienez 24 ordu) aktibatuta egoteko modua definitzeko eta amaitzeko ordua definitzeko. Modu horretarako finkatutako denbora amaitzen denean, berriro aktibatu egingo da inolako denbora-mugarik ez zuen aurreko modua.

### Hegazkin modua

Irrati-maiztasunaren funtzioa erabat desaktibatu eta, lineaz kanpo, jokoak, agenda eta telefono-zenbakiak erabiltzen jarrai dezakezu. Erabili hegazkin modua toki sentikorretan, adibidez, hegazkin eta ospitaleetan. Hegazkin modua aktibatuta dagoenean,  bistaratuko da.

Hautatu **Menú** > *Ajustes* > *Modos* > *Vuelo* > *Activar* edo *Personalizar*. Hegazkin modua desaktibatzen, hautatu beste profil bat.

Hegazkin moduan, larrialdiko dei bat egin dezakezu. Markatu larrialdiko zenbakia, sakatu deitzeko tekla eta hautatu *Sí* hau galdetzean: *¿Salir de perfil de vuelo?* Telefonoa larrialdi-dei bat egiten saiatuko da.

Larrialdiko deia amaitzean, telefonoa automatikoki pasatuko da profil orokorraren moduan.



## ■ Gaiak

Gai batek elementu asko ditu telefonoa pertsonalizatzeko, besteak beste: horma-papera, pantaila-babesa, kolore-eskema eta dei-seinalea.

Hautatu **Menú** > *Ajustes* > *Temas* eta aukera hauetako bat:

*Seleccionar temas* – telefonoarentzat gai bat hautatzeko. *Galería* aukerako karpeten zerrenda irekiko da. Ireki *Temas* karpeta, eta hautatu gaia.

*Descarga temas* – gai gehiago deskargatzeko aukera ematen duten esteken zerrenda irekitzeko.

## ■ Tonuak

Hautatutako modu aktiboko doikuntzak alda ditzakezu.

Hautatu **Menú** > *Ajustes* > *Tonos* > *Aviso llamada entrante*, *Tono de llamada*, *Volumen tono de llamada*, *Aviso por vibración*, *Video llamada entr.*;

**Opciones de voz PPH.**; *Tono notificación PPH.*; *Tono devol. llam. PPH.*; *Tono aviso mensajes.*; *Tono aviso de mens. inst.*, *Sonido del teclado*, *Otrostonos.*; *Tonos de aplicaciones*: edo *Aviso para.* *Modos* menuan ere doikuntza berberak daude.

Zehaztutako dei-egileen multzo bateko telefono-zenbakietatik deiak jasotzen direnean bakarrik jo dezan telefonoak, hautatu *Aviso para*. Joan zaitez nahi duzun dei-egileen multzoraino edo *Todas llamadas* aukeraraino eta sakatu **Marcar**.

## ■ Pantaila

Pantaila-doikuntzei esker, telefonoaren pantailaren irudia pertsonalizatu ahal izango duzu.

## Deiak jasotzeko/egiteko modua

Aktibatu edo desaktibatu itxarote aktiboa modu inaktiboan

Itxarote aktiboaren modua aktibatzeko, hautatu **Menú** > *Ajustes* > *Ajustes de pantalla* > *Ajustes modo de espera* > *Espera activa* > *Mi espera activa*.

Itxarote aktiboaren modua desaktibatzeke, hautatu **Menú** > *Ajustes* > *Ajustes de pantalla* > *Ajustes modo de espera* > *Espera activa* > *Desactivar*.

## Deiak egiteko/jasotzeko moduaren doikuntzak

Hautatu **Menú** > *Ajustes* > *Ajustes de pantalla* > *Ajustes modo de espera* eta aukera hauetako bat:

*Espera activa* > *Mi espera activa* – itxarote aktiboa bistara dadin. Hautatu **Opciones** eta aukera hauetako bat:

- *Personalizar* – pantailaren edukia aldatzeko.
- *Organizar* – pantailaren edukia berrantolatzeke.
- *Activación espera activa* – sarbide-tekla nabigazio-modura aldatzeko. Doikuntza hori bera *Mis accesos directos* menuan ere aurki daiteke. Ikus Itxarote aktiboa aktibatzea, 54. orrialdean.

*Fondo de pantalla* – telefonoak, deiak egiteko/jasotzeko moduan dagoenean, horma-paper gisa irudi bat edo diapositiba bat bistara dezan. Hautatu *Fondos de pantalla* > *Imagen* edo *Conjunto de diapositivas*. Joan irudira edo diapositibara eta hautatu **Selecc.** horma-paper gisa aktibatzeke. Hautatu *Abrir cámara* irudi berri bat sortzeke. Grafikoak deskargatzeko, hautatu *Descargas gráficos*.

*Color de fuente en espera* – pantaila deiak egiteko/jasotzeko moduan dagoenean bistaratuko diren testuen kolorea hautatzeko.

*Iconos de tecla de naveg.* – deiak egiteko/jasotzeko moduan bistaratuko diren desplazamendu-teklaren ikonoak ezartzeko.

*Logotipo del operador* – operadorearen logotipoa pantaila bistartzeko edo ezkutatzeko.

*Presentac. info de célula* > *Activar* – sare-operadorearen informazioa jasotzeko, erabilitako sare zelularren arabera (sare-zerbitzua).

## **Pantaila-babesa**

*Galerían* pantaila-babes bat hautatzeko, aukeratu **Menú** > *Ajustes* > *Ajustes de pantalla* > *Salvapantallas* > *Salvapantallas* > *Imagen, Conjunto de diapositivas, Videoclip*, edo *Abrir cámara, Reloj analógico* edo *Reloj digital*. Pantaila-babes gehiago deskargatzeko, hautatu *Descargas gráficos*. Pantaila-babesa aktibatzeke igaro behar den denbora-tartea zehazteko, hautatu *Tiempo de espera*. Pantaila-babesa aktibatzeke, hautatu *Activar*.

## **Energia aurrezte**

Bateria pixka bat aurrezteko, hautatu **Menú** > *Ajustes* > *Ajustes de pantalla* > *Ahorro de energía*. Denbora-tarte jakin batean telefono-funtziorik erabiltzen ez bada, erloju digitala azaltzen da pantailan.

## **Modu etena**

Bateria aurrezteko, hautatu **Menú** > *Ajustes* > *Ajustes de pantalla* > *Modo suspensión*. Pantaila beltz-beltza azaltzen da denbora-tarte jakin batean telefono-funtziorik erabiltzen ez bada.

## **Letra-tamaina**

Mezuak irakurtzeko eta idazteko letra-tamaina ezartzeko eta kontaktuak edo web orriak ikusteko, hautatu **Menú** > *Ajustes* > *Ajustes de pantalla* > *Tamaño de fuente*.

## **■ Ordua eta eguna**

Orduaren eta dataren doikuntzak eta ordu-eremua aldatzeko, hautatu **Menú** > *Ajustes* > *Ajustes hora y fecha* > *Reloj, Fecha* edo *Actualiz. auto fecha/hora* (sare-zerbitzua).

Beste ordu-eremu batera baldin bazoaz, hautatu **Menú** > *Ajustes* > *Ajustes hora y fecha* > *Reloj* > *Zona horaria* eta toki horri dagokion ordu-eremua, Greenwichecko batezbesteko orduarekiko (GMT) diferentziaren edo ordu unibertsal koordinatuaren (UTC) arabera.

Ordua eta data ordu-eremuaren arabera doitzen dira, eta, hala, jasotako testu-mezuen edo multimedia-mezuen bidalketa-ordu zuzena bistaritzen du telefonoak. Adibidez, GMT-5 New Yorkeko ordu-eremuari dagokio (AEB), 5 ordu Greenwichetik/Londresetik (Erresuma Batua) ekialdera.

## ■ Nire zuzeneko sarbideak

Zuzeneko sarbide pertsonalen bidez gehien erabiltzen diren telefonoaren funtzioetara bizkor sar zaitezke.

### Ezkerreko hautaketa-tekla

Zerrendatik ezkerreko hautaketa-teklaren funtzio bat hautatzeko, hautatu **Menú** > *Ajustes* > *Mis accesos directos* > *Tecla selección izquierda*. Ikus, halaber, Deiak egiteko/jasotzeko modua, 20. orrialdean.

Deiak egiteko/jasotzeko moduan funtzio bat aktibatzeko, ezkerreko hautaketa-tekla **Ir a** bada, hautatu **Ir a** eta hautatu zuzeneko sarbide pertsonalen zerrendako funtzio bat. Hautatu **Opciones** eta aukera hauetako bat:

**Opciones selección** – zuzeneko sarbideen zerrendatik funtzio bat gehitzeko edo ezabatzeko. Joan funtziora eta hautatu **Marcar** edo **Deselecc**.

*Organizar* – zuzeneko sarbide pertsonalen zerrendako funtzioak berrantolatzeko. Joan nahi duzun funtzioraino eta hautatu **Mover**. Joan funtzioa utzi nahi duzun tokira eta hautatu **Aceptar**.

### Eskuineko hautaketa-tekla

Zerrendatik eskuineko hautaketa-teklaren funtzio bat hautatzeko, hautatu **Menú** > *Ajustes* > *Mis accesos directos* > *Tecla de selección dcha.*. Ikus, halaber, Deiak egiteko/jasotzeko modua, 20. orrialdean.

### Nabigazio-tekla

Desplazamendu-tekletarako zuzeneko sarbideko funtzioak hautatzeko, aukeratu **Menú** > *Ajustes* > *Mis accesos directos* > *Tecla de navegación*. Joan tekla batera, hautatu **Cambiar** eta zerrendako funtzioa.

Tekla baten zuzeneko sarbidearen funtzioa ezeztatzeko, hautatu (*vacía*) funtzioen zerrendan. Teklari beste funtzio bat emateko, hautatu **Asignar**. Ikus, halaber, Zuzeneko sarbideak deiak egiteko/jasotzeko egoeran, 22. orrialdean.

## Itxarote aktiboa aktibatzea

Itxarote aktiboaren nabigazio-modura sartzeko tekla hautatzeko, hautatu **Menú** > *Ajustes* > *Mis accesos directos* > *Activación espera activa* > *Tecla navegación arriba*, *Tecla navegación abajo* edo *Tecla naveg. arriba/abajo*.

## Ahots-komandoak

Kontaktuetera dei dezakezu eta ahots-komando bidez telefonoko funtzioak erabil ditzakezu. Ahots-komandoak hizkuntzaren arabera dira. Hizkuntza zehazteko, ikus *Idioma reproducción voz* Telefono-doikuntzak atalean, 62. orrialdean.

Telefonoaren ahots-komandoak aktibatuta daude, lehenespen gisa. Hautatu **Menú** > *Ajustes* > *Mis accesos directos* > *Comandos de voz* eta karpeta bat. Joan funtzio batera. 📞 ikurrak adierazten du grabazioa aktibatuta dagoela. Ahots-komando aktibatua erreproduzitzeko, hautatu **Reprod.** Ahots-komandoak erabiltzeko, ikus Ahots bidezko markaketa hobetua, 26. orrialdean.

Ahots-komandoak kudeatzeko, joan telefonoaren funtzio batera eta hautatu aukera hauetako bat:

*Editar* edo *Eliminar* – hautatutako funtzioaren ahots-komandoa aldatzeko edo desaktibatzeko. Grabazioaren testua editatzean, telefonoak grabazio berri batekin lotuko du.

*Añadir todos* edo *Eliminar todos* – ahots-komandoen zerrendako funtzio guztien ahots-komandoak aktibatzeko edo desaktibatzeko. *Añadir todos* edo *Eliminar todos* ez da bistaratzen ahots-komando guztiak aktibatuta edo desaktibatuta baldin badaude.

## ■ Konektagarritasuna

Telefonoa gailu bateragarri batera konekta dezakezu infragorri bidezko haririk gabeko konexioaren bidez, Bluetooth bidez edo USB datu-kablearen konexio baten bidez (CA-53 edo DKU-2). Halaber, datu-paketeen markaketa-konexioetarako doikuntzak defini daitezke.

### Bluetooth haririk gabeko teknologia

Gailu honek Bluetooth 2.0 Zehaztapena betetzen du eta modu hauek onartzen ditu: esku-librekoa, EL eramangarria, objektuekiko kontaktua, fitxategien transferentzia, markaketa-sarea, SIM sarbidea eta serieko ataka. Bluetooth teknologia onartzen duten beste gailu batzuekin erabil daitekeela bermatzeko, erabili modelo honetarako Nokiak onartutako ekipoak bakarrik. Egiaztatu fabrikatzaileekin ekipo honekin zein gailu erabil daitekeen.


Baliteke Bluetooth teknologia erabiltzean mugak izatea hainbat herritan. Galdetu tokiko administrazioari edo zerbitzu-hornitzaileari.

Bluetooth teknologia erabiltzen duten funtzioak edo beste funtzio batzuk erabiltzen diren bitartean bigarren mailan teknologia horiek aktibatzen direnean, bateria gehiago behar izaten da eta bateriak gutxiago iraungo du.

Bluetooth teknologiaren bidez telefonoa Bluetooth gailu bateragarri batera konekta dezakezu, 10 metroko erradio baten barruan (32 oin). Bluetooth teknologia erabiltzen duten gailuak irrati-uhin bidez komunikatzen direnez, telefonoak eta beste gailu batzuek ez dute ikuspen-lerro berean egon behar. Hala ere, tartean horma edo gailu elektronikoren bat badago, interferentziak gerta daitezke konexioan.

### Bluetooth konexio bat konfiguratzea

Hautatu **Menú** > *Ajustes* > *Conectividad* > *Bluetooth* eta aukera hauetako bat:

*Bluetooth* > *Activado* edo *Desactivado* – Bluetooth funtzioa aktibatzeke edo desaktibatzeke.  ikurrak adierazten du Bluetooth konexio bat aktibatuta dagoela. Bluetooth teknologia lehenbiziko aldiz aktibatzean, telefonorako izen bat zehazteko eskatuko dizu.

Erabili erraz identifikatzeko moduko izena.

*Buscar accesors. de audio* — audioko Bluetooth gailu bateragarriak bilatzeko. Hautatu telefonoan konektatu nahi duzun gailua.

*Dispositivos vinculados* — ekintza-erradioan Bluetooth gailuak bilatzeko. Hautatu **Nuevo**, ekintza-erradioan dauden Bluetooth gailuak bistaratzeko. Joan gailu batera eta hautatu **Vincular**. Sartu Bluetooth gailuaren sarbide-kodea, gailua telefonoarekin lotzeko. Gailua lehen aldiz konektatzen duzunean bakarrik sartu beharko duzu pasahitza. Telefonoa gailura konektatuko da, eta datu-transferentzia hasi ahal izango da.

## **Bluetooth haririk gabeko konexioa**

Hautatu **Menú** > *Ajustes* > *Conectividad* > *Bluetooth*. Une bakoitzean aktibatuta zein Bluetooth konexio dagoen egiaztatzeko, hautatu *Dispositivos activos*. Une bakoitzean telefonoarekin lotuta dauden Bluetooth gailuen zerrenda ikusteko, hautatu *Dispositivos vinculados*.

Hautatu **Opciones** funtzio hauetako batera sartzeko gailuaren eta Bluetooth konexioaren egoeraren arabera. Hautatu *Conectar* > *Asignar alias*, *Conexión autom. sin conf.*, *Borrar vínculo* edo *Vincular nuevo disposit.*

## **Bluetooth-aren doikuntzak**

Beste Bluetooth gailuek telefonoa nola ikustea nahi duzun definitzeko, sakatu **Menú** > *Ajustes* > *Conectividad* > *Bluetooth* > *Visibilidad de mi teléfono* edo *Nombre de mi teléfono*.

Telefonoa ezkutuko moduan erabiltzen bada, babes handiagoa du programa kaltegarrien aurrean.

Ez onartu konfiantzazkoak ez diren iturrien Bluetooth konexioak.

Bluetooth funtzioa desaktibatuzko aukera ere badago. Horrek ez du eragiten telefonoaren gainerako funtzioetan.

## **Infragorriak**

Telefonoaren infragorri-atakaren bidez (IR) datuak bidali eta jaso daitezke telefono edo datu-gailu bateragarri batetik (adibidez, ordenagailua). Infragorri bidezko konexio bat erabiltzeko, konektatu nahi dugun gailuak IrDa-rekin bateragarria izan behar du.

Ez zuzendu izpi infragorriak pertsona baten begietara zuzenean, eta ez utzi infragorriak erabiltzen dituen beste gailu batzuekin interferentziarik sortzen. Gailu hau 1 klaseko laser-produktua da.

Datuak bidaltzean edo jasotzean, ziurtatu bidaltzeko eta jasotzeko gailuen IR portuak bata bestearen aurrez aurre daudela, eta ez dagoela elkarren arteko oztopo fisikorik.

Telefonoaren infragorrien konexioa aktibatzeko, hautatu **Menú** > *Ajustes* > *Conectividad* > *Infrarrojos*.

Infragorrien konexioa desaktibatzeko, hautatu **Menú** > *Ajustes* > *Conectividad* > *Infrarrojos*. Telefonoak *¿Desactivar infrarrojos?* galdetzen badizu, hautatu *Sí*.

Datu-transmisioa infragorrien ataka aktibatu eta handik bi minutura hasi ez bada, konexioa bertan behera geratzen da eta berriz hasi behar da.

### **Infragorrien bidezko konexioaren adierazlea**

Pantailan **IR** etengabe agertzen denean, infragorrien bidezko konexioa aktibatuta dagoela esan nahi du eta zure telefonoa prest dagoela infragorrien atakaren bidez datuak bidali edo jasotzeko.

**IR** adierazlea keinuka hasteak esan nahi du telefonoa beste gailuarekin konektatu nahian ari dela, edo konexioa galdu egin dela.

## **Datu-paketeak**

WCDMA eta GPRS teknologiak (General Packet Radio Service edo pakete bidezko irrati-zerbitzua) sare-zerbitzuak dira, eta, horiei esker, telefono mugikorra erabil daiteke Internet Protokoloan (IP) oinarritutako sare baten bidez datuak bidaltzeko eta jasotzeko.



WCDMA eta GPRS datu-garraiatzaileak dira, eta Internetera eta hori bezalako datu-sareetara haririk gabe sartzeko aukera ematen dute.

EGPRS zerbitzua (Enhanced GPRS edo GPRS hobetua) GPRS zerbitzuaren antzekoa da, baina konexio bizkorragoa ematen du. EGPRSren erabilgarritasunari eta datuak transferitzeko abiadurari buruzko informazio gehiago eskuratzeko, jarri harremanetan zure sare-operadorearekin edo zure zerbitzu-hornitzailearekin.

WCDMA edo (E)GPRS zerbitzuak aplikazio hauek erabil ditzakete: MMS, streaming bideoa, nabigazio-saioak, urruneko SyncML, Java aplikazioak deskargatzea eta PCren markatzea.

GPRS datu-garraiatzaile gisa hautatzean, telefonoak EGPRS erabiliko du GPRSren ordez, zerbitzu hobetu hori sarean erabilgarri badago. EGPRS eta GPRSren artean ezin duzu aukeratu, baina aplikazio batzuetan GPRS edo *Datos GSM* hauta dezakezu (CSD, Circuit Switched Data).

## Datu-paketeen doikuntzak

Hautatu **Menú** > *Ajustes* > *Conectividad* > *Paquetes de datos* > *Conexión paquetes datos* eta aukera hauetako bat:

*Siempre en línea* telefonoa piztean automatikoki datu-paketeen sare batean erregistra dadin konfiguratzeko. **G** edo **E** adierazten dute datu-paketeen zerbitzua erabil daitekeela.

Dei bat edo testu-mezu bat jasotzen baduzu edo dei bat egiten baduzu datu-paketeen konexioa egiten den bitartean, **G** edo **E** ikurrek adierazten dute datu-paketeen konexioa eten egin dela (zain).

*Cuando necesario* datu-paketeen konexio bat erregistratzeko eta ezartzeko datu-paketeak erabiltzen dituen aplikazio batek behar duenean, eta konexioa ixteko aplikazioak amaitzen duenean.

## Datu-paketeen doikuntzak

Telefonoa PC bateragarri batera konekta daiteke eta telefonoa modem gisa erabil daiteke, haririk gabeko Bluetooth teknologiaren bidezko, Infragorrien

bidezko edo USB datu-kable bidezko konexioarekin PCtik datu-paketeen konektagarritasuna ahalbidetzeko.

PCtik datu-paketeen konexioen doikuntzak definitzeko, hautatu **Menú** > *Ajustes* > *Conectividad* > *Paquetes datos* > *Ajustes de paquetes de datos* > *Punto de acceso activo*, eta aktibatu erabili nahi duzun sarbide-puntua. Hautatu *Editar pto. acceso activo* > *Alias de punto de acceso*, idatzi izen bat sarbide-puntuaren doikuntzak aldatzeko, eta hautatu **Aceptar**. Hautatu *Pto. acceso paquets. datos*, idatzi sarbide-puntuaren izena (APN) sare batekiko konexioa ezartzeko eta hautatu **Aceptar**.

PCan datu-paketeen zerbitzuaren doikuntzak ere defini ditzakezu (sarbide-puntuaren izena), Nokiaren Modem Options softwarearen bidez. Ikus Nokia PCSuite 104. orrialdean. Doikuntzak PCan eta telefonoan zehaztu badituzu, gogoan izan PCkoak erabiliko direla.

## **Datu-transferentzia**

Sinkronizatu agenda, aurkibidea eta oharrak beste gailu bateragarri batekin (adibidez, telefono mugikor batekin), PC bateragarri batekin edota urruneko Internet zerbitzari batekin (sare-zerbitzua).

### **Telefonoari lotutako gailuen zerrenda**

Telefonotik datuak kopiatzeko edo sinkronizatzeko, gailuaren izenak eta doikuntzek telefonoari lotutako gailuen zerrendan azaldu behar dute, transferentzia-kontaktuetan. Beste gailu batetik datuak jasotzen badituzu (adibidez, telefono mugikor bateragarri batetik), telefonoari lotutako gailua automatikoki sartzen da zerrendan, eta beste gailuko kontaktuen datuak erabiltzen ditu. *Sincroniz. del servidor* eta *Sincronizar PC* dira zerrendako jatorrizko elementuak.

Zerrendan telefonoari lotutako beste gailu bat sartzeko (adibidez, gailu berri bat), hautatu **Menú** > *Ajustes* > *Conectividad* > *Transferencia de datos* > **Opciones** > *Añadir contacto* > *Sincronización del teléfono* edo *Copia de teléfono*, eta sartu doikuntzak, transferentzia-motaren arabera.

Kopia editatzeko eta doikuntzak sinkronizatzeko, hautatu kontaktu bat telefonoari lotutako gailuen zerrendatik, eta **Opciones** > *Editar*.

Telefonoari lotutako gailu bat ezabatzeko, hautatu kontaktu bat lotutako gailuen zerrendan eta **Opciones** > *Borrar*; gero, berretsi: *¿Borrar contacto de transferencia?*. *Sincroniz. del servidor* eta *Sincronizar PC* ezin dira ezabatu.

## Datuak gailu bateragarri batekin transferitzea

Sinkronizatzeko haririk gabeko Bluetooth teknologia edo infragorriak erabiltzen da. Beste gailua deiak egiteko/jasotzeko egoeran dago.

Datuak transferitzen hasteko, hautatu **Menú** > *Ajustes* > *Conectividad* > *Transferencia de datos* eta transferentzia egiteko zerrendako aukera (*Sincroniz. del servidor* eta *Sincronizar PC* izan ezik). Doikuntzen arabera, hautatutako datuak kopiatu edo sinkronizatu egingo dira. Beste gailuak, halaber, aktibatuta egon behar du datuak jasotzeko.

## Sinkronizazioa PC bateragarri batetik

Agendako datuak, aurkibidea edo oharrak PC bateragarri batetik sinkronizatu baino lehen, telefonoaren Nokia PC Suite softwarea instalatu behar da PCan. Erabili haririk gabeko Bluetooth teknologia, infragorriak edo USB datu-kable bat sinkronizatzeko eta abiarazi sinkronizazioa PCTik.

## Zerbitzari batekin sinkronizatzea

Urruneko Internet zerbitzari bat erabiltzeko, sinkronizazio-zerbitzu berri batera harpidetu behar duzu. Zerbitzuari buruzko informazio gehiago eta zerbitzu honetarako behar diren doikuntzak jakin nahi badituzu, jarri harremanetan zerbitzu-hornitzailearekin. Doikuntzak konfigurazio-mezu batean jaso ditzakezu. Ikus Konfigurazioa doitzeko zerbitzua 11. orrialdean, eta Konfigurazioa 64. orrialdean.

Urruneko Internet zerbitzarian datuak gorde badituzu, telefonoa sinkronizatzeko abiarazi sinkronizazioa telefonotik bertatik.

Hautatu **Menú** > *Ajustes* > *Conectividad* > *Transferencia de datos* > *Sincroniz. del servidor*. Doikuntzen arabera, hautatu *Inicializando sincronización* edo *Iniciando copia*.

Aurkibidea edo agenda beteta badaude, sinkronizazioa egiten duzun lehen aldian edo etendako sinkronizazio baten ondoren, prozesuak 30 bat minutu beharko du.

## **USB datu-kablea**

USB datu-kablea erabil dezakezu datuak transferitzeko telefonoaren memoria-txartelaren eta PC bateragarri baten artean edo inprimagailu bateragarri (PictBridge) baten artean. USB datu-kablea ere Nokia PC Suite-rekin erabil dezakezu.

Datuak transferitzeko edo irudiak inprimatzeko memoria-txartela aktibatzeke, konektatu USB datu-kablea; telefonoan *Cable de datos USB conectado*.  
*Seleccionar modo.*, hautatu **Acceptar** eta modu hauetako bat:

*Modo predeterminado* – Nokia PCSuite instalatuta duen PC bateko aplikazioekin interakzionatzeko moduan erabiltzeko telefonoa.

*Impresión* – Telefonoa PictBridge inprimagailu bateragarri batekin erabiltzeko.

*Almacenamiento datos* – Nokia programarik ez duen PC batekin konektatzeko eta telefonoa datuak gordetzeko gailu gisa erabiltzeko.

USB modua aldatzeko, hautatu **Menú** > *Ajustes* > *Conectividad* > *Cable de datos USB* > *Modo predeterminado*, *Impresión* edo *Almacenamiento datos*.

## **■ Deiarene doikuntzak**

Hautatu **Menú** > *Ajustes* > *Ajustes de llamada* eta aukera hauetako bat:

*Desvío de llamadas* – sarrerako deiak desbideratzeko (sare-zerbitzua). Baliteke deiak desbideratzerik ez izatea, deiak murrizteko hainbat funtzio aktibatuta badaude. Ikus *Servicio restric. de llams*. Segurtasuna atalean, 65. orrialdean.

*Rellamada automática* > *Activada* – telefonoak erantzunik gabeko deisaiakera baten ondoren, 10 saiakera egin ditzan berriro konektatzeko.

*Cualquier tecla responde* > *Activada* – sarrerako dei bati erantzuteko edozein tekla sakatuz (pizteko tekla eta deia amaitzeko tekla izan ezik).

*Marcaación rápida* > *Activar* – 2tik 9rako markaketa bizkorreko teklei esleitutako izenak eta telefono-zenbakiak markatzeko, luze sakatu dagokien zenbaki-tekla.

*Llamada en espera* > *Activar* – hitz egiten ari zaren bitartean sareak beste deirik dagoen ohartarazteko (sare-zerbitzua). Ikus Deia zain, 27. orrialdean.

*Resumen tras la llamada* > *Activado* – dei baten ondoren azken deiaren gutxi gorabeherako iraupena eta kostua labur bistaratzeko (sare-zerbitzua).

*Envío identidad llamante* > *Sí* – deitzen diozun pertsonari zure telefono-zenbakia erakusteko (sare-zerbitzua). Zerbitzu-hornitzailearekin adostutako doikuntzak erabiltzeko, hautatu *Fijado por la red*.

*Un. para llams. salientes* – deiak egitean 1 edo 2 linea hautatzeko, SIM txartelak onartzen badu (sare-zerbitzua).

## ■ Telefonoaren doikuntzak

Hautatu **Menú** > *Ajustes* > *Ajustes del teléfono* eta aukera hauetako bat:

*Ajustes de idioma* – telefonoaren hizkuntza hautatzeko, hautatu *Idioma del teléfono*. *Automático* aukeratzen baduzu, telefonoak SIM txartelean dagoen informazioaren arabera aukeratuko du hizkuntza.

USIM txartelaren hizkuntza hautatzeko, aukeratu *Idioma de la SIM*.

Ahots-erreproduzioaren hizkuntza hautatzeko, aukeratu *Idioma reproducción voz*. Ikus Dei bat egitea ahots bidez markatuta, 26. orrialdean, eta *Comandos de voz* Nire zuzeneko sarbideak atalean, 53. orrialdean.

*Estado de la memoria* – telefonoaren memorian zenbat memoria erabili den eta zenbat dagoen libre egiaztatzeko.

*Bloqueo auto del teclado* – aurrez zehaztutako denbora-tartea igarotakoan telefonoaren teklatura automatikoki blokea dadin konfiguratzeko, telefonoa deiak egiteko/jasotzeko egoeran dagoela funtziorik erabili ez denean. Hautatu *Activar* eta zehaztu denbora-tartea.

*Bloqueo teclado seguriid.* – teklatura desblokeatzeko segurtasun-kodea eskatzeko moduan konfiguratzeko. Sartu segurtasun-kodea eta hautatu *Activar*.

Teklatu babestua aktibatuta egon arren, deitu daiteke telefonoan programatutako larrialdi-zenbaki ofizialera.

*Saludo inicial* – telefonoa piztean pantailan agertzea nahi duzun agurra idazteko.

*Actualizaciones*– zerbitzu-hornitzaileak bidalita, telefonoaren softwarea eguneratuta jasotzeko (sare-zerbitzua). Aukera hau telefonoaren arabera alda daiteke.

*Modo de red* – modu duala hautatzeko (UMTS eta GSM), UMTS edo GSM. Dei bat aktibatuta duzunean, ezin zara aukera honetan sartu.

*Selección de operador > Automática* – telefonoak automatikoki aukera dezan inguru horretan erabilgarri dauden sare zelularretako bat. *Manual* aukeraren bidez, tokiko sare-operadorearekin desplazamendu-akordio bat duen sareetako bat aukera dezakezu.

*Confirmar accs. serv. SIM* – ikus SIM zerbitzuak, 103. orrialdean.

*Activación texto de ayuda* – telefonoak laguntzako testuak bistaratzea nahi duzun hautatzeko.

*Tono inicial* – telefonoa piztean tonu bat egitea nahi duzun hautatzeko.

*Pregunta vuelo* – gailua itzali baino lehen hegazkin modua aktibatuta bazegoen, telefonoa pizten den bakoitzean *¿Activar perfil de vuelo?* galdera bistaratzea nahi duzun hautatzeko. Ikus Hegazkin modua, 49. orrialdean.

## ■ Ekipamendua

Telefonoa ekipamendu mugikor bateragarri batera konektatuta badago edo egon bada bakarrik aterako da menu hau.

Hautatu **Menú** > *Ajustes* > *Ajustes accesorios*.

Ekipamenduaren arabera, aukera hauetako bat hauta dezakezu:

*Modo predeterminado* – hautatutako ekipamenduarekin konektatzean automatikoki aktibatu nahi duzun modua hautatzeko.

*Respuesta automática* – telefonoak automatikoki erantzun diezaien sarrerako deiei, bost segundo igarotakoan. *Aviso llamada entrante* aukera *Sólo un "bip"* edo *Desactivado* gisa konfiguratu bada, erantzun automatikoa desaktibatuta geratuko da.

## ■ Konfigurazioa

Zerbitzu batzuek behar bezala funtziona dezaten egin beharreko doikuntzekin konfigura daiteke telefonoa. Hona hemen zerbitzuak: multimedia-mezuak, berehalako mezularitza, sinkronizazioa, streaming teknologia, Deitzeko sakatzea (PTT) eta web-a. Zerbitzu-hornitzaileak bidal diezazkizuke doikuntza horiek. Ikus Konfigurazioa doitzeko zerbitzua 11. orrialdean.

Konfigurazio-doikuntza egokiei eta erabilgarritasunari buruzko informazioa lortzeko, jar zaitetz harremanetan zure sare-operadorearekin edo zerbitzu-hornitzailearekin.

Hautatu **Menú** > *Ajustes* > *Configuración* eta aukera hauetako bat:

*Ajustes config. predet.* – telefonoan gordetako zerbitzu-hornitzaileak ikusteko. Joan zerbitzu-hornitzaile batera, eta hautatu **Detalles** zerbitzu-hornitzaile horren konfigurazio-doikuntzak zein aplikaziok onartzen dituzten ikusteko. Zerbitzu-hornitzailearen konfigurazio-doikuntzak doikuntza lehenetsi gisa ezartzeko, hautatu **Opciones** > *Fijar como predetermin..* Konfigurazio-doikuntzak ezabatzeko, hautatu *Borrar*.

*Activar predet. en aplics.* – aplikazio bateragarriko aurrez zehaztutako konfigurazioko doikuntzak aktibatzeke.

*Punto de acceso preferido* – gordetako sarbide-puntuak ikusteko.

Joan sarbide-puntu batera eta hautatu **Opciones** > *Detalles*, zerbitzu-hornitzailearen izena, datu-garraiatzailea, datu-paketeen sarbide-puntua edo GSM markaketa-zenbakia ikusteko.

*Conect. con soporte serv.* – zerbitzu-hornitzailearen konfigurazio-doikuntzak deskargatzeko, eragiketa hori egitea onartzen badu.

*Ajustes admin. dispositiv.* – uhin bidez zuzenean telefonoaren softwarearen eguneratzea onartzeko edo ez onartzeko. Ikus Telefonoaren softwarea eguneratzea, 67. orrialdean.

*Ajustes de conf. personal* – hainbat zerbitzutarako kontu pertsonal berriak gehitzeko, aktibatzeke edo ezabatzeke. Kontu pertsonalik gehitu ez baduzu, eta berri bat gehitu nahi baduzu, hautatu **Añadir**; bestela, aukeratu **Opciones** > *Añadir nuevo*. Aukeratu zerbitzu-mota eta hautatu eta sartu behar diren parametro guztiak. Parametroak desberdinak izango dira hautatutako zerbitzu-motaren arabera. Kontu pertsonal bat ezabatzeke edo aktibatzeke, joan konturaino eta hautatu **Opciones** > *Borrar* edo *Activar*.

## ■ Segurtasuna

Deiak mugatzen dituzten segurtasun-funtzioak aktibatuta egon arren (adibidez, deiak blokeatzea, erabiltzaile-talde txikia eta markaketa finkoa), deitu daiteke telefonoan programatutako larrialdi-zenbaki ofizialera.

Hautatu **Menú** > *Ajustes* > *Ajustes seguridad* eta aukera hauetako bat:

*Petición del código PIN* eta *Petición del código UPIN* – telefonoak pizten duzun bakoitzean PINa edo UPINa eska dezan konfiguratzeko. SIM txartel batzuek ez dute kodearen eskaera desaktibatzen uzten.



*Servicio restric. dellams.* – telefonoaren sarrerako eta irteerako deiak murrizteko (sare-zerbitzua). Ezinbestekoa da murriztapenen pasahitza.

*Marcación fija* – telefono-zenbakien edo aurrezenbakien zerrenda bat sortzeko, aldatzeko eta aktibatzeko. Zerrenda aktibatuta dagoenean, zerrendako zenbakietara bakarrik dei dezakezu eta bidal ditzakezu mezuak. SIM txartelak aukera hori onartzen ez badu, ez da *Marcación fija* bistaratu.

*Grup. cerrado de usuarios* – zuri deitzeko edo zuk deiak egiteko aukera duten pertsona-taldea zehazteko da (sare-zerbitzua).

*Nivel de seguridad > Teléfono* – SIM txartel berri bat sartzen duzun bakoitzean telefonoak segurtasun-kodea eskatzeko. *Nivel de seguridad > Memoria* hautatzen baduzu, telefonoak segurtasun-kodea eskatuko dizu, SIM txarteleko memoria hautatzen duzunean eta erabiltzen ari zaren memoria aldatu nahi duzunean.

*Códigos de acceso* – segurtasun-kodea, PIN kodea, PIN2 kodea edo murrizketa-pasahitza aldatzeko.

*Código en uso* – PIN kodea edo UPIN kodea aktibatuta egotea nahi duzun hautatzeko.

*Certificados de autoridad* edo *Certificados de usuario* – telefonoan deskargatutako baimen-ziurtagirien edo erabiltzaile-ziurtagirien zerrenda ikusteko. Ikus Ziurtagiriak 101. orrialdean.

*Ajustes módulo seguridad – Detalles mód. seguridad* ikusteko, *Petición PIN del módulo* aktibatzeko edo moduluaren PINa eta sinaduraren PINa aldatzeko. Ikus, halaber, Sarbide-kodeak 10. orrialdean.

## ■ Eskubide digitalen kudeaketa

Eskubide digitalen kudeaketa (DRM) copyright babes-mota bat da, eta fitxategi babestuen aldaketa eragozteko eta banaketa mugatzeko diseinatu da. Telefonoan fitxategi babestuak deskargatzean (adibidez, soinua, bideoa, gaiak edo dei-tonuak), fitxategiak doakoak dira, baina blokeatuta daude. Fitxategia aktibatzeko pasahitza ordaindu behar duzu, eta aktibazio-gakoa automatikoki bidaltzen da telefonora fitxategia deskargatzean.

Fitxategi babestu baten baimenak ikusteko, joan fitxategira eta hautatu **Opciones** > *Claves de activación*. Adibidez, bideo bat zenbat aldiz ikus dezakezun edo abesti bat entzuteko zenbat egun geratzen zaizkizun ikus dezakezu.

Fitxategi baten baimenak luzatzeko, hautatu **Opciones** eta fitxategi-motari dagokion aukera, adibidez *Activar tema*. Lagunei fitxategi babestu mota batzuk bidal diezazkiekezu, eta haiek aktibazio-gakoak erosi behar dituzte.

Telefono honek OMA DRM 1.0 onartzen du.

## ■ Telefonoaren softwarea eguneratzea

Litekeena da zerbitzu-hornitzaileak telefonoaren softwarearen eguneratzeak zuzenean uhin bidez bidaltzea gailura. Aukera hau telefonoaren arabera alda daiteke.



**Oharra:** Softwarea eguneratzekoa instalatzen baduzu, ezingo duzu gailua erabili (larrialdi-deiak egiteko ere ez), eguneratzea amaitu eta gailua berrabiarazi arte. Ahaztu gabe, egin datuen segurtasun-kopiak softwarea eguneratu aurretik.

## Doikuntzak

Telefonoaren softwarearen eguneratzea onartzeko edo ez onartzeko, hautatu **Menú** > *Ajustes* > *Configuración* > *Ajustes admin. dispositiv.* > *Actualiz. swprov. serv.* eta aukera hauetako bat:

*Permitir siempre*— softwarearen deskarga eta eguneratze guztiak automatikoki exekutatzeko.

*Rechazar siempre*— softwarearen eguneratzeak ez onartzeko.

*Confirmar antes*— softwarearen deskarga guztiak eta eguneratzeak zuk berretsi ondoren bakarrik exekutatzeko (lehenetsitako doikuntza).

Definitutako doikuntzen arabera, softwarea eguneratuta deskargatzeko aukera duzula jakinaraziko zaizu, edo automatikoki deskargatu eta instalatu dela.

## ■ Jatorrizko doikuntzak berriz jartzea

Menuko doikuntza batzuk leheneratzeko, hautatu **Menú** > *Ajustes* > *Rest. config. origin..* Sartu segurtasun-kodea.

## 10. Operadorearen menua

---

Menu honen bidez, sare-operadoreak emandako zerbitzuen atarira sar zaitezke. Izena eta ikonoa operadorearen arabera aldatzen dira. Informazio gehiago eskuratzeko, jar zaitez harremanetan zure sare-operadorearekin. Menu hori bistaratzen ez bada, hurrengo menuen zenbakiak aldatu egingo dira.

Operadoreak menu hori egunera dezake, zerbitzu-mezu bat bidalita. Informazio gehiago nahi izanez gero, ikus Zerbitzuko sarrerako postontzia, 99. orrialdean.

# 11. Galeria



Menu honetan grafikoak, irudiak, grabazioa eta tonuak kudea daitezke. Fitxategi horiek karpetaan daude antolatuta.

Telefonoak eskuratutako edukiak babesten dituen aktibatze-kodeen sistema du. Egiatzatu beti eduki guztien entrega-baldintzak eta aktibatze-kodeak erosi aurretik, tarifaren bat eduki baitezakete.

*Galería* aukeran gordetako fitxategiek telefonoaren microSD txarteleko memoria erabiltzen dute. *Galería* aukeran, irudiak, gaiak, grafikoak, dei-tonuak, bideo-klipak eta soinu-klipak gorde daitezke.

Fitxategiak eta karpetak kudeatzeko, eman pauso hauek:

1. Hautatu **Menú** > *Galería*. Karpeten zerrenda bistaratuko da. Telefonoak memoria-txartela sartuta badu, *Tarjeta de memoria, (sin formatear)* karpeta edo memoria-txartelaren izena bistaratuko da.
2. Joan nahi duzun karpetaraino. Karpetako fitxategien zerrenda ikusteko, hautatu **Abrir**. Aukerak ikusteko, hautatu **Opciones**.
3. Joan ikusi nahi duzun fitxategiraino, eta hautatu **Abrir**. Aukerak ikusteko, hautatu **Opciones**.

Copyright-en babesak direla eta, agian, irudi, musika –dei-tonuak barne– eta beste eduki batzuk ezingo dituzu kopiatu, aldatu, transferitu edo berriro bidali.

## ■ Memoria-txartela formateatzea

Memoria-txartel berri bat formateatzeko, hautatu **Menú** > *Galería*. Joan memoria-txartelaren karpetara eta hautatu **Opciones** > *Formatear tarj. de memo*.

## 12. Multimedia



Mugikorreko kamerak 1,3 megapixel ditu, eta, argazkiak ateratzeaz gain, zuzenean bideo-klipak grabatzeko aukera ere ematen du.

### ■ Kamera

Kamerak lau handipeneko zoom digitala du, eta harekin ateratako argazkiek .jpg formatua dute.

### Argazkiak ateratzea

1. Kameraren bisorea irekitzeko, hautatu **Menú** > *Multimedia* > *Cámara*.

*Vídeo* aukera badago lehenetsita, hautatu **Opciones** > *Imagen fija*.

Irudia gerturatzeko edo urruntzeko, sakatu bolumen-tekla gora edo behera, edo mugitu ezkerrera edo eskuinera.

Lau argazki segidan bizkor ateratzeko, hautatu **Opciones** > *Secuencia de imág. activ.*. Zenbat eta altuagoa izan bereizmena, orduan eta argazki gutxiago atera ahal izango dituzu segidan.

2. Argazkia ateratzeko, sakatu kameraren tekla edo hautatu **Capturar**.

Argazkia *Galería* > *Imágenes* karpetan gordeko da, memoria-txartelean gordetzeko konfiguratzen ez baduzu.



3. Beste argazki bat ateratzeko, sakatu kameraren tekla argazkiak gordetzeko adierazlea gelditzen denean. Argazkia multimedia-mezu gisa bidaltzeko, hautatu **Opciones** > *Enviar*.



Iradokizuna: Kamera aktibatzeko, sakatu kameraren tekla.

Telefono honek 1280 x 960 pixeleko argazkiak ateratzeko bereizmena du. Rudiaren bereizmena aldatu egin daiteke materialen arabera.

## Kameraren doikuntzak

Hautatu **Menú** > *Multimedia* > *Cámara* > **Opciones** > *Ajustes*. Hauek defini ditzakegu: *Calidad de la imagen*, *Tamaño de la imagen*, *Calidad de videoclip*, *Duración de los videoclips*, *Sonidos de la cámara*, *Título predeterminado*, *Almac. de imágenes y vídeo* eta *Modo predeterminado*. *Almac. de imágenes y vídeo* aukeran, karpeta edo memoria-txartela hauta dezakezu argazkiak eta bideoklipak gordetzeko.

Gailu honek bideo-tamaina hauek onartzen ditu: SubQCIF (128 x 96 pixel) eta QCIF (176 x 144 pixel).

## ■ Bideoa

Bideoak .3gp formatuko bideoklipak grabatzen ditu. Grabazioen iraupena bideokliparen eta kalitateko doikuntzen araberakoa da.

Bideokliparen iraupena eta tamaina erabilgarri dagoen memoriaren eta hautatutako kalitatearen araberakoa da. Bideoklipen kalitatea ezartzeko, hautatu **Menú** > *Multimedia* > *Vídeo* > **Opciones** > *Ajustes* > *Calidad de la imagen* > *Alta*, *Nórmalo* *Básica*.

Fitxategien tamaina aukeratzeko, hautatu **Menú** > *Multimedia* > *Vídeo* > **Opciones** > *Ajustes* > *Duración de los videoclips*. *Predeterminada* aukerak adierazten du fitxategien tamaina mugatuta dagoela, multimedia-mezu batean sartzeko moduan (mezu horien tamaina aldatu egin daiteke gailu batetik bestera). *Máxima* aukerak adierazten du memoria guztia erabiltzen dela. Erabilgarri dagoen memoria, bideoklipa gordetzeko erabilitako tokiaren arabera aldatu egiten da.

## Bideoklipak grabatzea

Hautatu **Menú** > *Multimedia* > *Vídeo* > *Grabar*. Kamera-tekla sakatuta ere eduki dezakezu. Grabazioa eteteko, hautatu *Pausa*, eta berriz grabatzen hasteko, hautatu *Continuar*.

Grabazioa eteteko, sakatu *Detener*. Telefonoak *Galería* > *Videoclips* aukeran gordeko ditu grabazioak. Grabazioak beste karpeta batean gordetzeko, ikus Kameraren doikuntzak 72. orrialdean.

Irudia gerturatzeko edo urruntzeko, sakatu bolumen-tekla gora edo behera, edo mugitu ezkerrera eta eskuinera.

## **Bideoklipak bidaltzea**

Hautatu **Menú** > *Multimedia* > *Repr. multimedia* > *Abrir Galería* > *Videoclips*. Joan bidali nahi duzun bideoklipera eta aukeratu *Opc.* > *Enviar*. Aukeratu bideoklipa bidaltzeko erabili nahi duzun formatua eta hautatu *Enviar*.

## **■ Multimedia-erreproduzitailea**

Multimedia-erreproduzitailearekin artxiboak ikusi, erreproduzitu eta deskarga ditzakezu, irudiak, audio- eta bideo-artxiboak eta irudi animatuak adibidez. Streaming bideo bateragarriak ere ikus ditzakezu, zure sare-zerbitzutik jasotakoak (sare-zerbitzua).

Hautatu **Menú** > *Multimedia* > *Repr. multimedia* > *Abrir Galería*, *Favoritos*, *Ir a dirección* edo *Descargas multimedia*.

## **Deskarga mailakatua**

Deskarga mailakatuaren bidez, bideoa deskargatzen ari zaren bitartean ikus dezakezu, eta atzean gorde. Erreproduzioa automatikoki hasten da buferrean nahiko datu dagoenean.

Hautatu **Menú** > *Multimedia* > *Repr. multimedia* > *Abrir Galería*, *Favoritos*, *Ir a dirección* edo *Descargas multimedia*.

Bideoaren aukerara sartzeko informazio gehiago nahi izanez gero, ikus Edukiak deskargatzea 12. orrialdean.

## **Telefonoa streaming zerbitzuetarako konfiguratzeko**

Streaming-erako behar diren konfigurazioko doikuntzak sare-operadorearen edo zerbitzu-hornitzailearen konfigurazio-mezu gisa jasotzeko.



Ikus Konfigurazioa doitzeko zerbitzua 11. orrialdean. Doikuntzak eskuz ere sar ditzakezu. Ikus Konfigurazioa, 64. orrialdean.






Konfigurazioa aktibatzen, eman pauso hauek:

1. Hautatu **Menú** > *Multimedia* > *Repr. multimedia* > *Ajustes streaming* > *Configuración*. Streaming zerbitzua onartzen duten konfigurazioak bakarrik bistaratuko dira.
2. Hautatu zerbitzu-hornitzaile bat, *Predeterminados* edo *Configuración personal* streaming-erako.
3. Hautatu *Cuenta* eta konfigurazio-doikuntza aktiboetan dagoen streaming zerbitzuaren kontu bat.



## ■ Musika-erreproduzitzaila



Telefonoak musika-erreproduzitzaila du, Nokia Audio Manager aplikazioarekin telefonora transferitutako abestiak, grabazioak edo .mp3, .mp4 edo .aac formatuko beste soinu-fitxategi batzuk entzuteko. .mp3 eta .aac formatuko fitxategiak memoria-txartelean edo *Galería* karpetan gordeko dira. *Archivos de música* karpetan edo beste toki batean (adibidez, memoria-txartelaren karpeta bat) gordetako musika-fitxategiak detektatu egingo dira eta lehenetsitako erreproduzio-zerrendan erantsiko dira automatikoki.

## Telefonora transferitutako musika-pistak erreproduzitzea

1. Hautatu **Menú** > *Multimedia* > *Reprod. de música*. Lehenetsitako pisten zerrendako lehen pistaren ezaugarriak bistaratzen dira.  
Pantailan , ,  edo  tekla grafikoak erabiltzeko, joan ezkerrera edo eskuinera, nahi duzun teklaraino eta sakatu.
2. Pista bat erreproduzitzeko, joan pista horretaraino eta hautatu .

Bolumena erregulatzeko, erabili telefonoaren alboko bolumen-teklak.

Hurrengo pistaren hasierara joateko, sakatu  Aurreko pistaren hasierara joateko, sakatu bi aldiz  tekla.

Entzuten ari zaren pista atzera eramateko, luze sakatu  tekla. Entzuten ari zaren pista aurrera eramateko, luze sakatu  tekla. Askatu tekla pistari nahi duzun puntuan.

3. Erreproduzioa geldiarazteko, hautatu .



**Oharra:** entzun musika neurrizko bolumenean. Irratia etengabe oso ozen izateak, entzumena kalte dezake. Bozgorailua erabiltzen duzunean, ez jarri telefonoa belarri ondoan, bolumena altuegia izan liteke eta.

## Musika-erreproduzitailearen doikuntzak

*Reprod. de música* menuan, aukera hauek daude:

*Reproducir vía Bluetooth* – audio-ekipamenduarekin Bluetooth bidez konektatzeko.

*Lista de pistas*– pista-zerrendan dauden pista guztiak ikusteko. Pista bat erreproduzitzeko, joan pista horretaraino eta hautatu **Reprod.**

Hautatu **Opciones** > *Actualizar todas las pistas* edo *Cambiar lista de pistas* pista-zerrenda eguneratzeko (adibidez, pista gehiago sartu dizkiozunean) edo *Reprod. de música* menua irekitzen duzunean agertzen den pista-zerrenda aldatzeko, telefonoan hainbat pista badaude.

**Opciones de reproducción** > *Aleatoria* > *Activar* – zerrendako pistak ausazko ordenan erreproduzitzeko. Hautatu *Repetir* > *Pista actual* edo *Todas las pistas* pista hori edo zerrenda osoa berriro erreproduzitzeko.

*Ecuilizador multimedia* – multimedia-ekualizadoreko multzoen zerrenda irekitzeko. Ikus Ekualizadorea 79. orrialdean.

*Altavoz* edo *ML portátil* – musika-erreproduzitailea bozgorailuaren bidez entzuteko edo telefonora konektatutako ML eramangarri bateragarri baten bidez entzuteko.



**Iradokizuna:** Esku libreko kit eramangarri bat erabiltzen duzunean, hurrengo pistara joateko, sakatu esku librekoaren tekla

*Enviar*— hautatutako fitxategia MMS bidez, haririk gabeko Bluetooth teknologiaren bidez edo infragorrien konexio baten bidez bidaltzeko.

*Descargas música* — entzuten ari zaren pistarekin lotutako nabigatzaile-zerbitzu batera konektatzeko. Funtzio hau bakarrik erabilgarri dago pistak zerbitzuaren helbidea badu.

*Estado memoria* — libre dagoen memoria eta erabilitako memoria ikusteko.

## ■ Irratia

FM irratiari dagokion antena ez da haririk gabeko gailuaren antena berbera. FM irratiak ongi funtziona dezan, gailuarekin bat datorren ekipamendua edo entzungailu bateragarriak konektatu behar zaizkio.



**Oharra:** entzun musika neurrizko bolumenean. Irratia etengabe oso ozen izateak, entzumena kalte dezake. Bozgorailua erabiltzen duzunean, ez jarri telefonoa belarri ondoan, bolumena altuegia izan liteke eta.

Hautatu **Menú** > *Multimedia* > *Radio*.

Pantailan ▲, ▼, ◀ edo ▶ tekla grafikoak erabiltzeko, joan ezkerrera edo eskuinera, nahi duzun teklaraino eta sakatu.

## Irrati-kanalak gordetzea

1. Kanala bilatzen hasteko, luze sakatu ◀ edo ▶ Irrati-maiztasuna 0,05 MHz-eko tarteka aldatzeko, sakatu labur ◀ edo ▶.
2. Kanala 1-9 bitarteko memoria-kokapen batean gordetzeko, sakatu luze dagokion zenbaki-tekla. Kanala 10-20 bitarteko memoria-kokapen batean gordetzeko, sakatu labur **1** edo **2** eta, gero, luze sakatu **0-9** bitarteko tekla.
3. Idatzi kanalaren izena eta sakatu *Aceptar*.

## **Irratia entzutea**

Hautatu **Menú** > *Multimedia* > *Radio*. Nahi duzun kanalera joateko, hautatu ▲ edo ▼, edo sakatu esku librekoaren tekla. Dialaren puntua hautatzeko, labur sakatu dagozkion zenbaki-tekla. Bolumena aldatzeko, sakatu bolumen-tekla.

Hauta ezazu aukera hauetako bat:

*Desactivar*— irratia itzaltzeko.

*Guardar canal*— kanala gordetzeko eta izena idazteko.

*Visual Radio*— Visual Radio aplikazioa aktibatzen edo desaktibatzen. Irrati-kanal batzuek testu-informazioa edo informazio grafikoa bidal dezakete; horiek Visual Radio aplikazioaren bidez ikus ditzakezu.



**Oharra:** Litekeena da funtzio hau ez egotea zure produktuan, harpidetu egin behar baita (sare-zerbitzua).

*Ajustes Visual Radio* — Visual Radioren aukerak hautatzeko. Irratia pizten duzunean Visual Radio aplikazioa automatikoki piztea nahi baduzu, hautatu *Activar servicio visual* > *Automáticamente*.

*Canales* — gordetako kanalen zerrenda hautatzeko. Kanal bat ezabatzen edo izena aldatzeko, joan nahi duzuneraino eta hautatu **Opciones**. > *Borrar canal* edo *Renombrar*.

*Salida mono* edo *Salida estéreo*— irratia monoan edo estereofonikoan entzuteko.

*Altavoz* edo *ML portátil* — irratia bozgorailuen bidez edo EL eramangariaren bidez entzuteko. Eduki ezazu telefonora konektatuta esku libreko ekipo eramangarria. Esku libreko eramangariaren kableak irratia antenaren funtzioa egiten du.

*Fijar frecuencia* — irratia-kanalaren maiztasuna sartzeko.

Irratia entzuten duzun bitartean, deiak egin ditzakezu edo sarrerako deiei ohiko moduan erantzun diezakezu. Deiak jasotzean edo egitean, irratia bolumena jaitsi egingo da.

Datu-paketeen konexioa edo HSCSD erabiltzen duen aplikazio bat datuak jasotzen edo bidaltzen ari bada, litekeena da irratian interferentziak izatea.

## ■ Grabagailua

Elkarrizketak, soinua edo uneko deia graba ditzakezu eta *Galería* aukeran edo memoria-txartelean gorde. Funtzio hau oso erabilgarria da, adibidez, norbaiten telefono-zenbakia gordetzeko eta aurrerago idazteko.

Ezin da grabagailurik erabili datu-dei bat edo GPRS konexio bat aktibatuta daudenean.

### Soinua grabatzea

1. Hautatu **Menú** > *Multimedia* > *Grabadora*.  
Pantailan ●, ■ edo ■ tekla grafikoak erabiltzeko, joan ezkerrera edo eskuinera, nahi duzun teklaraino eta sakatu.
2. Grabatzen hasteko, hautatu ●. Dei batean zehar grabatzen hasteko, sakatu **Opciones** > *Grabar*. Dei bat grabatzen den bitartean, solaskideek txistu ahul bat entzungo dute bost segundoan behin. Dei bat grabatzerakoan, eduki telefonoa posizio normalean, belarritik hurbil.
3. Grabazioa geldiarazteko, hautatu ■ Grabazioa *Galería* > *Grabaciones* aukeran gordetzen da.
4. Azken grabazioa entzuteko, hautatu **Opciones** > *Reproducir último grab.*
5. Azken grabazioa infragorri bidez, Bluetooth haririk gabeko teknologiaren bidez edo multimedia-mezuen bidez bidaltzeko, hautatu **Opciones** > *Enviar último grabado*.

### Grabazioen zerrenda

Hautatu **Menú** > *Multimedia* > *Grabadora* > **Opciones** > *Lista grabaciones*. *Galería* aukeran eskura dituzun karpeten zerrenda bistaritzen da. Ireki *Grabaciones* grabazioen zerrenda ikusteko. Hautatu *Opciones*, *Galería* aukerako fitxategien aukerak hautatzeko. Ikus *Galería* 70. orrialdean.

## Gordetzeko karpeta definitzea

*Galería* aukeran, lehenetsitako karpeta gisa *Grabaciones* ez beste karpeta bat erabiltzeko, sakatu **Menú** > *Multimedia* > *Grabadora* > **Opciones** > *Seleccionar memoria*. Joan karpeta batera eta hautatu **Fijar**.

## ■ Ekualizadorea

Musika-erreproduzitailea erabiltzen duzunean, soinuaren kalitatea kontrola dezakezu, maiztasun-bandak ahulduta edo anplifikatuta.

Hautatu **Menú** > *Multimedia* > *Ecuilizador*.

Talde bat aktibatzeko, joan ekualizadoreko taldeetako batera eta sakatu **Activar**.

Multzo baten izena ikusteko, editatzeko edo aldatzeko, hautatu **Opciones** > *Ver*, *Editar* edo *Renombrar* Talde guztiak ezin dira editatu edo ezin zaie izena aldatu.

## 13. Deitzeko sakatzea



**Oharra:** Litekeena da funtzio hau ez egotea zure produktuan, harpidetu egin behar baita (sare-zerbitzua).



Deitzeko sakatzea (PTT) bi bideko irratiz-zerbitzu bat da, eta GSM / GPRS sare zelular baten bidez erabil daiteke (sare-zerbitzua). Deitzeko sakatzea aukerak ahots bidezko komunikazio zuzena eskaintzen du. Konektatzeko, sakatu PTT tekla.

Deitzeko sakatzea zerbitzua erabil dezakezu, pertsona batekin edo pertsona-talde batekin hitz egiteko, baldin eta gailu bateragarriak badituzte. Zure deia konektatzen denean, solaskideek ez diete telefonoari erantzun behar. Solaskideek komunikazioa jaso izana berretsi behar dute dagokienean; izan ere, ez dago beste aukerarik solaskideek deia jaso dutela baieztatzeko. Zerbitzuaren erabilgarritasunari eta kostuei buruzko informazioa eskuratzeko edo zerbitzu horretan harpidetzeko, jarri harremanetan zure sare-operadorearekin edo zerbitzu-hornitzailearekin. Desplazamendu-zerbitzuak dei arruntek baino muga gehiago izan ditzakete.

PTT zerbitzua erabili aurretik, eskatutako zerbitzuaren doikuntzak definitu behar dituzu. Ikus PTTko doikuntzak, 85. orrialdean.

Deitzeko sakatzea zerbitzura konektatuta zauden bitartean, telefonoaren gainerako funtzioak erabil ditzakezu. PTT zerbitzua ez dago konektatuta ahots bidezko komunikazio arruntetara; beraz, ahots bidezko dei arruntetan erabil daitezkeen hainbat zerbitzu (adibidez, ahots-postontzia) ezin dira erabili PTT komunikazioetan.

### ■ Conexión al servicio PPH

Deitzeko sakatzea zerbitzura konektatzeko, hautatu **Menú** > *Pulsar para hablar* > *Activar PPH*.  ikurrak adierazten du zerbitzura konektatuta zaudela.  ikurrak adierazten du zerbitzua ezin dela denbora-tarte batean erabili. Telefonoa automatikoki saiatuko da berriro konektatzen, zu PTT zerbitzura deskonektatu arte. Telefonoari kanalak gehitu badizkiozu, automatikoki lotuko da aktibo dauden kanaletara, eta, kontaktu bat, talde bat edo PTT tekla

ekintza lehenetsi gisa kanal bat hautatu baduzu, hautatutako elementuaren izena deiak jasotzeko/egiteko egoeran bezala bistaratuko da.

Deitzeko sakatzea zerbitzutik deskonektatzeko, hautatu *Desactivar PPH*.

## ■ PTT deiak egitea eta jasotzea





Telefonoa konfiguratu dezakezu PTT komunikazioetan bozgorailua edo entzungailua erabiltzeko moduan. Entzungailua hautatzen baduzu, telefonoa normal erabil dezakezu, belarriaren ondoan.



**Oharra:** Bozgorailua erabiltzen duzunean, ez jarri telefonoa belarri ondoan, bolumena altuegia izan liteke eta.

PTT zerbitzura konektatuta zaudenean, kanaleko deiak, taldeko deiak edo norabide bakarreko deiak egin edo jaso ditzakezu. Norabide bakarreko deiak dira pertsona bakarrari egiten zaizkionak.

Hizketan ari zarela, luze sakatu PTT tekla eta eutsi telefonoa pantaila ikusteko moduan. Amaitzen duzunean, askatu PTT tekla. Elkarrizketan, eskatzen duen lehenak hitz egiten du lehenengo. Hitz egiten ari dena isiltzen denean, PTT tekla sakatzen duen lehenak hitz egingo du hurrena.

Zure kontaktuen saioa zein egoeratan dagoen ikusteko, hautatu **Menú** > *Pulsar para hablar* > *Lista de contactos*. Zerbitzu hau sare-operadorearen edo zerbitzu-hornitzailearen araberakoa da, eta harpidetutako kontaktuen bakarrik erabil dezakete. ,  edo  ikurrek adierazten dute kontaktua harpidetuta dagoela eta saiorik ez duzula hasi PTT zerbitzuan eta kontaktua ezezaguna dela.  ikurrak adierazten du kontaktua bakean uztea nahi duela. Ezingo diozu deitu, baina deiari erantzuteko eskaria bidal diezaiokezu.

Kontaktu bat harpidetzeko, hautatu **Opciones** > *Suscribir contacto*, eta, kontaktu bat baino gehiago markatu baduzu, hautatu *Suscribir marcados*.

## Kanal-edo talde-deiak egitea

Kanal batera deitzeko, hautatu *Lista de canales* PTT menuan, joan nahi duzun kanalera eta sakatu PTT tekla.



*Guía* aukeratik talde bati deitzeko, hartzaileek PTT zerbitzura konektatuta egon behar dute. Hautatu **Menú** > *Guía* > *Grupos*, joan nahi duzun taldera eta sakatu PTT tekla.

## **Noranzko bakarreko deiak egitea**

PTT helbidea kontaktuen zerrendan sartu baduzu eta zerrenda horretatik noranzko bakarrari bakarreko deia egin nahi baduzu, aukeratu *Lista de contactos*. Nahi duzun kontakturaino joan eta sakatu PTT tekla.

Bestalde, *Guía*-tik ere kontaktua hauta dezakezu.

PTT kanalen zerrendatik noranzko bakarreko deia hasteko, hautatu *Lista de canales* eta joan nahi duzun kanalera. Hautatu **Miembros**, joan nahi duzun kontaktura eta sakatu PTT tekla.

Jasotako deiak itzultzeko eskaeren zerrendatik noranzko bakarreko dei bat egiteko, hautatu *Buzón Ilam. devuelto*. Joan nahi duzun kontaktura eta sakatu PTT tekla.

## **PTT deiak egitea hainbat hartzaileri**

Kontaktuen zerrendan hainbat PTT kontaktu hauta ditzakezu. Sarrerako deia jasotzen dute hartzaileek, eta onartu egin behar dute, parte hartu nahi badute.

Hautatu **Menú** > *Pulsar para hablar* > *Lista de contactos* eta markatu nahi dituzun kontaktuak. Deitzeko, sakatu PTT tekla. Onartzen duten kontaktuak pantailan bistaratuko dira.

## **PTT deiak jasotzea**

Tonu labur batek ohartarazten dizut sarrerako PTT dei bat duzula. Deitzen ari den pertsonaren informazioa bistaratzen da, adibidez, kanalaren izena edo ezizena (sare-zerbitzua).

Norazko bakarreko deiak daudenean ohartarazteko konfiguratu baduzu telefonoa, onartu edo ez onartu deia.

Solaskideren bat hitz egiten ari den bitartean, dei bati erantzuteko PTT tekla sakatzen baduzu, tonu bat entzun eta telefonoaren pantailan *En cola* azalduko da, PTT tekla sakatuta duzun bitartean.

PTT tekla sakatuta eduki, eta itxaron hitz egiten ari den pertsonak amaitu arte; gero, hitz egin ahal izango duzu.

## ■ Deia itzultzeko eskatzea

Norazko bakarreko deia egin baduzu eta erantzuten ez badu, pertsona horrek deia itzultzeko eskaera bidaltzeko aukera dago.

### Deia itzultzeko eskaera bidaltzea

Deiei erantzuteko eskaerak honela bidal daitezke:

- *Pulsar para hablar* menuaren kontaktuen zerrendatik deia itzultzeko eskaera bat bidaltzeko, hautatu *Lista de contactos*. Nahi duzun kontaktua hautatu, sakatu **Opciones** > *Enviar devol. de llamada*.
- *Guía*-tik deia itzultzeko eskaera bat bidaltzeko, bilatu kontaktua eta hautatu *Detalles*, joan Deitzeko sakatzea aukeraren helbideraino eta hautatu **Opciones** > *Enviar devol. de llamada*.
- *Pulsar para hablar* menuaren kanalen zerrendatik deia itzultzeko eskaera bat bidaltzeko, hautatu *Lista de canales* eta nahi duzun kanaleraino joan. Hautatu **Miembros**, joan nahi duzun kontakturaino, hautatu **Opciones** > *Enviar devol. de llamada*.
- *Pulsar para hablar* menuko deiari erantzuteko eskaeren zerrendatik deia itzultzeko eskaera bat bidaltzeko, hautatu *Buzón llam. devuelto*. Nahi duzun kontaktua hautatu, sakatu **Opciones** > *Enviar devol. de llamada*.

### Deia itzultzeko eskaera bati erantzutea

Deiak jasotzeko/egiteko egoeran, dei bati erantzuteko eskaera jasotzen duzunean, pantailan mezu hau bistaratuko da: *Petición de devolución de llamada recibida*. Hautatu **Ver**. Deiari erantzuteko jasotako eskaeren zerrenda bistaratuko da.

Noranzko bakarreko deia egiteko, sakatu PTT tekla.

Bidaltzaileari deiaren eskaera itzultzeko, sakatu **Opciones** > *Enviar devol. de llamada*.

Eskaera ezabatzeko, sakatu **Borrar**.

Bidaltzailearen PTT helbidea ikusteko, hautatu **Ver**.

Kontaktu berri bat gordetzeko edo PTT helbidea kontaktuari gehitzeko, hautatu **Opciones** > *Guardar como* o *Añadir al contacto*

## ■ Noranzko bakarreko kontaktuetara atxikitzea

Norazko bakarreko deia egiten diezun pertsonen izenak honela gorde ditzakezu:

Deitzeko sakatzea aukeraren helbide bat telefono-aurkibideko izen bati gehitzeko, bilatu kontaktua eta hautatu **Detalles** > **Opciones** > *Añadir detalle* > *Dirección PPH*.

- Deitzeko sakatzea aukerako kontaktuen zerrendan beste kontaktu bat gehitzeko, hautatu **Menú** > *Pulsar para hablar* > *Lista de contactos* > **Opciones** > *Añadir contacto*.
- Kanalen zerrendara kontaktu bat eransteko, konektatu PTT zerbitzura, hautatu *Lista de canales* eta joan nahi duzun kanalera. Hautatu **Miembros**, aukeratu zer kontakturen informazioa gorde nahi duzun eta hautatu **Opciones**. Kontaktu berri bat gehitzeko, hautatu *Guardar como*. PTT helbide bat *Guía*-ko izen bati esleitzeko, hautatu *Añadir al contacto*.

## ■ PTT kanalak

Kanal bati deitzen zaionean, kanaleko kide guztiek aldi berean entzuten dute deia.

Hiru PTT kanal mota daude:

- Canal abastecido – zerbitzu-hornitzaileak sortzen duen kanala.
- *Canal público* – beste pertsona batzuk gonbida ditzaketen kanaleko kide guztiak.
- *Canal privado* – kanalaren sortzaileak bidalitako gonbita jasotzen dutenak bakarrik sar daitezke kanal honetan.

## Kanalak gehitzea

Kanal publiko bat edo pribatu bat gehitzeko, hautatu **Menú** > *Pulsar para hablar* > *Añadir canal* eta editatu formularioko eremuen doikuntzak:

*Estado de canal:* – Hautatu *Activo* edo *Inactivo*.

*Apodo de canal:* – idatzi kanalean erabiliko duzun ezizena.

*Seguridad canal:* – Hautatu *Canal público* edo *Canal privado*

Taldeari gonbita bidaltzeko, hautatu **Sí** telefonoak hala eskatzen dizunean. Gonbita testu-mezu baten bidez edo infragorri bidez bidal daiteke.

Kanal baten helbidea eskuz idatzita sartzeko, hautatu **Menú** > *Pulsar para hablar* > *Añadir canal* > **Opciones** > *Editardir. manualmente*. Idatzi zerbitzu-hornitzaileak emandako kanalaren helbidea.

## Gonbidapenak jasotzea

Talde batera atxikitzeko gonbita jasotzen denean, pantailan mezu hau bistaratzen da: *Invitación de canal recibida:*

1. Gonbita eta kanalaren helbidea (taldea kanal pribatua ez bada) bidali duen kontaktua ikusteko, hautatu **Ver**.
2. Kanala telefonora gehitzeko, hautatu **Guardar**.
3. Kanalaren egoera ezartzeko, hautatu *Activo* edo *Inactivo*.

Gonbita ez onartzeko, hautatu **Ver** > **Descartar** > **Sí**.

## ■ PTTko doikuntzak

Bi PPT doikuntza-mota daude: zerbitzura konektatzeko doikuntzak eta erabiltzeko doikuntzak.

Sare-operadoreak edo zerbitzu-hornitzaileak emango dizkizu zerbitzura konektatzeko doikuntzak. Ikus Konfigurazioa doitzeko zerbitzua 11. orrialdean. Doikuntzak eskuz sar ditzakezu. Ikus Konfigurazioa, 64. orrialdean.

Zerbitzura konektatzeko doikuntzak aukeratzeko, hautatu **Menú** > *Pulsar para hablar* > *Ajustes configurac.* eta aukera hauetako bat:

*Configuración* —zerbitzu-hornitzaile bat *Predeterminados* edo *Configuración personal* gisa hautatzeko, Deitzeko sakatzea zerbitzurako. PPT zerbitzua onartzen duten konfigurazioak bakarrik bistaratzen dira.

*Cuenta*— konfigurazioko doikuntza aktiboetan PTT zerbitzuaren kontua hautatzeko.

Aukera hauek ere badituzu: *Nombre usuario de PPH, Alias predeterminado, Contraseña PPH, Dominioy Dirección del servidor.*

Erabili beharreko PTT doikuntzak editatzeko, hautatu **Menú** > *Pulsar para hablar* > *Ajustes de PPH* eta aukera hauetako bat:

*Llamadas 1 a 1* > *Activar* — telefonoan noranzko bakarreko deiak jaso ahal izateko. Noranzko bakarreko deiak egiteko, baina ez jasotzeko, hautatu *Desactivado*. Zerbitzu-hornitzaileak doikuntza horiek indargabetzen dituzten hainbat zerbitzu eskaini ditzake. Telefonoak noranzko bakarreko sarrerako deien berri dei-tonu baten bidez eman dezan konfiguratzeko, hautatu *Notificar*.

*Func. pred. de tecla PPH*— PTT teklaren lehenetsitako funtzioa hautatzeko. Teklak *Lista de contactos* edo *Lista de canales* ireki dezan edo kontaktu, kanal edo talde bati PTT dei bat egiteko.

*Mostr. estado inic. sesión* > *Sí* — saioaren hasierako egoera bidaltzeko.

*Estado de PPH en inicio* > *Sí* edo *Preguntar antes*— telefonoa piztutakoan automatikoki PTT zerbitzura konekta dadin konfiguratzeko telefonoa.

*PPH en el extranjero* — telefonoa tokioa ez den sare batean erabiltzen denean PTT zerbitzua aktibatze edo desaktibatze.

*Enviar mi dirección PPH* > *No*— deietan PTT helbidea ezkutatzeko.

# 14. Antolatzailea



## ■ Alarma

Alarmak ordu jakin batean jo dezan konfigura daiteke telefonoa. Hautatu **Menú** > *Organizador* > *Alarma*.

Alarma jartzeko, aukeratu *Hora de alarma*, sartu ordua eta hautatu **Aceptar**. Ordua zehaztuta dagoenean alarmaren ordua aldatzeko, hautatu *Activar*.

Telefonoa hautatutako asteko egun jakinetan alarmak jotzeko moduan konfiguratzeko, hautatu *Repetir alarma*. Alarmaren tonua hautatzeko edo alarma-tonu gisa irrati-kanal bat erabiltzeko, hautatu *Tono de alarma*. Alarma-tonu gisa irratia aukeratu baduzu, konektatu esku libreko eramangarria telefonoarekin. Telefonoak entzundako azken kanala erabiltzen du alarma-tonu gisa, eta bozgorailuaren bidez erreproduzitzen du. ML eramangarria deskonektatzen baduzu edo telefonoa itzaltzen baduzu, lehenetsitako alarma-tonuak joko du irratiaren orde.

Alarma zenbat aldiz errepikatuko den ezartzeko, hautatu *Tiempo repetición alarma* eta idatzi denbora.

## Alarma itzaltzea

Telefonoak abisu-tonu bat joko du eta pantailan *¡Alarma!* mezua eta ordua bistaratuko dira keinuka, telefonoa itzalita egon arren. Alarma geldiarazteko, aukeratu **Detener**. Telefonoari minutu batez ohar-tonua jotzen uzten badiozu edo **Repetir** aukeratzen baduzu, alarma *Tiempo repetición de alarma* aukeran definitutako denbora-tartean gelditzen da eta, gero, berriro jotzen du.

Telefonoa itzalita dagoela programaturiko alarma-ordua iristen bada, gailua automatikoki piztuko da eta alarma-tonua jotzen hasiko da. **Detener** aukeratzen baduzu, deiak egiteko gailua aktibatu nahi ote duzun galdetuko dizu. Aukeratu **No** gailua itzaltzeko, edo **Sí** deiak egin eta jasotzeko. Ez aukeratu **Sí** telefono mugikorra erabiltzeak interferentziak edo arriskuren batzuk sor baditzake.






## ■ Agenda

Hautatu **Menú** > *Organizador* > *Agenda*.


Hileko egunaren inguruko koadroak adierazten du uneko data. Egun horretarako oharren bat konfiguraturuta badago, beltzez agertuko da. Eguneko oharrak ikusteko, hautatu **Ver**. Astea ikusteko, hautatu **Opciones** > *Vista de la semana*. Agendako ohar guztiak ezabatzeko, hautatu hilabeteka edo astea bistaratzea, eta sakatu **Opciones** > *Borrar notas*.

Agendako eguneko bistako beste aukera batzuk hauek dira: oharra sortu, ezabatu, aldatu, mugitu edo errepikatu; oharra beste egun batera kopiatu; ohar bat Bluetooth teknologiaren bidez edo infragorri bidez bidali, edo oharra beste telefono bateragarri bateko agendara testu- edo multimedia-mezu gisa bidali. *Ajustes* aukeran, hauek ere defini ditzakezu: data, ordua, ordu-eremua, dataren eta orduaren formatua, dataren bereiz-ikurra, lehenetsitako bistaratzea edo asteko lehen eguna. *Borrar notas automático* aukerak, denbora-tarte jakin bat pasatu ondoren, ohar zaharrak automatikoki ezabatzeko moduan konfiguratzeko aukera ematen du.

### Agendako oharrak sortzea

Hautatu **Menú** > *Organizador* > *Agenda*. Joan nahi duzun data, hautatu **Opciones** > *Crear una nota* eta ohar-mota hauetako bat:  *Reunión*,  *Llamar a*,  *Cumpleaños*,  *Memorándum* o  *Nota de aviso*. Bete oharraren eremuak.

### Oharren alarma

Telefonoak soinu bat emititzen du eta pantailan oharra agertzen da. Pantailan dei-ohar bat azaltzen denean , sakatu deitzeko tekla, azaltzen den zenbakira deitzeko. Alarma geldiarazi eta oharra ikusteko, aukeratu **Ver**. Alarma 10 minutuz gerarazteko, aukeratu **Repetir**.

Alarma oharra irakurri gabe gelditzeko, aukeratu **Salir**.

## ■ Zereginen zerrenda

Zeregin bat duen oharra gordetzeko, hautatu **Menú** > *Organizador* > *Lista tareas*.

Erantsitako oharrrik ez badago oharra sortzeko, hautatu **Añadir**; bestela, hautatu **Opciones** > *Añadir*. Idatzi oharra, hautatu **Guardar** eta adierazi lehentasuna, definitu muga-data eta oharraren alarman.

Oharra bistaratzeko, joan oharrera eta aukeratu **Ver**.

Hautatutako oharra edo eginda bezala markatutako ohar guztiak ere ezaba daitezke. Oharrak lehentasunaren edo mugaegunaren arabera ordena daitezke, ohar bat testu- edo multimedia-mezu gisa beste telefono batera bidal daiteke eta ohar bat agendako ohar gisa gorde edo agendara sar daiteke.

Oharra irakurritakoan, mugaeguna eta lehentasuna aldatzeko edo eginda bezala markatzeko aukera duzu.

## ■ Oharrak

Oharrak idazteko eta bidaltzeko, hautatu **Menú** > *Organizador* > *Notas*.

Erantsitako oharrrik ez badago oharra sortzeko, hautatu **Añadir**; bestela, hautatu **Opciones** > *Crear una nota*. Idatzi oharra eta aukeratu **Guardar**.

Oharra ezabatu edo aldatu egin daitezke. Ohar bat aldatzean, testu-editoretik atera ahal izango zara aldaketarik gorde gabe. Oharra gailu bateragarrietara bidal dezakezu, infragorrien, Bluetooth teknologiaren, testu-mezuen edo multimedia-mezuen bidez. Oharra testu-mezu gisa bidaltzeko luzeegia bada, telefonoak oharrean zenbat karaktere ezabatu behar dituzun adieraziko dizu.

## ■ Kalkulagailua

Telefonoaren kalkulagailuak batuketak, kenketak, biderketak, zatiketak eta berreketak egiten ditu, eta, gainera, erro karratua aurkitzen du eta moneta-bihurketak egiten ditu.



**Oharra:** kalkulagailuak doitasun mugatua du, kalkulu errazak egiteko diseinatuta dago.



Hautatu **Menú** > *Organizador* > *Calculadora*. 0 bistaratzen denean, idatzi eragiketaren lehen zenbakia. Sakatu ... hamarrenen koma jartzeko. Hautatu **Opciones** > *Sumar, Restar, Multiplicar, Dividir, Cuadrado, Raíz cuadrada* edo *Cambiar signo*. Sartu bigarren zenbakia. Emaitza ikusteko, aukeratu **Resultado**. Eragiketa berri bat egiteko, luze sakatu **Borrar** tekla.

## Moneta-bihurketa

Hautatu **Menú** > *Organizador* > *Calculadora*. Truke-tasa gordetzeko, aukeratu **Opciones** > *Tipo de cambio*. Aukeratu pantailan agertzen diren aukeretako bat. Sartu truke-tasa, sakatu # tekla koma hamartarra sartzeko eta aukeratu **Aceptar**. Truke-tasa memorian gordeko da, beste batez ordezkatu arte. Moneta-bihurketa egiteko, sar ezazu bihurtu nahi duzun kopurua, eta aukeratu **Opciones** > *A nacional* edo *A extranjera*.



**Oharra:** oinarrizko moneta aldatzen baduzu, truke-tasa berriak sartu beharko dituzu, aurreko truke-tasa guztiak ezabatu egiten baitira.

## ■ Atzerako kontaktaren tenporizadorea

Hautatu **Menú** > *Organizador* > *Cuenta atrás*. Idatzi alarmaren ordua (orduak, minutuak eta segundoak); ondoren, sakatu **Aceptar**. Nahi baduzu, idatzi ohar bat atzera-kontakteta amaitzen denean ager dadin. Atzera-kontaktetako tenporizadorea hasteko, aukeratu **Iniciar**. Atzera-kontaktetaren denbora aldatzeko, aukeratu *Cambiar tiempo*. Tenporizadorea geldiarazteko, aukeratu *Detener temporizador*.

Alarma jotzeko ordua telefonoa deiak jasotzeko/egiteko moduan dagoela iristen bada, tonu bat entzungo da eta testu-oharra keinuka bistaratuko da, idatzita badago; bestela, *Terminó la cuenta atrás* esaldia bistaratuko da. Sakatu edozein tekla alarma geldiarazteko. Teklarik sakatzen ez baduzu, alarma automatikoki geldituko da 30 segundo pasatu ondoren. Alarma geldiarazi eta idatzitako oharra ezabatzeko, aukeratu **Salir**. Atzerako kontaktetako tenporizadorea abiarazteko, sakatu **Reiniciar**.

## ■ Kronometroa

Kronometroarekin denbora neur dezakezu, eta tarteko denborak eta fase bakoitzeko denborak izan ditzakezu. Denbora neurtzen duen bitartean, telefonoaren gainerako funtzioak ere erabil ditzakezu. Kronometroak bigarren mailan funtzionatzea nahi baduzu, sakatu deia amaitzeko tekla.

Kronometroa edo funtzio hau beste funtzioekin batera erabiliz gero, bateria gehiago xahutzen da eta gutxiago irauten du.

Hautatu **Menú** > *Organizador* > *Cronómetro* eta aukera hauetakoren bat:

*Tiempo dividido*— denbora partzialak neurtzeko. Denbora neurtzen hasteko, aukeratu **Iniciar**. Aukeratu **Dividido** denbora partzial bat jaso nahi duzun bakoitzean. Denboraren neurketa gerarazteko, aukeratu **Detener**.

Tarteko denbora gordetzeko, aukeratu **Guardar**.

Berrito denbora neurtzen hasteko, aukeratu **Opciones** > *Iniciar*. Hartutako denbora berria aurrekoari gehitzen zaio. Jasotako denbora gorde gabe kronometroa zeroan jartzeko, hautatu *Reiniciar*.

Kronometroak bigarren mailan funtzionatzea nahi baduzu, sakatu deia amaitzeko tekla.

*Tiempo por fase* — denborak faseka hartzeko. Kronometroak bigarren mailan funtzionatzea nahi baduzu, sakatu deia amaitzeko tekla.

*Continuar*, bigarren mailan ezarritako denbora ikusteko.

*Mostrar último* — neurtutako azken denbora ikusteko, kronometroa zeroan jartzen ez bada.

*Ver tiempos* edo *Borrar tiempos*— gordetako denborak ikusteko edo ezabatzeko.

# 15. Aplikazioak



## ■ Jokoak

Gailuan instalatutakoez gain, microSD txartelak beste joko batzuk ere eduki ditzake.

### Jokoak abiaraztea

Aukeratu **Menú** > *Aplicaciones* > *Juegos*. Joan nahi duzun jokoraino, eta hautatu **Abrir** edo sakatu deitzeko tekla.

Joko batekin lotutako aukerak kontsultatzeko, ikus Aplikazioen aukerak, 93. orrialdean.

### Jokoak deskargatzea

Aukeratu **Menú** > *Aplicaciones* > **Opciones** > *Descargas* > *Descargas juegos*. Eskura dituzun gogokoan zerrenda bistaratuko da; ikus Gogokoak, 97. orrialdean.



**Garrantzitsua:** instalatu eta erabili programa kaltegarrien aurkako babes eta segurtasun egokiak eskaintzen dituzten iturrietatik datozen aplikazioak eta softwareak bakarrik.

### Jokoen doikuntzak

Jokoen soinuak, argia eta bibrazioa definitzeko, aukeratu **Menú** > *Aplicaciones* > **Opciones** > *Ajustes aplicaciones*.

## ■ Bilduma

Telefonoaren softwareak hainbat Java aplikazio ditu.

### Aplikazio bat abiaraztea

Hautatu **Menú** > *Aplicaciones* > *Colección*. Joan nahi duzun aplikazioraino, eta hautatu **Abrir** edo sakatu deitzeko tekla.

## Aplikazioaren aukerak

*Borrar*— aplikazioa telefonotik ezabatzeko.

*Detalles*— aplikazioari buruzko informazio osagarria izateko.

*Actualizar versión* — *Web*-etik deskargatzeko aplikazioaren bertsio berria eskuragarri dagoen egiaztatzeko (sare-zerbitzua).

*Página web*— Interneteko orri batetik aplikazioari buruzko informazio xeheagoa edo datu osagarriak emateko (sare-zerbitzua). Aplikazioarekin Interneteko helbide bat eman bada bakarrik bistaratuko da.

*Acceso a aplicación*— aplikazioaren sarerako sarbidea sarera mugatzeko. Zenbait kategoria bistaratu dira. Hautatu maila bakoitzean erabilgarri dauden baimenetako bat

## Aplikazioa deskargatzea

Telefonoak Java J2ME aplikazioak onartzen ditu. Deskargatu aurretik, ziurta ezazu aplikazioa telefonoarekin bateragarria dela.



**Garrantzitsua:** instalatu eta erabili bakarrik programa kaltegarrien aurkako babes eta segurtasun egokiak eskaintzen dituzten iturrietatik datozen aplikazioak eta softwareak.

Hainbat modutara deskarga ditzakezu Java™ aplikazio berriak:

- Hautatu **Menú** > *Aplicaciones* > **Opciones** > *Descargas* > *Descargas de aplicaciones* eta gogokoen zerrenda bistaratuko da. Ikus Gogokoak, 97. orrialdean.  
Kontsultatu zerbitzu-hornitzailearekin zerbitzuen erabilgarritasuna, prezioak eta tarifak.
- Erabili jokoak deskargatzeko funtzioa. Ikus Jokoak deskargatzea, 92. orrialdean.
- Aplikazioak telefonoan deskargatzeko, erabili Nokiaren PC Suite-ren Nokia aplikazioen instalatzailea.

Litekeena da Nokiarekin loturarik ez duten toki batzuen helbideak kargatuta izatea telefonoan. Nokiak ez ditu gune horiek bermatzen eta babesten. Horietara sartzen bazara, Interneteko beste edozein lekutan hartuko zenituzkeen ardurak berak hartu beharko dituzu segurtasunari eta edukiari dagokienez.

## 16. Web-a



Telefonoaren nabigatzailearekin, Internet mugikorreko hainbat zerbitzu erabil ditzakezu.



**Garrantzitsua:** Kalte egin dezaketen programen aurkako babes eta segurtasun egokia eskaintzen dizuten konfiantzako zerbitzuak bakarrik erabili.

Kontsultatu zerbitzu horien erabilgarritasuna, prezioak eta tarifak eta jarraibideak, zerbitzu-hornitzaileari.

Telefonoaren nabigatzailearekin, Wireless Mark-Up Language-k (WML) edo extensible HyperText Mark-up Language-k (XHTML) erabiltzen dituzten zerbitzuak ikusi ahal izango dituzu haien orrietan. Itxura pantailaren tamainaren arabera alda daiteke. Agian ez dituzu ikusiko Interneteko orrietako xehetasun guztiak.

### ■ Zerbitzuetara sartzeko eta horiek erabiltzeko oinarrizko prozedura

1. Gorde itzazu erabili nahi duzun zerbitzura sartzeko beharrezko zerbitzu-doikuntzak. Ikus Nabigazioa konfiguratzea, 94. orrialdean.
2. Ezarri konexioa zerbitzuarekin. Ikus Zerbitzu batera konektatzea atala, 95. orrialdean.
3. Hasi zerbitzuaren orrietan nabigatzen. Ikus Orrietan nabigatzea 95. orrialdean.
4. Nabigatzeari utzi nahi diozunean, deskonektatu zerbitzutik. Deskonektatzeko, ikus Nabigazioan dauden aukerak, 96. orrialdean.

### ■ Nabigazioa konfiguratzea

Nabigatzeko konfigurazio-doikuntzak jaso ditzakezu, erabili nahi duzun zerbitzua eskaintzen duen sare-operadoreak edo zerbitzu-hornitzaileak bidalitako konfigurazio-mezu batean. Ikus Konfigurazioa doitzeko zerbitzua 11. orrialdean.

Konfigurazio-doikuntza guztiak eskuz ere sar ditzakezu. Ikus Konfigurazioa, 64. orrialdean.

## ■ Zerbitzu batera konektatzea

Lehenik, ziurtatu erabili nahi duzun zerbitzuaren konfigurazio-doikuntzak aktibatuta daudela.

1. Zerbitzura konektatzeko doikuntzak aukeratzeko, hautatu **Menú** > *Web* > *Ajustes* > *Ajustes de configuración*.
2. Aukeratu *Configuración*. Nabigazio-zerbitzua onartzen duten konfigurazioak bakarrik bistaratuko dira. Hautatu zerbitzu-hornitzaile bat, *Predeterminados* edo *Configuración personal* nabigatzeko. Ikus Nabigazioa konfiguratzea, 94. orrialdean.
3. Hautatu *Cuenta* eta konfigurazio-doikuntza aktiboetan dagoen nabigazio-zerbitzuaren kontu bat.
4. Hautatu *Mostrar ventana de terminal* > *Sí*, intraneteko konexiorako erabiltzaile-autentifikazioa eskuz egiteko.



Gero, konektatu zerbitzura honela:

- Aukeratu **Menú** > *Web* > *Página de inicio*; edo, deiak egiteko/jasotzeko egoeran, luze sakatu **O** tekla.
- Zerbitzuaren gogoko bat aukeratzeko, hautatu **Menú** > *Web* > *Favoritos*.
- Azken URLa aukeratzeko, hautatu **Menú** > *Web* > *Última direcc. web*.
- Zerbitzuaren helbidea idazteko, hautatu **Menú** > *Web* > *Ir a dirección*. Sartu zerbitzuaren helbidea eta hautatu Aceptar.

## ■ Orrietan nabigatzea

Zerbitzu batekin konektatu ondoren, haren orrietan nabigatzen has zaitezke. Telefono-teklen funtzioa zerbitzuen arabera alda daiteke.

Segitu pantailan agertuko diren jarraibideei. Informazio gehiago lortzeko, jarri harremanetan zure zerbitzu-hornitzailearekin.

Datu-paketeak datu-garraiatzaile gisa hautatu badituzu,  ikurra azaltzen da pantailaren goiko ezkerreko aldean, nabigatzen ari zaren bitartean. Datu-paketeen konexio batean dei bat edo testu-mezu bat jasotzen baduzu edo dei bat egiten baduzu,  ikurra azaltzen da pantailaren goiko eskuineko aldean, datu-paketeen konexioa eten egin dela (zain) adierazteko. Deia egin ondoren, telefonoa datu-paketeen konexioarekin berriz konektatzen saiatzen da.

## Telefonoko teklekin nabigatzea

Orrian batetik bestera ibiltzeko, mugitu edozein norabidetan.

Nabarmendutako elementu bat hautatzeko, sakatu deitzeko tekla edo aukeratu **Selecc.**

Letrak eta zenbakiak sartzeko, sakatu **0-9** bitarteko tekla. Karaktere bereziak xertatzeko, sakatu **\***.

## Nabigazioan dauden aukerak

Hauta ezazu aukera hauetako bat: *Página de inicio* – hasierako orrira itzultzeko.

*Accesos directos* – orriko aukera espezifikoen zerrenda berri bat irekitzeko. Aukera hau orriak zuzeneko sarbidea badu bakarrik egongo da.

*Añadir favorito* – orria gogokoen karpetan gordetzeko.

*Favoritos* – gogokoen zerrendara sartzeko Ikus Gogokoak, 97. orrialdean.

**Opciones de página** – aktibo dagoen orriko aukeren zerrenda ikusteko.

*Historial* – erabilitako azken URLen zerrenda ikusteko.

*Otras Opciones* – beste aukera batzuen zerrenda ikusteko.

*Volver a cargar* – berriro kargatzeko eta uneko orria eguneratzeko.

*Abandonar* – zerbitzu batetik deskonektatzeko.

Zerbitzu-hornitzaileak aukera gehiago eskaini ditzake.

## Zuzeneko deia

Nabigatzen ari zarenean sar zaitezkeen funtzioak onartzen ditu arakatzailleak. Ahots-dei bat egin dezakezu, DTMF tonuak bidal ditzakezu ahots-dei bat egiten ari zaren bitartean, eta orri batetik izen eta telefono-zenbakiak gorde ditzakezu.

## ■ Favoritos

Orrien helbideak telefonoaren memorian gorde daitezke gogokoenen artean.

1. Nabigatzen ari bazara, hautatu **Opciones** > *Favoritos*; deiak egiteko/jasotzeko egoera badago, hautatu **Menú** > *Web* > *Favoritos*.
2. Joan gogoko batera eta aukeratu; bestela, sakatu deitzeko tekla, gogokoarekin lotutako orriarekin konektatzeko.
3. Aukeratu **Opciones** gogokoa ikusi, editatu, ezabatu edo bidaltzeko, berri bat sortzeko edo karpeta batean gordetzeko.

Litekeena da Nokiarekin loturarik ez duten toki batzuen helbideak kargatuta izatea telefonoan. Nokiak ez ditu gunehorietan bermatzen eta babesten. Horiertara sartzen bazara, Interneteko beste edozein lekutan hartuko zenituzkeen ardura berak hartu beharko dituzu segurtasunari eta edukari dagokienez.

## Gogokoak jasotzea

Gogoko bat jasotzen duzunean (gogoko gisa bidalita), pantailan *1 favorito recibido* mezua agertuko da. Gordetzeko, hautatu **Mostrar** > **Guardar**.

## ■ Itxura-doikuntzak

Nabigatzen ari zaren bitartean, hautatu **Opciones** > *Otras Opciones* > *Ajustes aspecto*; bestela, deiak jasotzeko/egiteko egoeran, aukeratu **Menú** > *Web* > *Ajustes* > *Ajustes de aspecto* eta aukera hauetako bat:

*Ajuste de líneas de texto* > *Activar* – testuak pantailaren hurrengo lerroa segitzeko. *Desactivar* hautatzen baduzu, testua laburtu egingo da.



*Tamaño de fuente* > *Diminuta, Pequeñas* edo *Medianas* – letra-tamaina ezartzeko.

*Mostrar imágenes* > *No* – orriko irudiak ezkutatzeko. Hala, azkarrago nabiga daiteke irudi asko dituzten orrietatik.

*Avisos* > *Aviso de conex. no segura* > *Sí* – nabigatu bitartean, konexio seguru batetik seguru ez den beste batera igarotzean telefonoak jakinarazteko.

*Avisos* > *Aviso de els. no seguros* > *Sí* – orri seguru batean seguru ez den elementuren bat dagoenean telefonoak ohartarazteko. Kontuan izan ohartarazpen horiek ez dutela konexio seguru bermatzen. Informazio gehiago lortzeko, ikus Nabigatzailearen segurtasuna, 100. orrialdean.

*Codificación de caracteres* > *Codificación de contenido* – nabigatzailearen orrietako edukietarako kodifikazioa hautatzeko.

*Codificación de caracteres* > *Dirs. web Unicode (UTF-8)* > *Activar* – telefonoak URL bat bidal dezan UTF-8 kodifikazio gisa. Baliteke doikuntza hori behar izatea, beste hizkuntza batean sortutako web orri batean sartzean.

*Tamaño de la pantalla* > *Completo* edo *Pequeño* – pantailako antolamendua zehazteko.

*JavaScript* > *Activar* – Javaren scriptak aktibatzeke.

## ■ Segurtasun–doikuntzak

### Cookieak

Orri batek telefonoaren cache memorian gordetako zenbait datu dira cookieak. Cache memoria ezabatu arte gordetzen dira cookie horiek. Ikus Cache memoria, 100. orrialdean.

Nabigatzen ari bazara, hautatu **Opciones** > *Otras Opciones* > *Seguridad* > *Ajustes de cookies*; deiak egiteko/jasotzeko egoeran badago, hautatu **Menú** > *Web* > *Ajustes* > *Ajustes de seguridad* > *Cookies*. Aukeratu *Permitir* edo *Rechazar*, telefonoak cookieak jasotzea ahalbidetzeko edo eragozteko.

## Scriptak konexio seguruetan

Scriptak orri seguru batetik exekutatzeko baimena eman nahi duzun hauta dezakezu. Telefonoak WML scriptak onartzen ditu.

Nabigatzen ari bazara, scriptak onartzeko, hautatu **Opciones** > *Otras Opciones* > *Seguridad* > *Ajustes de WMLScripts*; deiak egiteko/jasotzeko egoeran badago, hautatu **Menú** > *Web* > *Ajustes* > *Ajustes de seguridad* > *WMLScripts en conex. seg.* > *Permitir*.

## ■ Deskargatzeko doikuntzak

*Galerían* deskargatutako fitxategi guztiak automatikoki gordetzeko, hautatu **Menú** > *Web* > *Ajustes* > *Ajustes de descarga* > *Almacenam. automático* > *Activado*.

## ■ Zerbitzuko sarrerako postontzia

Telefonoak zure zerbitzu-hornitzaileak igorritako zerbitzu-mezuak (hedapen-mezuak) jaso ditzake (sare-zerbitzua). Zerbitzu-mezuak jakinarazpenak dira (esate baterako, berri-tituluak), eta testu-mezu bat edo zerbitzu baten helbidea izan ditzakete.

Deiak egiteko/jasotzeko moduan, zerbitzu-mezu bat jasotzean *Buzón de servicio*-ra sartzeko, hautatu **Mostrar. Salir** hautatzen baduzu, mezua *Buzón de servicio*-ra joango da. Geroago *Buzón de servicio*-ra sartzeko, aukeratu **Menú** > *Web* > *Buzón de servicio*.

Nabigatzen ari zarela *Buzón de servicio*-ra sartzeko, aukeratu **Opciones** > *Otras Opciones* > *Buzón entrada de servicio*. Joan mezura, eta nabigatzailea aktibatzeke eta markatutako edukia deskargatzeko, aukeratu **Recuper.** Zerbitzuaren jakinarazpenari buruzko informazio zehatza ikusteko edo mezua ezabatzeko, aukeratu **Opciones** > *Detalles edo Borrar*.

## Zerbitzuko sarrerako postontziaren doikuntzak

Hautatu **Menú** > *Web* > *Ajustes* > *Ajs. buzón entradaservic.*

Zerbitzu-mezua jaso nahi duzun edo ez definitzeko, aukeratu *Mensajes de servicio* > *Activar* edo *Desactivar*.

Zerbitzu-hornitzaileak baimendutako eduki-egileen zerbitzu-mezuak bakarrik jasotzeko, hautatu *Filtro de mensajes* > *Activar*. Baimendutako eduki-egileen zerrenda ikusteko, hautatu *Canales seguros*.

Deiak egiteko/jasotzeko egoeran, zerbitzu-mezu bat jasotzen baduzu, telefonoak automatikoki nabigatzailea aktiba dezan, hautatu *Conexión automática* > *Activar*. *Desactivar* hautatzen baduzu, zerbitzu-mezu bat jasotzean, telefonoak nabigatzailea aktibatuko du *Recuper*. hautatzen baduzu soilik.

## ■ Cache memoria

Cachea tarteko memoria da, datuak aldi baterako gordetzeko erabiltzen dena. Pasahitza eskatzen duen informazio konfidentzialera sartzen saiatzeko bazara edo sartzen bazara, hustu telefonoaren cachea erabiltzen duzun bakoitzean. Sartu zareneko informazioa edo zerbitzuak cachean jasotzen dira.

Nabigatzen ari bazara, cachea husteko, hautatu **Opciones** > *Otras Opciones* > *Borrar la caché*; deiak egiteko/jasotzeko egoeran, hautatu **Menú** > *Web* > *Borrar la caché*.

## ■ Nabigatzailearen segurtasuna

Segurtasuneko funtzioak beharrezkoak izan daitezke zerbitzu batzuetarako, adibidez, bankuko zerbitzuetarako edo telefono bidezko erosketa-zerbitzuetarako. Horrelako konexioetarako segurtasun-ziurtagiriak behar dira, eta, agian, SIM txartelean erabilgarri egon daitekeen segurtasun-modulu bat. Informazio gehiago lortzeko, jarri harremanetan zure zerbitzu-hornitzailearekin.

## Segurtasun-modulua

Segurtasun-moduluak segurtasun-zerbitzuak hobetzen ditu, nabigatzaileko konexioa behar duten aplikazioetarako, eta sinadura digitala erabiltzeko aukera ematen du. Segurtasun-moduluak ziurtagiriak eta pasahitz publiko eta pribatuak izan ditzake. Zerbitzu-hornitzailea arduratuko da ziurtagiriak segurtasun-moduluan gordetzeaz.

Segurtasun-moduluaren doikuntzak ikusteko edo aldatzeko, hautatu **Menú** > *Ajustes* > *Ajustes seguridad* > *Ajustes módulo seguridad*.

## Ziurtagiriak




**Garrantzitsua:** ziurtagiriak erabiltzeak murriztu egiten ditu urruneko konexioei eta software-instalazioei lotutako arriskuak, baina behar bezala erabili behar dira segurtasun gehigarri hori benetan aprobetxatzeko. Ziurtagiri bat egoteak, berez, ez du babesik ematen. Ziurtagiri-administratzaileak ziurtagiri zuzenak, benetakoak edo fidagarriak izan behar ditu segurtasun gehigarria izateko. Ziurtagiriak iraupen mugatua dute. Certificado caducado edo Certificado no válido testua agertzen bada baliozkoa izan behar lukeen arren, egiaztatu telefonoaren uneko ordua eta data zuzenak direla.

Ziurtagiriaren edozein balio aldatu aurretik, ziurtatu haren jabea konfiantza osokoa dela eta benetan zerrendan agertzen den jabearena dela.

Hiru ziurtagiri-mota daude: zerbitzariaren ziurtagiriak, baimen-ziurtagiriak eta erabiltzaile-ziurtagiriak. Ziurtagiri horiek zerbitzu-hornitzaileari eska diezazkiokezu. Halaber, zerbitzu-hornitzaileak autoritate- eta erabiltzaile-ziurtagiriak gorde ditzake segurtasun-moduluan.

Telefonoan deskargatutako autoritate- edo erabiltzaile-ziurtagirien zerrendak ikusteko, hautatu **Menú** > *Ajustes* > *Ajustes seguridad* > *Certificados de autoridad* edo *Certificados de usuario*.



Konexio batean,  bistaratuko da telefonoaren eta eduki-zerbitzariaren arteko transmisioa kodetuta badago.

Segurtasun-ikonoak ez du esan nahi pasabidearen eta eduki-zerbitzariaren (eskatutako baliabidea biltegitratzen duen lekua) arteko datuen transmisioa ziurra denik. Zerbitzu-hornitzaileak pasabidearen eta edukien zerbitzariaren arteko datu-transmisioa ziurtatzen du.

## Sinadura digitala

Telefonoarekin sinadura digitala sor daiteke, betiere zure SIM txartelak segurtasun-modulu bat badu. Sinadura digitalak faktura, kontratu edo beste dokumentu batean egiten den sinaduraren balio berbera du.

Sinadura digitala erabiltzeko, aukeratu esteka bat orri batean (adibidez, erosi nahi duzun liburuaren izenburua eta prezioa). Sinatu beharreko testua azalduko da, eta zenbatekoa eta data izan ditzake.

Egiaztatu goiburukoan *Leer* testua jartzen duela eta sinadura digitalaren ikonoa   agertzen dela.

Sinadura digitalaren ikonoa agertzen ez bada, horrek esan nahi du segurtasun-baldintzak ez direla betetzen, eta, beraz, ez da komeni sinadura PINa edo antzeko datu pertsonalik sartzea.

Testua sinatzeko, irakurri ongi lehenengo eta, gero, aukeratu **Firmar**.

Baliteke testuak hainbat pantaila betetzea. Beraz, irakurri testua oso-osorik (jaitsi pantailan zehar) sinatu aurretik.

Hautatu erabili nahi duzun erabiltzaile-ziurtagiria. Sartu sinaduraren PINa (ikus *Sarbide-kodeak*, 10. orrialdean) eta hautatu **Acceptar**. Sinadura digitalaren ikonoa desagertu egingo da eta, agian, zerbitzuak erosketa egin duzula berretsiko dizu.

## 17. SIM zerbitzuak



Litekeena da SIM txartelak zerbitzu osagarriak eskaintzea.

SIM txartelak onartzen badu bakarrik sar zaitezke menu horretan. Menuaren izena eta edukia eskura dauden zerbitzuen menpe daude.



**Oharra:** SIM zerbitzuen erabilgarritasunari, tarifei eta erabilerari buruzko xehetasun gehiago lortzeko, jarri harremanetan SIM txartelaren banatzailearekin, sare-operadorearekin, zerbitzu-hornitzailearekin edo bestelako hornitzaile batekin.

SIM zerbitzuak erabiltzean sarearekin trukaturako berrespen-mezuak bistaratzeko, hautatu **Menú** > *Ajustes* > *Ajustes del teléfono* > *Confirmar accs. serv. SIM* > *Sí*.

Zerbitzu horietara sartzeak fakturatuko diren testu-mezuak igortzea edo telefono-dei bat egitea ekar dezake.

## 18. PCrako konektagarritasuna

---

Telefonoa USB datu-kableen konexio baten bidez, infragorri bidez edo Bluetooth haririk gabeko teknologia baten bidez PC bateragarri batera konektatuta dagoenean, Internetera sar daiteke. PCra konekta daitezkeen aplikazio ugari eta datu-komunikazio ugari erabil ditzake telefonoak.

### ■ Nokia PCSuite

Nokia PC Suite-rekin, aurkibidea, agenda, oharrak eta zereginen oharrak sinkroniza ditzakezu, telefonoaren eta PC bateragarriaren edo urruneko Internet zerbitzari baten artean (sare-zerbitzua). [www.nokia.com/support](http://www.nokia.com/support) web orrian PC Suite softwarea eta informazio gehiago eskura ditzakezu.

### ■ EGPRS, HSCSD, CSD eta WCDMA

GPRS hobetua (EGPRS), GPRS (General Packet Radio Service), CSD (Circuit Switched Data) *Datos GSM*, HSCSD (High Speed Circuit Switched Data) eta PCSD (Packet and Circuits Switched Data) WCDMA datu-zerbitzuak erabil daitezke telefonoarekin.

Datu-zerbitzuen erabilgarritasunari buruzko informazioa lortu nahi baduzu edo haietara harpidetu nahi baduzu, jarri harremanetan zure sare-operadorearekin edo zerbitzu-hornitzailearekin.

HSCSD zerbitzuek ahots-deiek edo datu-dei arruntek baino batera gehiago kontsumitzen dute. Hala, baliteke telefonoa kargagailura konektatu behar izatea datu-transferentziaren bat egin behar duzunean.

Ikus Datu-paketeen doikuntzak, 58. orrialdean.

## ■ Datuak komunikatzeko aplikazioak

Datu-komunikazioen aplikazioei buruzko informazioa eskuratzeko, kontsultatu dagokion aplikazioarekin emandako dokumentazioa.

Komeni da ordenagailuarekin konektatuta dagoen bitartean telefono-deirik ez egitea eta deiei ez erantzutea, eragiketa eten egin baitaiteke.

Datu-deietan errendimendu hobea lortzeko, jarri telefonoa gainazal egonkor batean, teklatura beherantz duela. Datu-dei batek irauten duen bitartean, ez mugitu telefonoa eta ez eduki eskuetan.



## 19. Bateriari buruzko informazioa

---

### ■ Kargatzea eta deskargatzea

Telefonoa elikatu egiten da, berriz kargatzen den bateria baten bidez. Bateria baten errendimendu egokia bi edo hiru aldiz erabat kargatu eta deskargatu ondoren soilik lortzen da. Bateria sarritan karga eta deskarga daiteke, baina denborarekin gastatu egingo da. Hitz egiteko denbora eta deiak jasotzeko/egiteko denbora normalean baino laburragoak badira, aldatu bateria. Erabili Nokiak onartutako bateriak soilik, eta kargatu bateriak Nokiak gailu honentzat onartutako kargagailuak erabiliz.

Ordezko bateria bat erabiltzen duzun lehen aldian, edo bateria denbora luzez erabili gabe egon bada, baliteke kargagailua konektatu behar izatea, eta, gero, deskonektatu eta berriz konektatu behar izatea, bateria kargatzen has dadin.

Deskonektatu kargagailua entxufetik eta telefonotik erabili behar ez baduzu. Bateria erabat kargatuta dagoenean, kendu kargagailutik, gehiegi kargatzeak iraupena murrizt baitezake. Guztiz kargatuta dagoen bateria erabiltzen ez bada, bateria deskargatu egiten da denbora jakin baten ondoren.

Bateria erabat deskargatuta badago, minutu batzuk pasatuko dira pantailan karga-adierazlea agertu arte edo deia egin ahal izan arte.

Erabili bateria diseinatu zuten helbururako bakarrik. Ez erabili inoiz kargagailua edo bateria hondatuta badaude.

Ez egin zirkuitulaburrik bateriari. Zirkuitulaburra gerta liteke objektu metaliko batek –txanpon bat, klip bat edo boligrafo bat– zuzenean konektatzen baditu bateriaren terminal positiboa (+) eta negatiboa (-). (Bateriaren banda metalikoak dira.) Hori gerta liteke, adibidez, patrikan edo poltsan beste bateria bat baduzu. Terminalen zirkuitulaburrak bateria edo horri konektaturiko objektua honda ditzake.

Bateria leku hotzetan edo beroetan uzten baduzu, esate baterako, udan edo neguan itxita dagoen ibilgailuan, bateriaren ahalmena eta iraupena murriztu egingo dira. Eduki bateria 15-25 °C-an (59-77 °F). Baliteke, bateria hotzegi edo beroegi badago, telefonoak denboraldi batean ongi ez funtzionatzea, baita erabat kargatuta badago ere. Izozte-puntuaren azpitik dauden tenperaturek bereziki mugatzen dute bateriaren errendimendua.

Ez bota bateriak sutara, balio ez dutenean, lehertu egin baitaitezke. Bestalde, bateriak

leheratu egin daitezke, hondatuta badaude.

Bete tokiko araudia, erabilitako bateriak botatzeko garaian. Mesedez, birziklatu ahal den guztietan. Ez bota bateriak etxeko zakarrontzira.



## ■ Nokia bateriak autentifikatzeko arauak

Zure segurtasunerako, erabili beti jatorrizko Nokia bateriak. Nokia bateria jatorrizkoa izan dadin, eros ezazu Nokiaren saltoki baimenduetan; bilatu Nokia Original Enhancements (Nokiaren jatorrizko ekipoa) logotipoa salgaietan eta begiratu etiketari, urrats hauei jarraiki:

Lau urratsak behar bezala egin arren, bateria jatorrizkoa den berme osorik ez dugu. Eskuratutako Nokia bateria benetakoa eta jatorrizkoa ez dela susmatzen baduzu, ez duzu erabili behar. Hurbilen duzun Nokiaren hornitzailearengana edo saltokira eramatea eta laguntza eskatzea gomendatzen dizugu. Nokiaren hornitzaile edo saltoki baimenduak egiaztatuko du bateria jatorrizkoa den. Ezin bada frogatu bateria jatorrizkoa dela, eraman berriro eskuratu duzun tokira.

### Hologramaren egiazkotasuna

1. Ikus hologramaren etiketa: angelu batetik, elkartzen diren eskuen irudia ikusiko da (Nokiaren ikurra), eta, bestetik, Nokia Original Enhancements-en logotipoa (Nokiaren jatorrizko ekipamendua).
2. Okertu holograma logotipoaren ezkerrera, eskuinera, gora eta behera, eta 1, 2, 3 eta 4 puntuak ikusi behar dira alboetan.
3. Harraskatu etiketaren alde batean, eta 20 digituko kode bat azalduko da (adibidez, 12345678919876543210). Bira eman bateriari zenbakiak gora begira gera daitezten. 20 digituko kodea irakurtzeko, ikus, lehenbizi, goiko lerroko zenbakiak eta, gero, behekoak.



4. Egiatzatu 20 digituko kodearen baliotasuna, [www.nokia.com/batterycheck](http://www.nokia.com/batterycheck) Nokiaren web orriko jarraibideei jarraiki.



Testu-mezu bat sortzeko, idatzi 20 digituko kodea (adibidez, 12345678919876543210) eta bidali +44 7786 200276 zenbakira.

Operadore nazionaleri eta nazioartekoei dagozkien karguak aplikatuko dira. Hala, kodea kautotu daitekeen edo ez adieraziko dizun mezu bat jaso beharko zenuke.

### **Zer gertatzen da bateria benetakoa ez bada?**

Hologramaren etiketarekin ezin baduzu egiatzatu Nokia bateria benetakoa den, ez erabili, eta eraman hurbilen duzun Nokiaren hornitzaile baimenduarengana edo saltokira, laguntza eskatzeko. Arriskutsua izan daiteke fabrikatzaileak onartzen ez dituen bateriak erabiltzea, gailuaren errendimendua hondatu eta gailua eta ekipamendua honda dezakete. Halaber, gailuaren hainbat onarpen edo berme baliogabetu ditzake.

Nokiaren jatorrizko bateriei buruzko informazio gehiago behar baduzu, ikus [www.nokia.com/battery](http://www.nokia.com/battery).

# Zainketa eta mantentze-lana

---

Telefono hau diseinu eta fabrikazio bikaineko produktua da, eta arduraz zaindu behar da. Iradokizun hauek lagunduko dizute zure bermearen estaldura babesten.

- Ez busti telefonoa. Euriak, hezetasunak eta likidoek zirkuitu elektronikoak oxida ditzaketen mineralak dituzte. Telefonoa bustitzen bada, kendu bateria eta itxaron telefonoa erabat lehortu arte bateria berria jartzeko.
- Ez erabili eta ez gorde telefonoa leku zikinetan edo hautsez betetakoetan. Pieza mugikorrek eta osagai elektronikoak hondatu egin litezke.
- Ez gorde telefonoa leku beroetan. Tenperatura altuek gailu elektronikoen iraupena gutxitu dezakete, bateria kalte dezakete eta zenbait plastiko deformatu edo desegin egin ditzakete.
- Ez gorde telefonoa leku hotzetan. Telefonoak ohiko tenperatura berreskuratzen duenean, hezetasuna sor daiteke barrualdean, eta horrek zirkuitu elektronikoen plakak kalte ditzake.
- Ireki telefonoa beti gidaliburu honetako jarraibideen arabera.
- Ez utzi lurrera erortzen, ez kolperik eman eta ez mugitu zakarki telefonoa. Zakar erabiltzen baduzu, barne-zirkuituen plakak eta pieza mekaniko ahulenak puskatu egin litezke.
- Ez erabili produktu kimiko kaltegarriak, disolbagarriak edo garbigarri sendorik telefonoa garbitzeko.
- Ez pintatu telefonoa. Pinturak pieza mugikorrek oztopa ditzake eta behar bezala funtzionatzea galaraz dezake.
- Erabili zapi leun, garbi eta lehor bat lenteak garbitzeko (adibidez, kamera, hurbiltasun-sentsorea eta argi-sentsorea).
- Erabili telefonoak berez daukan antena edo baimendutako ordeko antena soilik. Baimenik gabeko antenek, aldaketek eta erantsitako elementuek kalte eragin diezaiokete telefonoari eta irrati-aparatuei buruzko araudia urra dezakete.
- Ez erabili kargagailurik aire zabalean.
- Gorde nahi dituzun datuen (adibidez, kontaktuak edo agendako oharrak) segurtasun-kopia egin beti, gailua hornitzaile bati bidali baino lehen.

Gomendio horiek guztiak berdin-berdin aplikatzen zaizkie telefonoari, bateriari, kargagailuari eta gainerako osagarriei. Gailuren bat behar bezala ez badabil, eraman hurbilen duzun baimendutako banatzaileari.

# Segurtasunari buruzko informazio gehiago

---

Gailuak eta haren ekipamenduak pieza txikiak izan ditzakete. Ez utzi hauren eskueran.

## ■ Ingurune operatiboa

Errespetatu ezazu zu zauden tokian indarrean dagoen araudi berezia eta itzali telefonoa erabiltzea debekatuta dagoenean, interferentziak eragin ditzakeenean edo arriskutsua izan daitekeenean. Erabili telefonoa funtzionamenduko posizio normaletan soilik. Produktu honek irrati-maiztasunaren energiarekiko esposizioa arautzen duten arauak betetzen ditu, bai belarriaren ondoan, bai gorputzetik gutxienez 2,2 cm-ra (7/8 hazbete) edukitzen denean ere. Gailua zorro babesle batekin, gerriko pintza batekin edo euskarri batekin gorputzetik gertu erabiltzen baduzu, komeni da zuk metalik gainean ez izatea eta produktua gorputzetik lehen aipatutako distantziara izan behar duzu. Mezuak edo datu-fitxategiak transmititzeko, gailu honek kalitateko sare-konexioa behar du. Kasu batzuetan, mezuen edo datu-fitxategien transmisioa atzeratu egin liteke konexio egokia erabilgarri egon arte. Ziurtatu transmisioa amaitu bitartean distantziei buruzko jarraibideak betetzen dituzula.

Telefonoaren zenbait osagarri magnetikoak dira. Telefonoak metalezko materialak erakar ditzake. Ez jarri kreditu-txartelik, ez bitarteko magnetikoak ere telefonotik gertu, horietan gordetako informazioa ezaba baitaiteke.

## ■ Aparatu medikoak

Irrati-transmisioko ekipoei, telefono mugikorrek barne, interferentziak eragin ditzakete behar bezala babestuta ez dauden tresna medikoen funtzionamenduan. Kontsultatu mediku batekin edo aparatu medikoaren fabrikatzailearekin, IM kanpo-seinaleen aurka behar bezala babestuta dauden jakiteko edo edozein zalantza argitzeko. Itzali telefonoa hala adierazten dizuten erietxeetako leku berezietan. Litekeena da ospitale eta erietxeetan IM kanpo-seinaleekiko sentikorrek diren ekipoak erabiltzea.

## ■ Taupada-markagailua

Taupada-markagailuen fabrikatzaileek telefono mugikorraren eta taupada-markagailuaren artean gutxienez 15,3 cm-ko (6 hazbeteko) distantzia izateko

gomendatzen dute, taupada-markagailuarekin interferentziak sortzea galarazteko.

Gomendio horiek ikerketa independenteen eta haririk gabeko gailuen ikerketa teknologikoen ondorioak dira. Taupada-markagailua duten pertsonak hau egin behar dute:

- Gailua beti izan behar dute taupada-markagailutik 15,3 cm-ra (6 hazbete).
- Gailua ez dute eraman behar bularraren pareko poltsikoan.
- Taupada-markagailuaren aurkako aldeko belarrian erabili behar dute telefonoa, interferentzia-arriskua ahal bezainbeste murrizteko.

Interferentziaren bat gertatzen ari dela susmatzen baduzu, itzali gailua eta urrundu.

## Entzuteko gailuak

Haririk gabeko zenbait terminal digitalek interferentziak eragin ditzakete audiofono jakin batzuekin. Informazio gehiago lortzeko, jarri harremanetan zure zerbitzu-hornitzailearekin.

## ■ Ibilgailuak

Behar bezala instalatuta edo babestuta ez dauden motordun ibilgailuetako sistema elektronikoei eragin diezaiekete IM seinaleek (esate baterako, injekziozko sistema elektronikoak, ibilgailuen balaztak blokeatzea eragozten duen balazta-sistema elektronikoak –ABS–, abiadura kontrolatzeko sistema elektronikoak, airbag-sistemak). Informazio gehiago nahi izanez gero, egiaztatu zure autoaren edo zuk erantsitako ekipamenduaren alderdi horiek fabrikatzailearekin edo haren agente komertzialarekin. Langile trebatuek soilik konpon dezakete telefonoa edo instala dezakete ibilgailu batean. Behar bezala instalatu edo konpondu ez bada, arriskutsua gerta daiteke eta telefonoari aplikatzen zaion bermea baliogabetu. Egiaztatu maiz zure ibilgailuko telefono mugikorraren ekipo osoa behar bezala muntatuta dagoela eta behar bezala dabilela. Ez biltegiratu eta garraiatu likido sukoirik, gasik eta material lehegarririk telefonoa eta haren piezak edo ekipamendua dauden leku berean. Airbaga duen ibilgailua baduzu, gogoratu indar handiz puzten dela. Ez jarri objekturik –ez instalaturiko ekipoa, eta ez telefono mugikorraren pieza eramangarriak– airbagaren gainean edo hori zabalduko den gunearen gainean. Telefonía mugikorreko ekipoa ibilgailuaren barruan behar bezala instalatuta ez badago eta airbaga zabaldu egiten bada, zauri larriak eragin ditzake.

Debekatuta dago hegazkinetan telefonoa erabiltzea. Itzali telefonoa hegazkinen sartu aurretik. Telefono mugikorrak hegazkinen erabiltzea arriskutsua izan daiteke hegazkinaren beraren funtzionamenduentzat, eta telefono mugikorraren sarearen konexioa eten egin dezake; gainera, legez kontrakoa da.

## ■ Lehergaiak egon daitezkeen inguruak

Deskonektatu telefonoa leherketak gerta daitezkeen eremuetan, eta bete seinale eta argibide guztiak. Lehertzeko arriskua dagoen tokietan autoaren motorra itzaltzea gomendatzen dute normalean. Eremu horietan ezta edo suteak izan litezke txinparten ondorioz, eta horiek kalte pertsonalak eragin ditzakete, baita heriotza ere. Itzali telefonoa gasolina-zerbitzuguneetan (adibidez, zerbitzuguneetako hornigailuen ondoan). Errespetatu erregai-deposituetan, biltegiratzeko eta banatzeko eremuetan, instalazio kimikoetan eta leherketa-eremuetan irradi-ekipoak erabiltzeko dauden murrizketak. Leherketak gerta daitezkeen guneak argi eta garbi adierazita daude sarritan, baina ez beti. Horietako batzuk hauek dira: itsasontzietako kubiartak; produktu kimikoak biltegiratu eta garraiatzeko instalazioak; petrolio-gas likidotua (adibidez, propanoa edo butanoa) erabiltzen duten ibilgailuak; eta airean partikula edo elementu kimikoak (adibidez, pikorra, hautsa edo metalezko partikulak) dauden eremuak.

## ■ Larrialdi-deiak



**Garrantzitsua:** telefono mugikorrak, hau barne, irradi-seinaleekin, haririk gabeko eta lurreko sareekin eta erabiltzaileak programatutako funtzioekin ibiltzen dira. Horregatik, ezin daiteke bermatu konexioek egoera guztietan funtzionatuko dutenik. Ez egon inoiz gailu mugikor baten baitan komunikazio garrantzitsuetarako (larrialdi medikoetarako adibidez).

### Larrialdi-deia egiteko:

1. Telefonoa piztuta ez badago, piztu. Egiaztatu seinale-intentsitatea egokia dela.  
Zenbait sarek telefonoan baliozko SIM txartel bat jartzeko eska dezakete.
2. Sakatu deiak amaitzeko tekla behar adina aldiz, pantaila ezabatu eta telefonoa deitzeko prest jarri arte.
3. Markatu tokiko larrialdi-zenbakia. Larrialdi-zenbakiak aldatu egin daitezke herri batetik bestera.
4. Sakatu deitzeko tekla.

Zenbait funtzio aktibatuta badaude, agian desaktibatu egin beharko dituzu larrialdi-dei bat egin ahal izateko. Informazio gehiago nahi izanez gero, kontsultatu gidaliburu hau edo galdetu zure zerbitzu-hornitzaileari.



Larrialdi-dei bat egitean, eman beharrezkoa den informazio guztia ahalik eta zehatzen. Litekeena da zure telefono mugikorra izatea istripuaren lekuko komunikazio-bitarteko bakarra. Ez eten deia horretarako baimena ematen dizuten arte.

## ■ Absortzio Espezifikoaren Tasaren (SAR) ziurtagiria

Irrati-maiztasunaren eraginpean egoteari buruzko arauak betetzen ditu gailu mugikor honek.

Zure telefono mugikorra irrati-transmisorea eta irrati-hargailua da. Nazioarteko arauak gomendaturiko irrati-maiztasunaren energiako esposizio-mugak ez gainditzeko diseinatuta dago. Zuzentarau horiek ICNIRP zientzia-erakunde independenteak sortu ditu eta pertsona ororen –adina eta osasun-egoera gorabehera– segurtasuna bermatzeko diseinatutako babes-tarteak dituzte. Telefono mugikorretarako esposizio estandarreko indizea Absortzio Espezifikoaren Tasa edo SAR izeneko unitatearekin neurtzen da. ICNIRP zuzentaruetan ezarritako muga 2,0 watt/kilogramo (W/kg) da batez beste, giza ehunaren hamar gramoko. SAR probak funtzionamendu estandarreko posizioetan egiten dira, eta telefonoak berriz potentzia-maila ziurtatu handienera transmititzen du probaturiko frekuentzia-banda guzietan. Martxan dagoen gailu batean SAR unitatearen benetako maila gehienezko baliotik beherakoa izan daiteke; izan ere, gailua diseinatuta dago sarearekin konektatzeko behar adina indar izateko bakarrik. Zenbateko hori aldatu egin daiteke hainbat faktoreren arabera, adibidez, sarearen oinarritzko estazio batekiko hurbiltasuna. ICNIRP arauen arabera, hau da gailua belarrian erabiltzeko SAR unitatearen baliorik handiena: 1,02 W/kg.

Gailuarentzat beste osagarri eta ekipamenduak erabiltzen badira, beste SAR balio batzuk izan daitezke. Absortzio espezifikoaren tasaren balioak (SAR) estatu bakoitzeko proba-eskakizunen eta informazioaren eta sarearen bandaren arabera dira. SARI buruzko informazio gehiago lortzeko, ikus produktuari buruzko informazioa helbide honetan: [www.nokia.com](http://www.nokia.com).

# Aurkibidea

---

## A

adierazleak 23  
 ahots bidezko markaketa 26  
 ahots-komandoak 54  
 ahots-mezuak 38  
 aktibazio-gakoak 67  
 alarma 87  
 antolatzailea 87  
 aplikazioak 92  
 atzerako kontaktaren tenporizadorea 30  
 audio-mezuak 38

## B

babestutako fitxategiak 67  
 bateria 106
 

- autentifikatu 107
- instalatu 13

 bisita-txartelak 45  
 Bluetooth-a 55  
 Bluetooth-aren doikuntzak 56  
 bolumen-teklak 20  
 bozgorailua 19

## C

caché memoria 100  
 cookie-ak 98  
 copyright-en babesia 66

## D

dardara bidezko oharra 50  
 dataren doikuntzak 52  
 datu-kablea
 

- USB 61

datu-komunikazioa 104  
 datu-paketeak 57, 104  
 datu-transferentzia 59  
 deia amaitzeko tekla 19  
 deia bukatu 27  
 deiak
 

- amaiera 25
- desbideratu 61
- doikuntzak 61
- egin 25
- galdutakoak 48
- jasotakoak 48
- zain 27

dei-tonuak 27, 50  
 deitzeko sakatzea. Ikus PTT  
 deitzeko tekla 19  
 deskarga mailakatua 73  
 deskargatu
 

- aplikazioak 93
- babestutako fitxategiak 66
- edukia 12
- jokoak 92

 desplazamendu-teklak 19  
 doikuntzak
 

- data 52
- erlojua 52
- multimedia 41
- ordua 52

 DTMF tonuak 27

## E

eguneratzeak 12  
 ekipamenduaren doikuntzak 64

ekipamenduaren konektorea 19  
ekualizadorea 79  
energia aurreztu 52  
erlojuaren doikuntzak 52  
erregistroa 48  
eskubide digitalen kudeaketa 66

## F

flash mezuak 37  
FM irratia 76  
funtzio anitzetarako tekla 19

## G

gaiak 50  
galeria 70  
gogokoak 97  
grabagailua 78

## H

hegazkin galdera 63  
horma-papera 50, 51

## I

idazteko hizkuntza 28  
informazio-mezuak 39  
infragorriak 57  
infragorrien ataka 20  
irratia 76  
irudien tamaina 41  
isildu 27  
Itzarote aktiboa 51, 54

## J

jatorrizko doikuntzak berriz jarri 68  
jokoak 92

## K

kablea  
    USB 61  
kalkulagailua 89  
kamera 71  
kameraren doikuntzak 72  
kamera-tekla 20  
karaktere bereziak 29  
karga 106  
karga-maila 20  
karpetak 36  
konfigurazioa 64  
kronometroa 91

## L

larrialdi-deiak 113

## M

mantentze-lanak 109  
markaketa bizkorra 25, 46  
markatutako zenbakiak 48  
memoria-txartela 15, 70  
memoria-txartelaren zirrikitua 19  
mezuak  
    audioa 38  
    flasha 37  
    kontagailua 48  
    multimedia 33  
    SMS posta elektronikoa 31  
    testua 31  
    txantiloiak 37  
mezuen zentroko zenbakia 31  
moduak 49  
multimedia-erreproduzitzailea 73  
multimedia-mezuak 34

murrizketa-pasahitza 11  
 musika-erreproduzitailea 74

## N

nabigatzailea 94  
 nabigatzailearen segurtasuna 98  
 nire zenbakiak 47

## O

oharrak 89  
 ohiko bidea erabilita testua idatzi 29  
 ohikoa 29  
 operadorearen logotipoa 51  
 orduaren doikuntzak 52

## P

pantaila-babesa 52  
 PC batetik 60  
 PCSuite 104  
 pertsonalizatu 49, 51  
 PIN kodeak 10  
 piztu/itzali 17  
 plug and play zerbitzua 17  
 PTT 80  
 PUK kodea 11

## S

sarbide-kodeak 10  
 sarea 7  
 segurtasuna 6, 111
 

- ekipo medikoak 111
- entzuteko gailuak 112
- ibilgailuak 112
- larrialdi-deiak 113
- leherkariak dauden inguruak 113
- taupada-markagailua 111

ziurtagiriaren informazioa 114  
 segurtasun-doikuntzak 65  
 segurtasun-kodea 10  
 seinalearen intentsitatea 20  
 SIM mezuak 33  
 SIM txartela 13  
 sinadura digitala 102  
 sinkronizazioa 60  
 SMS posta elektronikoa 32  
 streaming zerbitzuak 73

## T

taldeak 46  
 teklatua blokeatu 24  
 teklatua blokeatu 24  
 teklatua desblokeatu 24  
 telefonoaren doikuntzak 62  
 telefono-aurkibidea 43  
 telefono-aurkibidea 88  
 testu prediktiboarekin idatzi 28  
 testua
 

- idatzi 28
- prediktiboa 28

 testu-mezuak 31  
 txantiloiak 32

## W

Web-a 94

## Z

zerbitzari batetik 60  
 zerbitzu-komandoak 39  
 zereginen zerrenda 89  
 ziurtagiriak 101  
 zuzeneko sarbidea 22